# ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOA NERABEENGAN

## Nortasunaren garapenerako eta giza eskubideen arloko hezkuntzarako programa

Maite Garaigordobil Landazabal



Servicio Editorial
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

Argitalpen Zerbitzua
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

# Esku-hartze psikologikoa nerabeengan

## Nortasunaren garapenerako eta giza eskubideen arloko hezkuntzarako programa

Maite Garaigordobil Landazabal

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
servicio editorial

Euskal Herriko Unibertsitatea
argitalpen zerbitzua

Liburu hau Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntzaz argitaratu da.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, bai eta berorri tratamendu informatikoa ematea edota liburua ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratara, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman.

Itzultzaile eta begizalea: Mikel Haranburu Oiharbide

Lanaren egilea eta jatorrizko izenburua:

© *Intervención psicológica con adolescentes* (2000)
Derechos de edición en castellano Ediciones Pirámide (Grupo Anaya, S.A.)
c/ Juan Ignacio Luca de Tena, 15. 28027 Madrid

© 2002, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
*Esku-hartze psikologikoa nerabeengan*

ISBN: 84-8373-435-4
Lege gordailua: BI - 1410-02

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimatzea: Itxaropena, S.A.
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

# Aurkibidea


**Sarrera** ........ 9

**Esku-hartze programaren deskribapena** ........ 13

1. Programaren helburuak eta ezaugarriak ........ 13
   - 1.1. Helburu orokorrak eta zehatzak ........ 13
   - 1.2. Programaren ezaugarriak eta eraketa ........ 15
2. Talde batean programa aplikatzeko prozedura ........ 16
   - 2.1. Esku-hartzearen zedarritze metodologikoa egituratzen duten aldagai iraunkorrak ........ 16
   - 2.2. Talde batekiko esku-hartzea zuzentzeko iradokizun metodologikoak ... 18
   - 2.3. Taldearen garapen prozesua errazteko teknikak ........ 22
     - 2.3.1. Ekintzaren garapenerako talde dinamikako teknikak ........ 22
     - 2.3.2. Eztabaida edo debatea sustatu eta arautzeko teknikak ........ 23
   - 2.4. Saioen diseinua eta esku-hartzearen egituraketarako proposamenak .. 24
3. Programaren moduluak eta jardueren aurkibidea ........ 33
4. Programaren sarrerarako kontsigna ........ 35
5. Programako jardueren deskribapena ........ 37

**Eranskina** ........ 143

# Idazlanaren hitzaurrea eta sarrera

Idazlan honen egilea, Maite Garaigordobil Landazabal, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra da. Doktoregoko Sari Berezia jaso zuen 1991-92 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztutako tesiarengatik, eta Hezkuntza Ikerketako Lehen Sari Nazionala 1994an. Bere ikerketa lana ebaluazio eta esku-hartze psikologikoaren arloan zentratu da batez ere, eta Unibertsitateko organigramaren barnean kudeaketa lan sakona egin du. Esperientzia zabala du, bai graduaurreko irakaskuntzan, bai graduosteko eta masterretako irakaskuntzan ere. Psikologiako Biltzar ugaritan esku hartu du hizlari gisa. Hedabideek (irratiak, prentsak...) ohiko lankide izan dute bere ikerketekin zerikusia duten gaietan. Esperientzia handia du doktorego tesien zuzendaritzan eta ebaluazioan, eta baita irakasleen titulartasun lehiaketen epaile bezala ere. Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzak finantzatutako ikerketa proiektu asko zuzendu ditu, eta haur nahiz nerabeen ebaluazio tresna zenbait diseinatu ere bai.

Dozena erdi liburu baino gehiagoren egilea da, hogeitik gora liburu ditu beste egileekin lankidetzan idatziak, eta artikulu sail luzea du argitaratua, bai estatuko aldizkarietan, bai atzerrikoetan. Bere argitalpen ugarien artean, gai hauen ingurukoak dira nabarmentzen direnak: jarduera ludikoa baliabide psikopedagogiko bezala; lankidetzazko jokoa haurraren gizarteratze prozesuan; sormena; esku-hartze psikologikoaren ebaluazioa eta garapen psikologiko eta mugimenezkoa.

Esku artean duzun liburu hau «Esku-hartze psikologikoa nerabeengan. Nortasunaren garapenerako eta giza eskubideetan hezteko programa» izenburupean Piramide Argitaletxeak (Maite Garaigordobil, 2000, Madril: Pirámide) argitaratutako lanaren zati baten euskarazko itzulpena da. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak finantzatutako ikerketa proiektu batean eta Hezkuntza eta Kultura Ministerioak 1998an Hezkuntza Ikerketaren III. Sari Nazionalaz saritu zuen lan batean oinarritua dago.

Lan hau egiterakoan, helburu hirukoitz batek gidatu du egilea:

1. Nerabeen garapen pertsonala eta soziala sustatzeko asmoz taldean esku hartzeko programa bat diseinatu.
2. Talde esperimental batzuetan programa hezurmamitu.
3. Nerabeen garapen afektibo-emozionalean eta sozialean duen eragina ebaluatu.

Piramide Argitaletxean argitaratutako liburuan agertzen den lana lau ataletan egituratua dago. Euskarazko itzulpen honetan bigarren atala bakarrik ematen bada ere, egokia iruditu zaigu jatorrizko testuaren egitura osoa agertzea, haren baitan hartzen baitu zentzu osoa euskaratutako zatiak.

Lehen atalean programaren oinarri teorikoak agertzen dira. Oinarri horiek hiru ikerketa lerrotatik elikatzen dira: 1) nerabezaroaren alderdi ebolutiboa eta nerabeen garapen pertsonal eta sozialean kideen arteko elkarreraginak duen funtzioa ikertzen duena; 2) gizartearen aldeko jokaeraren ikerketari dagokiona: nerabearen garapen psikosoziala sustatzen duten faktoreak eta garapen horretarako lankidetza esperientziak eskaintzen dituen onurak; 3) talde baten garapen prozesuak aztertzen dituena eta giza eskubideei buruzko hausnarketa bultzatzen duena.

Bigarren atalean, hain zuzen ere liburu honetan itzultzen den atalean, esku-hartze programa deskribatzen da: helburuak, aplikazio prozedura eta metodologia, esku-hartzea egituratzen duten moduluak eta haien barneko jarduerak. Hiru helburu nagusi bete nahi ditu programak bere jardueren bidez: 1) taldearen identitatea sortu eta sustatu; 2) hautemateen, estereotipoen eta aurreiritzien identifikazioa eta azterketa; 3) diskriminazio eta etnozentrismo gertakarien azterketa eta haiei buruzko jarrera aldaketa, gizabanakoen, taldeen eta nazioen arteko elkarreraginari buruzko hausnarketaren bidez. Programak dituen 60 jarduerak 7 modulutan banatzen dira; beraz, modulu bakoitzak 8-10 bat jarduera izango ditu. Moduluak honako hauek dira: autoezagutza-autokontzeptua, talde barneko komunikazioa, sentimenduen adierazpen-ulerkuntza, laguntza eta lankidetzako harremanak, hautemateak-estereotipoak, diskriminazioa-etnozentrismoa, gatazken ebazpena. Talde dinamikako teknika ezberdinak baliatzen ditu programak. Esku-hartze programaren aplikazio esperimentala astean bi orduko esku-hartze saioen bidez egin da, ikasturte osoan zehar. 4 talde esperimentali aplikatu zaio programa, eta 2 kontrol talderen erreferentzia kontuan hartuta ebaluatu dira emaitzak.

Hirugarren atalean programaren metodologia eta ebaluazio tresnak agertzen dira. Bi ebaluazio estrategia erabiltzen dira:

1) Ebaluazio batukorra, hots, emaitzen ebaluazioari dagokiona: esku-hartzearen ondorenak ebaluatzen dira programa gauzatu aurretik eta ondoren aplikatzen diren 16 neurtresnen bidez. Era berean, beste bi galdekizun ere erabiltzen dira programa ebaluatzeko: programaren aplikazioak izan dituen ondorenen hautemate subjektiboa islatzen dute.

2) Programaren ebaluazio hezitzailea edo ebaluazio jarraitua; behaketa teknika kualitatiboa da, saioen egunkariaren eta taldeko jardueren azterketaren bidez egiten dena.

Laugarren atalean, diseinatutako programaren arabera egindako eta ikasturte baten buruan gauzatutako ikerketa enpirikoa deskribatzen da. Abiapuntuko hipotesi orokorra hau da: programak eragin positiboa edukiko du partaideen garapen pertsonal eta sozialean. Talde anitzeko diseinu bat egiten da: lau talde esperimental bi kontrol talderekin alderatzen dira. Baldintza esperimentaleko 125 subjektuk eta kontrol baldintzako 49 subjektuk osatzen dute lagina. Test-aurreko eta test-ondoko datuekin egindako bariantza analisi multibariatuaren bidez zera egiaztatzen da: eragin esanguratsuki positiboa eduki duela programak nerabeen garapen pertsonal eta sozialean. Ikerketa enpirikoa 12 urtetik 14 urtera bitarteko nerabeekin egin bada ere, adin ezberdinetako nerabeei eta helduei aplika dakieke programa hau, eta eskolaz kanpoko testuinguruetan ere erabil daiteke.

Ikerketan erabilitako ebaluazio tresnak aurkezten dituzten bi eranskinekin amaitzen da testua. Euskarazko itzulpenean lehenengo eranskina bakarrik ematen da.

Programaren jarduerak aurkezten dituen bigarren atala eta ebaluazio tresnei dagokien lehenengo eranskina itzuli dira jatorrizko lanetik, talde euskaldunetan aplikatu ahal izateko. Alabaina, nerabe talde bati programa administratzeko gaztelaniazko testua erabiltzea beharrezkoa da, alde batetik, programaren oinarri teorikoak, aplikaziorako metodologia eta ebaluazio tresnen zuzenketarako giltzarriak bertan agertzen direlako, eta bestetik, programa horren bidez egindako ikerketari buruzko informazioa dakarrelako. Honela, beraz, talde euskaldunetan programa gauzatzeko ezinbestekoa den materiala bakarrik itzuli da.

*Mikel Haranburu Oiharbide*
Idazlanaren itzultzailea
EHU-ko irakaslea

# Esku-hartze programaren deskribapena

Nerabe talde batekin esku-hartze programa burutzeko beharrezkoa den informazioa azaltzen da liburu honetan. Lehenik, programaren helburuak, bereizgarriak eta talde batean hura hezurmamitzeko prozedura metodologikoa identifikatzen dira; ondoren, programa egituratzen duten zazpi moduluak zehazten dira eta modulu bakoitzeko jarduerak deskribatzen, berauen helburu espezifikoei, argibideei, eztabaida saioak gidatzeko galderei eta abarri buruzko gaiak argituz.

## 1. PROGRAMAREN HELBURUAK ETA EZAUGARRIAK

### 1.1. Helburu orokorrak eta zehatzak

Giza eskubideen hezkuntzarako esku-hartze psiko-hezitzailearen programa hau eratzen duen jarduera multzoak hiru helburu nagusi ditu: 1) taldea sortu eta haren garapena sustatu; 2) hautemateak, estereotipoak eta aurreiritziak identifikatu eta aztertu; eta 3) diskriminazioa aztertu, etnozentrismoa gutxitu eta gizabanakoen, taldeen eta nazioen arteko elkarrekiko menpekotasuna ulertu. Maila konkretuago batean, honako helburu espezifiko hauek planteatzen ditu programak:

1. *Taldea sortu eta haren garapena sustatu*

—Norbere ezagutza eta taldeko beste kideen ezagutza zabaldu.
—Norbere kontzeptuaren eta norbere irudiaren hobekuntzarekin batera, taldeko kideen balioaren zentzua eta besteekiko begirunea hobetu.
—Entzute aktiborako, zentzu bitako komunikaziorako, komunikazio asertiborako azturak, galdetzeko eta arrazoibidez elkarrizketatzeko gaitasuna suspertu.

—Gaitasun kritikoa eta argudio berri kementsuen aurrean planteamenduak aldatzeko jarrera irekia sustatu.
—Lankidetza gaitasuna suspertu, hau da, helburu komunak lortzeko laguntza ematen eta jasotzen ikasi.
—Sentimendu ezberdinen adierazpena erraztu, hau da, norbere sentimenduak ezagutu, sailkatu eta asertiboki adierazi, eta taldeko lagunen sentimenduen adierazpena onartu.
—Beste gizakien emozio egoeren aurrean enpatia suspertu.
—Gatazken analisi eta ebazpenerako teknikak ikasi, hots, gatazkak definitzeko, haien zergatiak, garapena eta egungo egoera ezagutu eta ebazpideak aurkitzeko gaitasuna garatu.

2. *Hautemateak, estereotipoak eta aurreiritziak identifikatu eta analizatu*

—Hautematearen muga fisiologikoak eta psikologikoak esperimentatu.
—Norbere hautemateak, sinesteak, aurreiritziak ... analizatu, besteenekin kontrastatuz.
—Begirada zabaldu, norbere ikuspegia malgutu eta gertaera beraren aurrean beste hautemate, azalpen edo ikuspegi posible batzuetara ireki.
—Hautemateen jatorriari buruz, hauek jokaeran duten eraginari buruz eta hautemate oker eta estereotipatuen aldaketa susta dezaketen mekanismoei buruz hausnartu.
—Klixearen edo estereotipoaren kontzeptua argitu, informazio gutxirekin eratzen diren errealitateari buruzko klixeen eraikuntzarako joera nabarmenduz.
—Gertaerak eta iritziak bereizi.
—Beste taldea deskalifikatzen duten eta aurreiritzien mozorro diren talde dinamikak ezagutu.

3. *Diskriminazioa analizatu, etnozentrismoa gutxitu eta elkarrekiko menpekotasuna ulertu*

—Beste gizarte eta kultur taldeei buruzko hautemateak ezagutu, eta diskriminaziozkoak, arrazistak edo xenofoboak diren jarrerak identifikatu.
—Kultur talde ezberdinei buruzko informazioa zabaldu, haien ulerkuntza hobetzeko, etnozentrismoa gutxitzeko, beste kultura, arraza eta bizimoduekiko tolerantzia gehitzeko.
—Diskriminazio mota eta era ezberdinak (sexua, arraza-etnia, erlijioa...) bereizi.
—Norbere taldearen baitan gertatzen diren diskriminazio konkretuen egoerak identifikatu, aldaketa helburuak planteatuz.
—Diskriminazio sentimenduak esperimentatu, esperientzia hori ulertzeko.
—Munduko aberastasunen banaketa zuzengabea nabarmendu, urritasunean eta eskasian bizi diren pertsonekiko enpatia suspertuz.

—Bizi diren mundua eta gizabanakoen, taldeen eta nazioen elkarrekiko menpekotasuna ulertu.

## 1.2. **Programaren ezaugarriak eta eraketa**

12 urtetik 14 urtera bitarteko nerabe taldeekin erabiltzeko diseinatu eta egokitu da esku-hartze programa, jarduera hauetako asko adin-talde gehiagokoekin erabil badaitezke ere. Taldearen irakasle-tutoreak edo prestakuntza psikopedagogikoa (psikologoa, pedagogoa...) duen beste helduren batek aplika dezake esperientzia hau. Batez beste 8-10 bat jarduera dituzten zazpi modulu edo esku-hartze ardatzetan banaturiko 60 jarduerak eratzen dute programa. Moduluak honako hauek dira:

1. *Autoezagutza-autokontzeptua*: Norbere buruaren ezagutza eta besteen ezagutza sustatzen duten, eta norbere irudia eta besteen irudia hobetzen duten zortzi jarduera biltzen ditu.
2. *Talde barneko komunikazioa*: Talde barneko komunikazioa eta giza komunikazioa hobetuko duten trebetasunen garapena sustatzeko bederatzi jarduera sartzen ditu.
3. *Sentimenduen adierazpena eta ulerkuntza*: Sentimenduen identifikazioa eta adierazpena, sentimendu ezberdinen zergati eta ondorenen analisia eta sentimendu negatiboen ebazpen moldakorrerako mekanismoak erraztuko dituzten zortzi jarduera biltzen ditu.
4. *Laguntza eta lankidetzako harremanak*: Taldeko kideen arteko laguntza eta lankidetzako harremanak sustatzen dituzten hamar joko proposatzen dira.
5. *Hautemateak eta estereotipoak*: Hautemate eta estereotipoen identifikazioa, besteen hautemateen kontrastea eta hautemateak jokaeran duen eraginari buruzko hausnarketa errazten duten zortzi jarduera biltzen dira.
6. *Diskriminazioa eta etnozentrismoa*: beste talde soziokulturalen ikuspegiekiko irekitasuna, etnozentrismoaren gutxitzea eta gizabanakoen, taldeen edo nazioen arteko elkarrekiko mendetasunaren ulerkuntza bultzatuz diskriminazioaren analisia ahalbidetzen duten zortzi jarduera sartzen ditu.
7. *Gatazken ebazpena*: gatazka ezberdinen analisi eta ebazpenerako teknikak eta prozesuak aktibatzea helburutzat duten gatazka egoerak aurkezten dituzten bederatzi jarduera biltzen ditu.

Mila jarduera baino gehiago berrikusi ondoren, esku-hartze programa eratzen duten jarduerak sistematizatu ziren. Programan sarturiko jarduеretako batzuk antzeko helburuak zituzten beste programa batzuetatik aukeratu eta egokitu dira (Aguilera et al., 1993; Brunet eta Negro, 1982; Cascón eta Martín, 1986; Cascón, 1990; De la Cruz eta Mazaira, 1992; Fitzer, 1988; Hernández eta Aciego, 1990; Hernández eta García, 1992; Hicks, 1988/1993; Hostie,

1982; Michelson et al., 1983; Orlick, 1986; Pallarés, 1982; Simón eta Albert, 1989; Vela, 1976), beste jarduerak, ostera, esperientzia honetarako bereziki sortu dira. Dena den, jarduera guztiei buruzko fitxa edo aurkezpen formatu bat garatu eta sistematizatu da, honako osagaiok dituena:

—*Helburuak*: jarduera honekin lortu nahi diren helburu zehatzak finkatzen dira.
—*Jardueraren deskribapena*: jarduera burutzeko helduak taldeari eman beharreko aginduak, eta hark jarraitu beharreko fase eta prozedurak planteatzen dira. Era berean, esku-hartzea burutzen duten helduen lana errazteko asmoz, ohar osagarriak eta iradokizun metodologikoak sartzen dira.
—*Eztabaida*: ekintzaren ondoren burutzen den hausnarketa eta eztabaida faserako galdera sail bat iradokitzen da. Jardueraren helburuei lotuak daude galdera hauek; dena den, izaera orokor eta orientatzailea dute, eta eztabaida taldean planteatzen diren ekoizpen, ondorio edo berbaldien arabera egin daitezkeen beste galderentzat bidea irekita uzten dute.
—*Materialak*: jarduera burutzeko beharrezkoak diren materialak izendatzen dira.
—*Denbora*: 20-25 kideko talde batekin jarduera burutzeko beharrezkoa den gutxi gorabeherako denbora proposatzen da. Dena den, haren iraupena aldakorra izan daiteke, taldearen burutzapen partikularraren eta tamainaren arabera.
—*Taldearen egituraketa*: jarduera bakoitzean taldeak duen antolamendu modua kode bidez errazten da (BA = Banaka) (BI = Bikoteka) (TT = Talde txikietan) (TH = Talde handian).

Jarduerak lau talde esperimentaletan gauzatu ondoren eta burutzapenean zehar ikerketa-ekintza metodologia deiturikoaz behatutakoaren arabera beharrezko aldakuntzak eragin ostean burutu da aurkezten den programaren behin betiko egituraketa. Hasierako diseinuan planteaturiko deskribapenaren aldakuntza txikiak egin dira, hala nola, jarduera batzuen berridazketa, haien garapenerako jarraitu beharreko prozesua zehaztasun gehiagoz deskribatzea, eztabaidaren zatian galdera berriak sartzea... Oro har, hasierako formulazioa hobetu egin da, nerabe taldeari programa aplikatzeko lana helduari errazteko asmoz.

## 2. TALDE BATEKIN PROGRAMA APLIKATZEKO PROZEDURA

### 2.1. Esku-hartzearen zedarritze metodologikoa egituratzen duten aldagai iraunkorrak

Talde batekin esku-hartze programa aplikatzeko prozedurak esku-hartzearen zedarritze metodologikoa egituratzen duten aldagai konstanteen sail bat

mantentzea eskatzen du. Esperientzia kudeatzeko aldagai konstanteak honako hauek dira:

1. *Saio arteko konstantzia*: Esku-hartze programa honen aplikazio esperimentalean bi orduko iraupena zuen asteroko esku-hartze saio bat egin zen ikasturte osoan zehar. Dena den, saioen maiztasuna taldearen denbora baldintzetara egokitu daiteke, ordubeteko asteroko saioak edo bi orduko hamabosteroko saioak planteatuz, beti ere saio arteko tartea aldatu gabe.
2. *Espazio-denboren konstantzia*: egun berean, astero ordu berean eta espazio fisiko berean burutzen da esperientzia; psikomotrizitate gelan, soinketa gelan edo arbel bat eta koltxoneta batzuk dituen oztoporik gabeko beste gela handi aske batean egin daiteke. Esku-hartzea egingo den gelak behar adinako plastizitatea eduki behar du taldearen antolamendu mota ezberdinak ahalbidetzeko (talde handia, talde txikiak, bikoteak...).
3. *Esku-hartzea bideratuko duten eredu helduen konstantzia*: Beti heldu berberek gidatuko dituzte saioak; alde batetik, taldearen dinamika zuzentzen duen irakasle-tutorea edo prestakuntza psikopedagogikoa duen (psikologoa, pedagogoa...) beste heldu bat eta, beste aldetik, lankide bat. Programa aplikatzeko lankidearen irudia behar-beharrezkoa ez bada ere, irakasleak beste heldu baten laguntza izan dezala iradokitzen da; heldu honen egitekoa zera litzateke: test aurreko eta test ondorengo ebaluazioa egitea (programa aplikatu aurretik eta ondoren ebaluazio frogak aplikatzea) eta ebaluazio jarraitua (esku-hartze saioetan behaketa sistematikoa) egitea. Programaren aplikazio esperimentala metodologia honekin egin da, eta esperientzia egoki garatu dela ikusi; beraz, honela gauzatzea iradokitzen da.
4. *Saioaren egitura edo formatuaren konstantzia*: Egitura berarekin eratzen dira beti saioak: 1) lehenik, taldeko kideak posizio zirkularrean esertzen dira zoruan, eta jarrera horretan jardueraren helburuak eta jarraibideak planteatzen dira; 2) bigarren unean, taldeak ekintza burutzen du, eta 3) jardueraren burutzapena amaitzean, taldeko kideak posizio zirkularrera itzultzen dira eta talde handiko eztabaida edo elkarrizketa faseari ekiten zaio. Hausnarketarako eta elkarrizketarako unea (irakasleak gidatua) da fase hau, taldeak burutu duen jardueraren hausnarketarako eta emaitzak analizatzeko garaia. Bi orduko iraupena duen esku-hartze saio batean bi ariketa egiten dira, bata bestearen atzetik, jarduera bakoitzerako gutxi gorabehera ordubete hartuz. Dena den, saio batean egingo den jarduera kopurua jarduera bakoitzaren burutzapenerako eta eztabaidarako talde berezi bakoitzak behar duen denborari loturik egongo da. Saio guztiak eskema berari jarraituz eratzen dira, lehen saioaren salbuespenarekin, saio honen hasieran «programaren sarrerako kontsigna» deitua jasotzen baita. Kontsigna

honek zedarrituko du gauzatu nahi den esku-hartzea, esku-hartze programaren helburuei eta biltzen dituen jarduera motei buruzko azalpen orokor baten bidez. Era berean, denbora zedarritzen du (programa gauzatuko den astearen eguna eta ordua) eta esperientzian esku hartuko duten irudi helduak identifikatzen dira (irakaslea edo psikologoa eta behatzailea).

**1. laukia**

Esku-hartze saio baten egituraketa

| |
|---|
| 1. JARDUERA<br>—Helburuak eta argibideak.<br>—Ekintzaren garapena.<br>—Eztabaida edo elkarrizketa fasea. |
| 2. JARDUERA<br>—Helburuak eta argibideak.<br>—Ekintzaren garapena.<br>—Eztabaida edo elkarrizketa fasea. |

## 2.2. Talde batekiko esku-hartzea zuzentzeko iradokizun metodologikoak: helduaren egitekoa

Esperientzia honetàn taldearen zuzendaritza errazteko asmoz, helduaren esku-hartzea gauzatzeko baliagarriak izan daitezkeen iradokizun orokorren sail bat aurkezten da ondoren. Hiru mailatan planteatzen dira iradokizunak: 1) jardueraren helburu eta jarraibideen azalpena; 2) jardueraren antolamendua eta arauketa, eta 3) eztabaida edo elkarrizketa fasearen zuzendaritza.

1. *Helburu eta argibideen azalpena*

Jarduera bakoitzaren helburuak taldeari azaltzea modu sintetikoan egiten da, haren bidez lortu nahi dena laburki komentatuz. Jarduerak deskribatzen dituen materiala helduari zuzendutako eskuliburu bezala formulatu dela kontuan hartuta, taldeari jardueraren helburuak eta argibideak azaltzeko batzuetan beharrezkoa gertatzen da hizkuntza egokitzea. Argibideen azalpena sintetikoki eman behar zaio taldeari, egin behar den lana eta hura burutzeko zaindu beharreko prozedura eta arauak argituz. Era berean, jardueren eta esperientzia osoaren planteamenduan ikuspegi ludiko bat edukitzea garrantzitsua da, talde giro positiboa sustatuz. Jardueraren garapen egoki baterako garrantzitsua da helduak aurrez argi eta garbi ulertzea jardueraren argibideak eta gauzatze prozesua.

2. *Jardueraren antolamendua eta arautzea*

Taldeko kideen norabide anitzeko elkarreragina sustatzeko asmoarekin, komeni da talde edo ekipo txikietan taldekatzeko moduen proposamena zuzenean egitea, taldeak jarduera bakoitzerako desberdinak izan daitezen. Kasuren batean taldeko kideek taldeak askatasunez eratzea plantea badaiteke ere, joera bezala komenigarri gertatzen da irakaslea izatea kideak irizpide ezberdinen arabera taldetan banatuko dituena, partaide bakoitzak ahalik eta adiskide ezberdin gehienekin elkarreragina izan dezan ikasturtean zehar.

Prozesu honetako beste alderdi garrantzitsu bat, amaieran hausnarketa edo eztabaida bat burutu ahal izateko moduan, jardueren denbora arautzeari dagokiona da. Jarduerarako burutzeko denbora gutxi edukiz gero, talde txikiko lanaren fasea alde batera utz liteke, jardueraren azterketa talde handian zuzenean burutuz.

3. *Eztabaida edo debate fasearen zuzendaritza*

Eztabaidaren zuzendaritzari dagokionez, jardueraren azterketa eta eztabaida gidatzera zuzendutako helduaren jokaerari buruzko iradokizunak norabide askotan plantea litezke.

***Heldua da burututako jardueran inplizituki gordetzen diren ondorioen hausnarketa eta identifikazio prozesuan taldea gidatzen duena***

Talde gidaritzaren eginkizun hau mekanismo ezberdinen bidez burutu dezake, hala nola, galderak eginez, jardueraren ekoizpenak analizatuz edo ekintzaren sintesiaren eta taldekideek hitzez emandako informazioaren bidez.

a) Taldeko kideengan hausnarketa suspertzeko teknika bezala galderak egitea

Jarduera bakoitzak helburu batzuk ditu, eta helburu horietara egokituta daude. Jardueraren ekintza fasea planteatu ondoren, jarduera burutzen zuen bitartean gertaturikoaz eta helburuen (esku-hartzea, eztabaida eta entzute aktiboa, norbere buruaren ezagutza eta besteen ezagutza, lankidetza, hautemateen argitzea, sentimenduen identifikazioa, azterketa eta adierazpena...) asebetetze mailari buruz taldea hausnarketan saiatzeko gogoeta fasea hasten da. Horretarako, jardueren helburuei dagokienez, haiek gauzatzeko behar diren baldintzei buruzko galderak egiten dizkio irakasleak taldeari. Programaren jardueren deskribapenaren atalean jarduera bakoitzaren debate edo eztabaida faserako hainbat galdera iradokitzen dira, baina talde bakoitzean gertatzen denaren arabera, behatutako gertakarietatik eratorritako beste galderak erantsiko ditu helduak. Jarduera batzuetan (esaldi osatu gabeak,

ideiak eta aurreiritziak, beste herrien irudiak...) nerabeek beren ikuspegiak orrialde batean azaltzen dituzte. Irakasleak ozenki irakur ditzake taldeko kideen erantzunak, laburpenak eginez, esanguratsua dena azpimarratuz, analisi-gaia den kontzeptua argitzen taldeari lagunduz eta hausnarketa sustatuko duten eta jardueraren ondorio inplizituetara taldea gidatuko duten galderak eginez.

Eskuarki, garrantzitsua da jardueraren helburuei loturik egoten den jarduera bakoitzaren debatearen muina kontuan hartzea eta taldeko kideen jokaeraren eta berbaldien osagai esanguratsuak atzemateko arretatsu egotea. Faktore biok taldearen hausnarketa errazteko helduak egiten dituen galderen egokitzapenean eragingo duten parametroak dira; eragina izango dute beraz, taldearen hausnarketaren aberastasunean.

b) Taldeak sortutako jardueraren emaitzen azterketa

Hausnarketarako bereziki esanguratsua den analisi ardatz bat taldeak edo taldea osatzen duten ekipoek ekoitzitako jardueren emaitzen analisia da. Ekoizpenen analisi honetarako erabili beharreko prozedura jarduera bakoitzaren aurkezpen fitxan zehazten da (ikus 2. atala, 5. epigrafea. Programaren jardueren deskribapena), eta ebaluazio jarraituari dagokion atalean ere bai (ikus 3. atala, 2. epigrafea. Ebaluazio jarraitua). Material honek garrantzi handia du taldearen burutzapena eta haren jardueraren helburu esplizitu eta inplizituen lortze maila neurtzeko irakurketa tresna bezala. Ekoizpen landuen analisi hau aztergai den aldagaiari buruz (komunikazioa, lankidetza...) taldeak duen mailaren ebaluazio faktore bezala baliagarri izateaz gain, oso garrantzitsua da, galderak egitea ahalbidetuko duen tresna baita, eta horrek talde hausnarketa aberatsagoa eragingo du.

c) Ekintzaren eta esandakoaren laburbilketa

Taldekideen iritzi eta ikuspegien azalpenaren ondoren, helduak ideia nagusiak sintetiza ditzake, taldeak esandakotik esanguratsuena dena azpimarratuz. Gainera, jardueraren garapenaren azken minutuetan jardueran gertaturiko guztia laburbilduko du (berak behatu duena, jardueraren burutzapenari buruz taldekideek eztabaida fasean esan dutena...), taldea aldaketarako helburuak zehaztera gidatuz, halakorik komeni dela pentsatzen denean. Taldea eratzen duten azpitalde edo ekipoen jardueraren emaitzen azterketa oso baliagarria gerta daiteke, taldearen ekoizpena, haren erantzunen eta haietatik eratorritako ondorioen nolakotasuna argitzeko tresna bezala.

| |
|---|
| ***Helduak ez ditu balore iritziak eta iritzi pertsonalak ematen, pentsamendu kritikoa sustatzen du eta jokaera egokiak indartzen ditu*** |

Orokorrean jardueren multzoan balore iritzirik ez ematea iradokitzen da, bereziki gai bati buruzko ikuspegi ezberdinak planteatzen diren jardueretan (adibidez, polarizazio elektrikoa, komunikazioa eta adostea, rolak edo paperak, esaldi osatugabeak, ideiak eta aurreiritziak, beste herrialdeei buruzko irudiak...). Esku-hartzea zuzentzen duen helduak ez du agertu behar eztabaidagaiari buruzko bere iritzi pertsonala, eta balore iritzirik ere ez du eman behar taldearen aurrean. Taldeko kideen pentsamendu eta sentimenduen azalpena sustatzea eta berorien azterketa eta hausnarketa bultzatzea da bere lana. Gai bati buruz egon daitezkeen ikuspuntu ezberdinen aurrean begirunezko ikuspegia hartuta burutu behar da hau, taldeko kideak beren artean deskalifikazio edo etsaitasun negatibo eta erasokorretan murgil daitezen saihestuz. Jokaera patroi honek ez du jarrera pasiboa inplikatzen, taldeari erantzun jakin batzuen aurrean erantzun horien inplikazioak aztertzea ahalbidetuko dioten galderak egin behar baititu helduak. Gainera, informazio aktiboa edo eztabaidagaiari buruz eskura dituen datuak eskain ditzake helduak.

Programaren helburuetako bat taldeko kideen gaitasun kritikoaren garapena erraztea denez, jarduera konkretuaren helburuen eta taldearen burutzapenaren arteko alderaketa egitera bultzatzen du helduak taldea. Eta horrek zera inplikatzen du: jarduera burutzean taldeak dituen arazoak identifikatzea. Dena den, ez da ahaztu behar taldeari irudi positiboak itzultzearen garrantzia, helburuak lortzean, ekoizpen onak burutzean, intereseko arrazoiketak planteatzean, elkarri begirunez entzutean, denak esku-hartzean, beste pertsonekiko begirunea edo sentiberatasuna agertzean errefortzu positiboa emanez.

## *Eztabaida edo debate faserako beste iradokizun orokorrak*

Aurrez deskribaturiko jokaeren iradokizunekin batera, nerabe talde batekiko esku-hartzea zuzentzen duen helduak ondoren agertzen dena egin dezake fermutasuna eta hurbiltasun afektiboa uztartzen dituen jarrera batez:

- —Taldeko kideen artean entzute aktiboa hitzez aldarrikatu eta begirunerik gabekoa edo erasotzaile den eztabaida ekidin.
- —Hausnarketa eta arrazoiketa sustatu, jardueretan ateratzen diren gaien harira.
- —Taldeko kideen artean gerta daitezkeen gertaera negatiboak (zokoratzea, deskalifikazioa...) identifikatu eta modu eraikitzailean aztertu.
- —Eztabaida burutzeko taldeko kideen posizio zirkularra bultzatu, denek elkar ikus dezaten eta elkarri egoki entzun diezaioten.
- —Ohituraz modu espontaneoan esku hartzen ez duten nerabeen taldeko integrazioa sustatu, galderak eginez.
- —Aurrean ez dauden pertsonez hitz egitea ekidin.
- —Taldeko kideen artean behatutako jokaera gizartekoiak hitzez baloratu.
- —Taldekide guztien parte-hartze aktiboa sustatu.

## 2.3. **Taldearen garapen prozesua errazteko teknikak**

Programak erabiltzen dituen talde dinamikako teknikak ezberdinak dira eta ekintzaren nahiz eztabaidaren garapena bultzatzea dute helburu.

### 2.3.1. *Ekintzaren garapenerako talde dinamikako teknikak*

*Jokoa eta marrazkia*: Joko mota ezberdinak darabiltza programak, jardueraren garapena sustatzeko, hala nola, komunikazio jokoak, laguntza/lankidetzako jokoak eta dramatizazio bidez emozioak adierazteko jokoak. Jokoa eta marrazkia eduki pertsonal kontziente eta inkontzienteen (pentsamenduak, fantasiak, esperientziak...) adierazpena eragiten eta ahalbidetzen duten teknika proiektibo ludikoak dira.

*Eztabaida talde txikiak*: Eztabaida talde txikiak pertsona kopuru txiki batez (bost edo sei) osatuak daude; «aurrez aurre jarrita» gai bati buruzko ideiak trukatzen, arazo bat ebazten edo erabakiak hartzen dituzte eta ikuspuntu ezberdinen ekarpenez aberasten dira; hori guztia berezkotasunez, malgutasunez, partaidetzaz eta ekintza askatasunez betetako giro demokratiko batean. Eztabaida-talde txikietan idazkari bat aukeratzen da, debatean zehar partaidetzan oinarritutako modu demokratikoz ateratako ondorioak erregistra edo bil ditzan. Teknika hau taldeari modu zehatzean galdera bat edo gai bat formulatzean datza, epealdi labur batez azpitaldeetan eztabaida dezan. Epealdi horren ondoren, azpitalde bakoitzak txosten labur batean sintetizatu behar ditu ideiak, talde osoari komunikatzeko. Modu honetan, talde osoak ezagutzen ditu azpitalde bakoitzean atera diren ikuspuntu ezberdinak, eta horrek gaiari buruzko ondorioak ateratzea ahalbidetzen du. Talde handietan aplikatzeko oso teknika baliagarria da, kide guztien partaidetza aktibo eta demokratikoa bideratzen baitu eta iritzi nahiz ikuspegi ezberdinak kontuan hartzea ahalbidetzen, erabakiak denbora laburrean hartu ahal izateko. Dinamika honekin ideien alderaketa eta sintesi nahiz kontzentrazio gaitasuna bultzatzen dira, besteen aurrean hitz egiteko zailtasunak dituztenei laguntza ematen zaie, arduraren zentzua sustatzen da eta jarduera talde txikietan banatzen da, ondoren guztien onerako hedatu ahal izateko.

*Ideien zurrunbiloa*: Giro informala, estereotiporik gabea, baimen-emailea, arduragabea, adierazpen askatasun osoa duena, ideia originalen hausnarketan eta arazoen soluziobide alternatibo eraginkorren bilaketan irudimenaren gaitasuna zentsurarik gabe sustatuko duena sortzen saiatzen den talde teknika da ideien zurrunbiloa. Berrikuntzen, aurkikuntzen edo soluziobide berrien (gertaeren artean harreman berriak ezarri eta modu ezberdinean integratzeko gaitasun bezala ulertuak) iturburu den irudimen sortzailea garatu eta trebatzera zuzendua dago. Teknika hau oso baliagarria da edozein gairi buruzko ideien jariakortasuna eta berauen ondorengo ebaluazioa sustatzeko. Honako prozedura honen bidez egituratzen da: 1) lehenik, auzian dagoen arazoa edo gaia deskribatzen da; 2) gutxi gorabehera bostetik hamar bat mi-

nutura bitarteko denboraldi batez talde txikietan banatutako kideek arazoa ebazteko ideia kopuruak aurkezten dituzte, aurkezten diren ideiei buruzko inolako kritikarik egin gabe, eta talde bakoitzeko idazkariak idatzi egiten ditu ideia horiek; 3) ondoren, hamar minutuz ideiak eztabaidatu eta ebaluatu egiten dira, eta egokienak jotzen diren hirurak aukeratzen dira, eta 4) azkenik, talde handian, talde bakoitzaren hiru aukerak bildu, ebaluatu eta baliagarrienak eta egingarrienak izan daitezkeen hirurak aukeratzen dira.

*Esaldi osatugabeak*: programa honetan ukitzen diren gai ezberdinei buruz taldeko kideen ikuspuntua identifikatzea ahalbidetzen duen teknika proiektibo bat da. Analizatu nahi diren gaiei buruzko edukiak dituen osatu gabeko esaldi multzo bat burura lehenik datorrenaz bizkorki osatzean datza oinarrian teknika hau. Esaldiak banaka osatu ondoren, paper plegu handi batean idazten dituzte beren erantzunak taldeko kideek. Azkenik, esaldi bakoitzari emandako erantzunak talde handian komentatu eta haietaz hausnarketa egiten da.

*Kasuen azterketa*: Eztabaida gidatuan, egoera eta gertakarien azterketan, ideien azterketan eta elkartrukean talde bateko kideak entrenatzea ahalbidetzen du kasuen azterketak, arrazoiketaren malgutasuna garatzeko aukera emanez, eta arazo berarentzat soluziobide bakarra ez dagoela erakutsiz. Egoera erreal baten deskribapen xehatua eta exhaustiboa da «kasu» bat, analizatu eta eztabaidatu daitekeena eta ideien elkartrukea suspertzen duena. Planteaturiko egoerari taldekide bakoitzak bere ezagutzen, esperientzien eta motibazioen arabera soluziobide ezberdin bat proposatu ahal izatean datza teknika honen bereizgarrietako bat. Honela bada, lortu nahi den helburua kasua aztertzea da, taldeak bere ikuspuntuak emanez, bere ideiak eta iritziak trukatuz, beronen alderdi ezberdinak libreki analizatuz eta eztabaidatuz.

*Role-playing (Rolen jokoa)*: oso teknika hedatua da *role-playing* teknika. Bi pertsonak edo gehiagok kasuko rolen arabera bizitza errealeko egoera bat askatasunez eta berezkotasunez imitatuz egiten duten antzezpena da; egoera erreala eta ikusgarria bihur dadin eta horrela taldeak hobeto uler eta trata dezan egiten da horrela. Ondoren antzezpenaren eztabaidarako fase bat irekitzen da, dagozkion ondorioak ateratzeko. Teknika honen onuradunak ez dira rolak errepresentatzen dituztenak bakarrik, behatzaile-partaide bezala jokatzen duen talde osoa baizik, prozesuan murgildurik baitago, honek bere interesa eta partaidetza espontaneoa iratzartzen duelako eta garatzen ari den arazoan zentraturik mantentzen duelako arreta. Gatazka egoeren ezagupena eta ulerkuntza errazten duen teknika da. Antzerkiaren bidez antzeztua izateak behatzaileek bizipen komun bat esperimentatzea ahalbidetzen du, eta horrek arazoa zuzenean eta orokorrean ezagututa eztabaidatzea ahalbidetuko du gero.

### 2.3.2. *Eztabaida edo debatea sustatzeko eta arautzeko teknikak*

*Galderak eginez gidaturiko eztabaida*: jardueraren garapenean gertatuari buruzko hausnarketa suspertzeko eta elkarrizketa gidatzeko asmoz, galderak eginez gidaturiko eztabaidaren teknika erabiltzen da. Jarduera bakoitzerako

landutako fitxan haren helburuekin erlazionaturiko galdera multzo bat iradokitzen bada ere, jarduera bakoitza burutu ondorengo debatearen fasea irekia eta malgua da, eta taldeak egindako jardueran zehar ikusitakoaren arabera beste galdera batzuk egin daitezke. Eztabaida gidatuaren teknika honetan datza: gida edo galdegile bezala jokatzen duen heldu baten gidaritza eragile eta dinamikoaren pean talde batek egiten duen gai bati buruzko ideien eta informazioaren elkartruke informalean. Gelan debatea ongi erabiltzea ikaskuntzarako teknika ezin hobe bihur liteke. Helburu horrekin erabilita, arrazoiketa, ulerkuntza, hausnarketa, analisi kritikorako, komunikaziorako eta entzuteko gaitasunak eta tolerantzia susta ditzake. Aurreiritziak eta ideia prekontzebituak gainditzen eta nerabearen adimen arloa aberasten laguntzen du, norberarenetatik sarritan bereizten diren iritzi, ideia eta ikuspuntuen elkartrukearen bidez.

*Mikrofonoa*: Entzute aktiborako azturak bultzatuz talde barneko komunikazioaren arauketa sustatzea du helburu teknika honek. Debateetan adiskideen esku-hartzeak errespetatzen ez dituzten taldeekin bakarrik erabiltzeko teknika da; bulkadatsu samarrak izanik, elkarri ongi entzun gabe zenbait kidek batera hitz egiten duten taldeekin, alegia. Mikrofonoa edozein objektuk sinboliza dezake (errotuladorea, makila motza, kola tutua...) eta objektu horrek debate-gaiari buruz eramaileak dituen ideiak edo pentsamenduak adieraztea ahalbidetzen du. Bere iritziaren azalpena amaitu ondoren, eskua altxatuz hitza eskatu duen beste adiskide bati ematen dio mikrofonoa, eta horrela jarraian esku hartzeko txanda elkarri ematen diote, eta horrek erraztu egiten du entzute aktiboa talde barneko komunikazioan.

## 2.4. Saioen diseinua eta esku-hartzearen egituraketarako proposamenak

Esku-hartze saioen egituraketarako hiru proposamen ematen dira atal honetan. Lehenik, programaren gauzatze esperimentalean (proposamen esperimentala) planteaturiko 23 saioen egituraketa proposatzen da. Beha daitekeen bezala, hasierako diseinuan hiru jarduera planteatu ziren lehen hiru saioetako bakoitzean (izartxoz markatuak), denbora gutxiagoan egin zitezkeela pentsatu baitzen; hala ere, lehen saio hauek gauzatu ondoren, zera behatu zen: kalkulaturiko denborak laburragoak zirela taldeek lana burutzeko behar zituztenak baino; beraz, behaketa horren ondoren, bi esku-hartze ordutan, oro har, bi jarduera eta hauei zegozkien debateak egin zitezkeela kontsideratu zen. Bigarrenik, ikasturtean zehar programa astero aplikatzeko proposamena planteatzen da, bi orduko iraupeneko 33 saio eta itxiera saioa (urteko proposamena) burutuz. Hirugarrenik, bi ikasturtetan (DBHko 1. eta 2. mailetan) hamabostean behin esperientzia aplikatzeko beste proposamen bat iradokitzen da, eta ikasturte bakoitzerako bi orduko iraupeneko 17 esku-hartze saio antolatzen dira, itxiera saio (bi urterako proposamena) eta guzti. Sistematizazio hauen helburua zera da: nerabe talde batekin programa gauzatu behar

duen helduari saioak erraz antolatzeko aukera ematea. Hala ere, araubide orokor batzuk jarraituz, komenigarria gerta liteke helduak bere saioak eskuerara duen denboraren eta esperientzia burutzen ari den taldearen bereizgarrien arabera antolatzea. Egituraketarako iradokitako proposamenetan honako hau deskribatzen da:

—Garatu beharreko jarduerak eta haien segida.
—20-25 kideko talde batek jarduerak burutzeko gutxi gorabeherako denbora.
—Zein modulutan inskribatzen diren (A = Autoezagutza-Autokontzeptua; KM = Talde barneko Komunikazioa; S = Sentimenduen adierazpen eta ulerkuntza; L = Lankidetza; H = Hautemateak, estereotipoak eta aurreiritziak; D = Diskriminazioa eta etnozentrismoa; GE = Gatazken Ebazpena).
—Jarduera bakoitzerako taldearen egituraketa edo antolamendurako moduak (TH = Talde handia; TT = Talde txikia; BI = Bikotea; BA = Banakakoa).

Dagokion taldeari egokiturik saioak sistematizatzeko asmoz, esku-hartze saioak planifikatzeko har daitezkeen araubide orokor batzuk honako hauek izan daitezke:

—Ikasturtearen lehen zatiko lehen lau moduluetako, hots, lehen sei edo zazpi saioetako (autoezagutza-autokontzeptua, talde barneko komunikazioa, sentimenduen adierazpena eta ulerkuntza, laguntza-lankidetza) jardueren aukeraketa, azken hiru moduluetako jarduerak progresiboki sartuz (hautemateak-estereotipoak, diskriminazioa-etnozentrismoa, gatazken ebazpena).
—Modulu ezberdinetako jarduerak saio batean konbinatzea, aurrez adierazitako progresioarekin. Dena den, kasu batzuetan gai bakarreko saioak plantea daitezke, hots, jarduera biak modulu berari legozkiokeen saioak; adibidez, diskriminazioan ardazturiko saioak (ikus 26. eta 33. saioak) edo gatazken ebazpenean ardazturikoak (ikus 27. eta 29. saioak).
—Jarduera batzuk taldeari behin bakarrik planteatzen zaizkion bitartean (adibidez, autoezagutza-autokontzeptu moduluko jarduerak), besteak okasio gehiagotan proposa litezke, gai ezberdinak ukitzeko asmoz. Mota honetako jarduerak dira komunikazioa eta adostea, polarizazio elektrikoa, esaldi osatugabeak, ideia eta aurreiritziak, beste herrien irudiak, akordio eta desadostasunak...
—Saioen plangintzarako garrantzi handiko beste faktore bat aurretiko saioetan burutzen den taldearen behaketa sistematikoz lortutako informazioari dagokiona da. Behaketa hori funtsezkoa da taldearen egoera eta garapena aztertzeko, talde espezifikoaren egoerarekiko egokiagoak diren jardueren proposamena errazten baitu.

Proposamen esperimentala: saioen egituraketa:
bi orduko iraupeneko asteroko saio bat

| Saioaren zenbakia | Jarduerak | Denbora | Modulua | Talde antolamendua |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Programaren sarrerarako kontsigna<br>4. Topaketak<br>17. Kondaira<br>27. Hizki zopa<br>11. Polarizazio elektrikoa | 10'<br>30'<br>20'*<br>30'*<br>30'* | <br>A<br>KM<br>L<br>KM | <br>BA/TH<br>TH/BA/TH<br>TT/TH<br>TH |
| 2 | 10. Antartidarako bidaia<br>26. Objektuak lekutu<br>13. Inpaktua: guda | 60'<br>30'*<br>30'* | KM<br>L<br>KM | BA/TT/TH<br>BI/TH<br>TT/TH |
| 3 | 1. Aurkezpen zuhaitzak<br>9. Komunikazioa eta adostea: Zer egin daiteke ...teko/tzeko?<br>12. Abentura ilargian | 30'<br>60'*<br>30'* | A<br>KM<br>KM | BA/TH<br>TT/TH<br>BA/TT/TH |
| 4 | 7. Fokua<br>23. Esaldi osatugabeak | 60'<br>60' | A<br>S | TT/TH<br>BA/TH |
| 5 | 2. Ispiluan begirada bat<br>31. Lankidetza Tangram-a | 60'<br>60' | A<br>L | BA/TH<br>TT/TH |
| 6 | 33. Aduana zaintzailea<br>6. Bizitzako rolak eta paperak | 60'<br>60' | L<br>A | TT/TH<br>TH |
| 7 | 18. Sentimendu sorta | 2 or. | S | TH/TT/TH |
| 8 | 11. Polarizazio elektrikoa<br>28. Horma-irudiak | 60'<br>60' | KM<br>L | TH<br>TT/TH |
| 9 | 22. Ereduak<br>29. Gidoia | 60'<br>1 or. 30' | S<br>L | TT/TH<br>TT/TH |
| 10 | 32. Bahiketaren misterioa<br>15. Elkarrizketak | 60'<br>60' | L<br>KM | TT/TH<br>BI/TH |
| 11 | 36. Hautemate grafikoak<br>20. Beldurra | 45'<br>60' | H<br>S | BA/TH<br>TH/BA/TH |
| 12 | 43. Eraikuntza enpresa<br>23. Osatu gabeko esaldiak | 60'<br>60' | H<br>S | BA/TT/TH<br>BA/TH |
| 13 | 21. Haserrea<br>14. Eragina: dibortzioa | 60'<br>60' | H<br>KM | TH/BA/TH<br>TT/TH |

Proposamen esperimentala: saioen egituraketa
*(jarraipena)*

| Saioaren zenbakia | Jarduerak | Denbora | Modulua | Talde antolamendua |
|---|---|---|---|---|
| 14 | 37. Informazioa eta klixeak<br>57. Taldeko borrokaldi bat | 60'<br>60' | H<br>GE | BA/TH<br>BA/TT/TH |
| 15 | 16. Akordioak eta desadostasunak<br>38. Ideiak eta aurreiritziak | 60'<br>60' | KM<br>H | TT/TH<br>BA/TH |
| 16 | 39. Gertaerak eta iritziak<br>54. Bazterketa | 30'<br>1 or. 30' | H<br>GE | BA/TH<br>TT/TH |
| 17 | 34. Argazkiari izenburua jarri<br>52. Lapurreta | 30'<br>1 or. 30' | L<br>GE | TT/TH<br>TT/TH |
| 18 | 49. Baieztapenak eta gertaerak<br>41. Beste herrien irudiak | 30'<br>90' | D<br>H | BA/TH<br>BA/TH |
| 19 | 44. Arrazismoaz hitz egiten<br>46. Diskriminazio egoerak | 60'<br>60' | D<br>D | TT/TH<br>BA/TH |
| 20 | 51. Argazki gatazkatsuak<br>40. Kazetaritza kritikoa | 60'<br>60' | D<br>H | TT/TH<br>BA/TH |
| 21 | 53. Erasoa<br>60. Astoak | 1 or. 30'<br>30' | GE<br>GE | TT/TH<br>BA/TH |
| 22 | 47. Neskak eta mutilak<br>48. Nazioarteko jatetxea | 60'<br>60' | D<br>D | TT/TH<br>TT/TH |
| 23 | 35. Gazteluko mamua<br>ITXIERA: nerabeentzako programaren ebaluaziorako galdekizuna eta burututako esperientziari buruzko debatea | 30'<br>60-90' | L | TT/TH |

Urteko proposamena: saioen egituraketa:
Esperientzia ikasturte batean zehar garatzeko diseinua:
bi orduko iraupena duen asteroko saioa

| Saioaren zenbakia | Jarduerak | Denbora | Modulua | Talde antolamendua |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Sarrera<br>4. Topaketak<br>11. Polarizazio elektrikoa | 15'<br>45'<br>60' | <br>A<br>KM | <br>BA/TH<br>TH |
| 2 | 10. Antartidarako bidaia<br>26. Objektuak lekutzea | 60'<br>60' | KM<br>L | BA/TT/TH<br>BI/TH |
| 3 | 13. Inpaktua: guda<br>27. Hizki zopa | 60'<br>60' | KM<br>L | TT/TH<br>TT/TH |
| 4 | 12. Aurkezpen zuhaitzak<br>9. Komunikazioa eta adostasuna: Zer egin daiteke ...teko/tzeko? | 30'<br>1 or. 30' | A<br>KM | BA/TH<br>TT/TH |
| 5 | 7. Fokua<br>23. Osatu gabeko esaldiak | 60'<br>60' | A<br>S | TT/TH<br>BA/TH |
| 6 | 18. Sentimendu sorta | 2 or. | S | TH/TT/TH |
| 7 | 33. Aduana zaintzailea<br>6. Bizitzako rolak edo paperak | 60'<br>60' | L<br>A | TT/TH<br>TH |
| 8 | 5. Karikatura<br>12. Abentura ilargian | 45'<br>15' | A<br>KM | BA/TH<br>BA/TT/TH |
| 9 | 2. Begirada bat ispiluan<br>31. Lankidetzako Tangram-a | 60'<br>60' | A<br>L | BA/TH<br>TT/TH |
| 10 | 11. Polarizazio elektrikoa<br>28. Horma-irudiak | 60'<br>60' | KM<br>L | TH<br>TT/TH |
| 11 | 35. Gazteluko mamua<br>29. Gidoia | 30'<br>1 or. 30' | L<br>L | TT/TH<br>TT/TH |
| 12 | 32. Bahiketaren misterioa<br>15. Elkarrizketak | 60'<br>60' | L<br>KM | TT/TH<br>BI/TH |
| 13 | 36. Hautemate grafikoak<br>20. Beldurra | 45'<br>60' | H<br>S | BA/TH<br>TH/BA/TH |
| 14 | 42. Hitzen elkarketa<br>56. Epaimahai herrikoia | 30'<br>1 or. 30' | H<br>GE | BA/TH<br>TT/TH |
| 15 | 41. Beste herrietako irudiak<br>49. Baieztapenak eta gertakariak | 90'<br>30' | H<br>D | BA/TH<br>BA/TH |

Urteko proposamena: saioen egituraketa
*(jarraipena)*

| Saioaren zenbakia | Jarduerak | Denbora | Modulua | Talde antolamendua |
|---|---|---|---|---|
| 16 | 43. Eraikuntza enpresa<br>23. Osatu gabeko esaldiak | 60'<br>60' | H<br>S | BA/TT/TH<br>BA/TH |
| 17 | 37. Informazioa eta klixeak<br>30. Presoa askatu | 60'<br>60' | H<br>L | BA/TH<br>TH |
| 18 | 17. Kondaira<br>9. Komunikazioa eta adostasuna: Zer egin daiteke ...teko/tzeko? | 30'<br>1 or. 30' | KM<br>KM | TH/BA/TH<br>TT/TH |
| 19 | 21. Haserrea<br>14. Inpaktua: dibortzioa | 60'<br>60' | S<br>KM | TH/BA/TH<br>TT/TH |
| 20 | 16. Akordio eta desadostasunak<br>38. Ideiak eta aurreiritziak | 60'<br>60' | KM<br>H | TT/TH<br>BA/TH |
| 21 | 39. Gertakariak eta iritziak<br>54. Bazterketa | 30'<br>1 or. 30' | H<br>GE | BA/TH<br>TT/TH |
| 22 | 3. Autobiografia<br>25. Arazo diren egoerak | 30'<br>90' | A<br>S | BA/TT<br>BA/TH |
| 23 | 34. Argazkiari izenburua jarri<br>52. Lapurreta | 30'<br>1 or. 30' | L<br>GE | TT/TH<br>TT/TH |
| 24 | 24. Irudiak<br>22. Ereduak | 60'<br>60' | A<br>S | BA/TH<br>TT/TH |
| 25 | 41. Beste herrien irudiak<br>19. Sentimenduen poltsa | 60'<br>60' | H<br>S | BA/TH<br>TH |
| 26 | 44. Arrazismoaz hitz egiten<br>46. Diskriminazio egoerak | 60'<br>60' | D<br>D | TT/TH<br>BA/TH |
| 27 | 58. Aurkakoak eta negoziaketa<br>55. Erredakzio kontseilua | 60'<br>60' | GE<br>GE | TT/TH<br>TT/TH |
| 28 | 51. Argazki gatazkatsuak<br>40. Kazetaritza kritikoa | 60'<br>60' | D<br>H | TT/TH<br>TT/TH |
| 29 | 53. Erasoa<br>60. Astoak | 1 or. 30'<br>30' | GE<br>GE | TT/TH<br>BA/TH |
| 30 | 45. Atzerritarra<br>59. Fantasia-Errealitatea | 1 or. 30'<br>30' | D<br>GE | TH/TT/TH<br>BA/TH |

Urteko proposamena: saioen egituraketa
*(jarraipena)*

| Saioaren zenbakia | Jarduerak | Denbora | Modulua | Talde antolamendua |
|---|---|---|---|---|
| 31 | 50. Bertakoak eta atzerritarrak<br>57. Taldeko borroka bat | 60'<br>60' | D<br>GE | BA/TT/TH<br>BA/TT/TH |
| 32. | 8. Ispilu magikoa<br>11. Polarizazio elektrikoa | 45'<br>90' | A<br>KM | TT/TH<br>TH |
| 33 | 47. Neskak eta mutilak<br>48. Nazioarteko jatetxea | 60<br>60' | D<br>D | TT/TH<br>TT/TH |
| 34 | ITXIERA: nerabeentzako programaren ebaluaziorako galdekizuna eta burututako esperientziari buruzko debatea | 60-90' | | |

Bi urterako proposamena: saioen egituraketa (I):
Bi ikasturtetan zehar esperientzia garatzeko diseinua:
DBHko lehen ikasturtea

| Saioaren zenbakia | Jarduerak | Denbora | Modulua | Talde antolamendua |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Sarrera<br>4. Topaketak<br>11. Polarizazio elektrikoa | 15'<br>45'<br>60' | <br>A<br>KM | <br>BA/TH<br>TH |
| 2 | 10. Antartidarako bidaia<br>26. Objektuak lekutzea | 60<br>60' | KM<br>L | BA/TT/TH<br>BI/TH |
| 3 | 13. Inpaktua: guda<br>27. Hizki zopa | 60'<br>60' | KM<br>L | TT/TH<br>TT/TH |
| 4 | 1. Aurkezpen zuhaitzak<br>9. Komunikazioa eta adostasuna: Zer egin daiteke ...teko/tzeko? | 30'<br>1 or. 30' | A<br>KM | BA/TH<br>TT/TH |
| 5 | 7. Fokua<br>23. Osatu gabeko esaldiak | 60'<br>60' | A<br>S | TT/TH<br>BA/TH |
| 6 | 18. Sentimendu sorta | 2 or. | S | TH/TT/TH |
| 7 | 33. Aduana zaintzailea<br>6. Bizitzako rolak eta paperak | 60'<br>60' | KM<br>A | TT/TH<br>TH |

Bi urterako proposamena: saioen egituraketa (I)
*(jarraipena)*

| Saioaren zenbakia | Jarduerak | Denbora | Modulua | Talde antolamendua |
|---|---|---|---|---|
| 8 | 2. Ispiluan begirada bat<br>31. Lankidetzazko Tangram-a | 60'<br>60' | A | BA/TH<br>L TT/TH |
| 9 | 11. Polarizazio elektrikoa<br>28. Horma-irudiak | 60'<br>60' | KM<br>L | TH<br>TT/TH |
| 10 | 35. Gazteluko mamua<br>29. Gidoia | 30'<br>1 or. 30' | L<br>L | TT/TH<br>TT/TH |
| 11 | 36. Hautemate grafikoak<br>20. Beldurra | 45'<br>60' | H<br>S | BA/TH<br>TH/BA/TH |
| 12 | 41. Beste herrietako irudiak<br>49. Baieztapenak eta gertaerak | 1 or. 30'<br>30' | H<br>D | BA/TH<br>BA/TH |
| 13 | 16. Akordioak eta desadostasunak<br>38. Ideiak eta aurreiritziak | 60'<br>60' | KM<br>H | TT/TH<br>BA/TH |
| 14 | 39. Gertaerak eta iritziak<br>54. Bazterketa | 30'<br>1 or. 30' | H<br>GE | BA/TH<br>TT/TH |
| 15 | 44. Arrazismoaz hitz egiten<br>46. Diskriminazio egoerak | 60'<br>60' | D<br>D | TT/TH<br>BA/TH |
| 16 | 53. Erasoa<br>60. Astoak | 1 or. 30'<br>30' | GE<br>GE | TT/TH<br>BA/TH |
| 17 | 47. Neskak eta mutilak<br>48. Nazioarteko jatetxea | 60'<br>60' | D<br>D | TT/TH<br>TT/TH |
| 18 | ITXIERA: nerabeentzako programaren ebaluaziorako galdekizuna eta burututako esperientziari buruzko debatea | 60-90' | | |

Bi urterako proposamena: saioen egituraketa (II):
Bi ikasturtetan zehar esperientzia garatzeko diseinua:
DBHko bigarren ikasturtea

| Saioaren zenbakia | Jarduerak | Denbora | Modulua | Talde antolamendua |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 5. Karikatura<br>12. Abentura ilargian | 45'<br>1 or. 15' | A<br>KM | BA/TH<br>BA/TT/TH |
| 2 | 32. Bahiketaren misterioa<br>12. Elkarrizketak | 60'<br>60' | L<br>KM | TT/TH<br>BI/TH |
| 3 | 37. Informazioa eta klixeak<br>30. Presoa askatu | 60'<br>60' | H<br>L | BA/TH<br>TH |
| 4 | 8. Ispilu magikoa<br>11. Polarizazio elektrikoa | 45'<br>90' | A<br>KM | TT/TH<br>TH |
| 5 | 42. Hitz elkarketa<br>56. Epaimahai herrikoa | 30'<br>1 or. 30' | H<br>GE | BA/TH<br>TT/TH |
| 6 | 43. Eraikuntza enpresa<br>23. Osatu gabeko esaldiak | 60'<br>60' | H<br>S | BA/TT/TH<br>BA/TH |
| 7 | 17. Kondaira<br>9. Komunikazioa eta adostasuna: Zer egin daiteke ...teko/tzeko? | 30'<br>1 or. 30' | KM<br>KM | TH/BA/TH<br>TT/TH |
| 8 | 21. Haserrea<br>14. Inpaktua: dibortzioa | 60'<br>60' | S<br>KM | TH/BA/TH<br>TT/TH |
| 9 | 16. Akordioak eta desadostasunak<br>38. Ideiak eta aurreiritziak | 60'<br>60' | KM<br>H | TT/TH<br>BA/TH |
| 10 | 3. Autobiografia<br>25. Arazo diren egoerak | 30'<br>90' | A<br>S | BA/TT<br>BA/TT |
| 11 | 34. Argazkiaren izenburua jarri<br>52. Lapurreta | 30'<br>1 or. 30' | L<br>GE | TT/TH<br>TT/TH |
| 12 | 24. Irudiak<br>22. Ereduak | 60'<br>60' | A<br>S | BA/TH<br>TT/TH |
| 13 | 41. Beste herrien irudiak<br>19. Sentimenduen poltsa | 60'<br>60' | H<br>S | BA/TH<br>TH |
| 14 | 58. Aurkakoak eta negoziazioa<br>55. Erredakzio kontseilua | 60'<br>60' | GE<br>GE | TT/TH<br>TT/TH |
| 15 | 51. Argazki gatazkatsuak<br>40. Kazetaritza kritikoa | 60'<br>60' | D<br>H | TT/TH<br>TT/TH |

Bi urterako proposamena: saioen egituraketa (II)
*(jarraipena)*

| Saioaren zenbakia | Jarduerak | Denbora | Modulua | Talde antolamendua |
|---|---|---|---|---|
| 16 | 45. Atzerritarra<br>59. Fantasia-Errealitatea | 1 or. 30'<br>30' | D<br>GE | TH/TT/TH<br>BA/TH |
| 17 | 50. Bertakoak eta atzerritarrak<br>57. Taldeko borroka bat | 60'<br>60' | D<br>GE | BA/TT/TH<br>BA/TT/TH |
| 18 | ITXIERA: nerabeentzako programaren ebaluaziorako galdekizuna eta burututako esperientziari buruzko debatea | 60-90' | | |

## 3. PROGRAMAREN MODULUAK ETA JARDUEREN AURKIBIDEA

Zazpi modulu edo esku-hartze ardatzetan banaturiko 60 jarduerek osatzen dute programa; modulu bakoitzak zortzi hamar bat jarduera ditu. Programaren moduluak eta biltzen dituen jardueren aurkibidea 2.2. laukian erakusten dira.

**2. laukia**

Programaren moduluak eta jardueren aurkibidea

| Moduluak | Jarduerak |
|---|---|
| **I. Autoezagutza-Autokontzeptua** | 1. Aurkezpen zuhaitzak.<br>2. Ispiluan begirada bat.<br>3. Autobiografia.<br>4. Topaketak.<br>5. Karikatura.<br>6. Bizitzako rolak edo paperak.<br>7. Fokua.<br>8. Ispilu magikoa. |

**2. laukia** *(jarraipena)*

| Moduluak | Jarduerak |
|---|---|
| **II. Talde barneko komunikazioa** | 9. Komunikazioa eta adostasuna: Zer egin daiteke ...teko/tzeko?<br>10. Antartidarako bidaia.<br>11. Polarizazio elektrikoa.<br>12. Abentura ilargian.<br>13. Inpaktua: guda.<br>14. Inpaktua: dibortzioa.<br>15. Elkarrizketak.<br>16. Akordioak eta desadostasunak.<br>17. Kondaira. |
| **III. Sentimenduen adierazpena eta ulerkuntza** | 18. Sentimendu sorta.<br>19. Sentimenduen poltsa.<br>20. Beldurra.<br>21. Haserrea.<br>22. Ereduak.<br>23. Osatu gabeko esaldiak.<br>24. Irudiak.<br>25. Arazo diren egoerak. |
| **IV. Laguntza eta lankidetzako harremanak** | 26. Objektuak lekutzea.<br>27. Hizki zopa.<br>28. Horma-irudiak.<br>29. Gidoia.<br>30. Presoa askatu.<br>31. Lankidetzazko Tangram-a.<br>32. Bahiketaren misterioa.<br>33. Aduana zaintzailea.<br>34. Argazkiaren izenburua jarri.<br>35. Gazteluko mamua. |
| **V. Hautemateak eta estereotipoak** | 36. Hautemate grafikoak.<br>37. Informazioa eta klixeak.<br>38. Ideiak eta aurreiritziak.<br>39. Gertaerak eta iritziak.<br>40. Kazetaritza kritikoa.<br>41. Beste herrien irudiak.<br>42. Hitz elkarketa.<br>43. Eraikuntza enpresa. |

**2. laukia** *(jarraipena)*

| Moduluak | Jarduerak |
|---|---|
| **VI. Diskriminazioa eta etnozentris-moa** | 44. Arrazismoaz hitz egiten.<br>45. Atzerritarra.<br>46. Diskriminazio egoerak.<br>47. Neskak eta mutilak.<br>48. Nazioarteko jatetxea.<br>49. Baieztapenak eta gertaerak.<br>50. Bertakoak eta atzerritarrak.<br>51. Argazki gatazkatsuak. |
| **VII. Gatazken ebazpena** | 52. Lapurreta.<br>53. Erasoa.<br>54. Bazterketa.<br>55. Erredakzio kontseilua.<br>56. Epaimahai herrikoia.<br>57. Taldeko borroka bat.<br>58. Aurkakoak eta negoziazioa.<br>59. Fantasia-errealitatea.<br>60. Astoak. |

## 4. PROGRAMAREN SARRERAKO KONTSIGNA

Nerabe taldearekin programa aplikatzen hasi aurretik, garrantzitsua da nerabeei programaren helburuak eta zer nolako esperientzia egin behar duten argitzea. Helburu honekin egituratu da «Programaren sarrerako kontsigna», dauzkan edukien bidez gauzatu behar den esku-hartzea zedarrituko duena. Esku-hartze programaren helburuei eta jasotzen dituen jarduera motei buruzko azalpen orokor batean datza kontsigna hau. Era berean, denbora banaketa (programa burutuko den asteko eguna eta ordua) zedarritzen du eta esperientzia honetan esku hartuko duten irudi helduak (irakaslea edo psikologoa eta lankidea) identifikatzen ditu. Programa gauzatu behar duen helduak bere kontsigna propioa landu badezake ere, esku-hartze programaren aplikazio esperimentalerako erabili den sarrerako kontsigna aurkezten da ondoren.

## PROGRAMAREN SARRERAKO KONTSIGNA

«Ikasturte honetan zehar saio batzuk egingo ditugu eta etikarekin, pertsonarteko harremanekin eta giza eskubideekin zerikusia duten gai batzuk ukituko ditugu berauetan. Astean behin gela honetara etorriko gara eta bi orduz jarduera multzo bat egingo dugu, helburu hauekin:

— Geure burua eta besteak hobeto ezagutzen lagundu.
— Taldean komunikatzen ikasi, besteei entzunez, norberarenetik ezberdinak diren ikuspegiak errespetatuz eta akordiotara heltzen saiatuz.
— Giza komunikazioan gerta daitezkeen zailtasun eta arazoak esperimentatu eta analizatu.
— Elkarri laguntzen, konpartitzen eta besteekin lankidetzan jarduten ikasi.
— Errealitateari buruzko gure hautemateak ezagutu, besteen hautemateekin kontrastatuz.
— Partaide ez gaituzten beste taldeekiko (beltzak, ijitoak, marokoarrak, atzerritarrak, emakumeak/gizonak...) jarrera etnozentriko eta arrazistak ezagutu.
— Diskriminazioaz hausnartu, diskriminazio jarrera eta forma ezberdinak analizatuz.
— Sentimenduak identifikatu, haien zergati eta ondorenak analizatu, sentimendu negatiboen (beldurra, amorrua, inbidia...) ebazpen moduak bilatu eta sentimendu bariatuak adierazi.
— Indarkeriaren adierazpen motak, zergatiak, ondorenak eta kontrol mekanismoak argitu.
— Gizarte harremanetan gatazka egoerak (gatazka moralak, erasoak, bazterketa eta diskriminazioa, guda, gosea, dibortzioa...) analizatu, eta haien ebazpenerako estrategiei buruz hausnartu.

Burutuko ditugun jardueretan aipatu berri ditudan gaiei buruzko debateak egingo ditugu. Esperientzia interesgarri irudituko zaizuela espero dugu, eta ikasturtea amaitzean hari buruzko zuen iritzia eskatuko dizuegu. Esperientzia honetan X-ek (behatzaileak) lagunduko digu, burutuko ditugun jardueretan taldeak ateratako ondorioei buruzko apunte batzuk hartuz».

## 5. PROGRAMAKO JARDUEREN DESKRIBAPENA

### I. MODULUA
### Autoezagutza-Autokontzeptua

### 1. AURKEZPEN ZUHAITZAK

***Helburuak:***

— Norbere buruaren kontzientzia hartu: norberaren ezagutza gehitu.
— Taldeko kideen ezagutza zabaldu.

***Jardueraren deskribapena:***

Enbalatzeko paper plegu handi baten aurrean kokatzen da taldea eta haren gainean zuhaitz batzuk marrazten dituzte, adar ugarirekin. Taldekideak hainbat adar marraztu behar dira gutxienez. Beren aurkezpen txartela egiteko kartoi mehe pusketa bat jasotzen dute partaideek. Txartel horretan beren izena jartzen dute, gustatzen zaien zerbait errepresentatzen duen marrazkia eta hitzezko deskribapen bat (marrazkiari informazioren bat eransten dion esaldi bat) egiten dute. Ondoren, bukatzen doazenean, paper pleguan marrazturiko aurkezpen zuhaitzen adarretako batean beren txartela itsastera joaten dira. Azkenik, txartel guztiak zintzilik daudenean, beren adiskideen txartelak behatzeko tarte bat hartzen dute taldeko kideek. Besteen txartelak irakurri behar dituzte denek.

Oharrak:

— Irakaslea: Jarduera egiten ari diren bitartean elkarri behatzea ekidin. Erraz irakurtzeko moduan itsatsi txartelak. Taldekideak aspalditik ezagutzen badira, inplikazio emozional handiagoa eskatzen duten kontsignak erabil daitezke; adibidez, zure lagunak ustekabean harrapa itzazu eta ez dakiten zerbaiti buruzko informazioa emaiezu, edo zure oroitzapenik onena edo hunkitu zintuen esperientzia bat... marraz ezazu.
— Behatzailea: Aurkezpen txartelak jaso, ondorengo azterketarako. Jarduera (txartela marraztu eta besteen txartelak behatu) egiten duten bitartean gertatzen den talde dinamika eta debatean esandakoak (egindako galderak eta taldeak emandako erantzunak) egunkarian idatzi.

***Eztabaida:***

Zuhaitzen aurrean planteatzen da, aurkezpen txartelen behaketarako denboraren ondoren. Ariketa honek lagundu al dizue adiskideak hobeto ezagutzen? Adiskideekiko kidetasunak (zuen gustukoak diren jardueren antzekoak) aurkitu al dituzue? Zuen gustukoetatik ezberdinak diren beste jarduera atsegingarri eta gozagarriak behatu al dituzue? Oro har, zein jarduera dira zuentzat atsegingarrienak?

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 30' |
|---|---|
| Enbalatzeko paperaren metro batzuk.<br>Kolore ezberdinetako kartoi meheak.<br>Zeloa. Margoak. Errotuladoreak. | ***Talde egituraketa:*** BA-TH |

## 2. ISPILUAN BEGIRADA BAT

***Helburuak:***

— Norberari buruzko kontzientzia hartu. Norberaren ezagutza gehitu.
— Norberaren hautemateez eta hautemate horien jatorriaz hausnartu.
— Autoirudiak eta autopertzepzioak jokaeran duten eragina aztertu.
— Autokontzeptu negatiboaren aldaketarako estrategiak ikasi.

***Jardueraren deskribapena:***

52 izenlagunen (26 positibo eta 26 negatibo) zerrenda bat eta deskribapenak jasotzeko orri bat (ikus ereduak) ematen zaizkio partaide bakoitzari. Lehenik, partaide bakoitzak bere amak nola ikusten duen deskribatzen du, bere amak bera definitzeko erabiliko lituzkeela uste duen izenlagunak zerrendatik aukeratuz. Izenlagunak irakurtzen diren bitartean, aurkezten zaion zerrendatik aukeratutakoak idazten dira deskribapenak jasotzeko orrian. Bigarrenik, aurreko erantzunak estaliz, bere aitak bera deskribatzeko erabiliko lituzkeen izenlagunak aukeratzen ditu. Hirugarrenik, gauza bera eginez, hots, aurreko erantzunak estaliz, lagun batek edo lagunek bera deskribatzeko erabiliko lituzketen izenlagunak aukeratzen ditu, eta, azkenik, berak bere burua nola ikusten duen.

Deskribapenen bilketarako orria betetzean, bere erantzunak behatzen ditu, banabanaka aztertuz: (1) berari buruz bere amak, aitak, lagun batek eta berak duten kontzeptu positiboa edo negatiboa (izenlagun positiboen eta negatiboen kopurua ebaluazio bakoitzean); (2) zein pertsonaren ikusmoldeak duen berak bere burua ikusteko moduaren antzik handiena.

Oharrak:

— Irakaslea: Debate fasean aukeratutako izenlagunen erakusketa publikoak borondatezkoa behar du izan, helburu nagusia norberari buruzko hausnarketa baita.
— Behatzailea: Erantzun orriak jaso, ondoren azterketa egiteko. Debate faseko hizketaldiak egunkarian idatzi.

***Eztabaida:***

Zeuon buruak hobeto ezagutzeko lagungarria gertatu al zaizue ariketa hau?

Espero dut denok egina izango dutela norberak bere buruaz duen irudiari buruzko hausnarketa, bai eta besteek norberari buruz dutenaren inguruko hausnarketa ere. Antzekoak dira ala oso ezberdinak zeuon buruaz duzuen irudia eta besteek zuei buruz dutela pentsatzen duzuena?

Nondik datoz geure buruaz ditugun ideiak? Nola osatzen dugu geure buruaz dugun irudia?

Geure buruaz ditugun ideiek geure jokaeretan eta gertatzen zaizkigun gauzetan eragina badutela uste al duzue? Adibideren bat bururatzen al zaigu? Geure buruaz dugun irudia alda al dezakegu? Nola?

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60' |
|---|---|
| Partaide bakoitzarentzat, izenlagun zerrenda bat eta deskribapenen bilketarako orri bat.<br>Arkatz bat eta borragoma bat. | ***Talde egituraketa***: BA-TH |

## 2. Ispiluan begirada bat: izenlagunen zerrenda

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ausarta | Gaiztoa | Eskuzabala | Zerbitzaria |
| Esan txarrekoa | Fidakorra | Gordina | Ezkorra |
| Haserretua | Lagunkoia | Ondradua | Txukuna |
| Egiatia | Esanekoa | Baikorra | Ahula |
| Azkarra | Lotsagabea | Berekoia | Ona |
| Laguntzailea | Geldoa | Ez-herrikoia | Argia |
| Segurantza gabea | Mesfidatia | Heziketa onekoa | Erasokorra |
| Ergela | Arlotea | Koldarra | Adimentsua |
| Herrikoia | Goibela | Zoritxarrekoa | Zuhurra |
| Indartsua | Independentea | Apetatsua | Zorionekoa |
| Sortzailea | Menpekoa | Bizkorra | Makala |
| Alaia | Menperatzailea | Heziketa txarrekoa | Traketsa |
| Maitekorra | Libertitua | Ez-solidarioa | Tentela |

Erantzun orria. Begirada bat ispilura.
Nola ikusten naute?

| **Amak** | **Aitak** | **Lagunak** | **Neure buruak** |
|---|---|---|---|
| | | | |

## 3. AUTOBIOGRAFIA

***Helburuak:***

— Norberaren ezagutza gehitu autodeskribapenaren bidez.
— Besteen ezagutza zabaldu.

***Jardueraren deskribapena:***

5-10 minutuz partaide bakoitzak bere autobiografia egiten du, bere bizitzako datu esanguratsuak orrialde batean idatziz (deskribapen irekia: neba-arrebak, atsegin edo desatsegin dituzten gauzak, bizi izan dituzten esperientziak, dituzten trebetasunak...). Autodeskribapenaren gehienezko luzerak hamar lerrotakoa izan behar du. Egileak autobiografia idatzi eta izenpetu ondoren, sei edo zazpi kidetako taldeak antolatzen dira, eta talde bakoitzak aldi berean burutzen du jarduera. Idazkari rola duen taldeko kide batek autobiografiak biltzen ditu eta ozenki irakurtzen ditu txandaka. Taldeko besteek zein taldekiderena den asmatu behar dute.

Oharra:

— Behatzailea: Partaide bakoitzaren autobiografiak jaso, ondorengo azterketarako. Eztabaida garaiko hizketaldiak idatzi.

***Eztabaida:***

Ariketa honek lagundu al dizue zeuon buruak eta zuen lagunak hobeto ezagutzen?

Zaila gertatzen al zitzaizuen autobiografien egileak aurkitzea?...

| | |
|---|---|
| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 30'. |
| Folioak. Boligrafoak. | ***Talde egituraketa:*** BA-TT. |

## 4. TOPAKETAK

***Helburuak:***

— Norberaren ezagutza eta besteen ezagutza gehitu.
— Planteatzen diren kontsignekin zerikusia duten eta atsegina edo desatsegina sortzen duten jokaera ezberdinei buruz hausnartu.
— Autokontzeptua hobetu (aldaera).

***Jardueraren deskribapena:***

Folio erdi bat ematen zaio partaide bakoitzari eta bost minutuz hau idatzi behar du:

— Goiko ezkerreko ertzean: Zoriontsu egiten zaituen gauza bat.
— Goiko eskuineko ertzean: Zure zaletasun faboritoa.
— Beheko ezkerreko angeluan: Zer gustatzen zaizu gehien pertsonengan aurkitzea.
— Beheko eskuineko angeluan: une honetan maitagarri bati eskatuko zeniokeen desira.

Ondoren, jokoaren zuzendariak papertxoak jaso eta partaideen artean banatzen ditu. Jokalari bakoitzak (berea izan behar ez duen) papertxoa hartzen du, gelan zehar tokiz aldatzen da eta bere adiskideei galdezka hasten da, papertxoa idatzi duen adiskidea aurkitu bitartean. Denak batera lekualdatzen dira gelan zehar, galderak eginez eta galderei erantzunez. Adiskidea identifikatu ostean, haren izena jartzen dute orriaren erdian.

Oharrak:

— Irakaslea: Jokoa behin baino gehiagotan egiteko beste galdera posibleak: Zer egiten duzu igande arratsaldean, duela gutxi gertatu zaizun gauza on bat, interesgarria iruditzen zaizun pertsona ospetsu bat, telebistako zure programa faboritoa, ahal izanez gero zer animali bihurtuko zinateke, lau urte zenituenean bizi zinen tokia, zoritxarreko egiten zaituen gauza bat, zure ustez zer gauza egiten dituzu ongi, ahal izanez gero zer aldatuko zenuke zeuregan... (ikus adibidea 3. atalean, «Jardueraren ekoizpenak» epigrafean).
— Behatzailea: Partaide bakoitzaren txartelak jaso, ondorengo azterketarako. Debatean esandakoak idatzi.

Aldaera:

— Autoestimua hobetzeko topaketak: folioaren koadrante bakoitzean zerbait positiboa jarri: bere nortasunaz, bere itxura fisikoaz, besteekin harremanak izateko moduaz, eguneroko lanak egiteko moduaz.

***Eztabaida:***

Orokorrean, zer motatako gauzek egiten gaituzte zoriontsu? Zeintzuk dira gure zaletasun faboritoak? Zeintzuk dira pertsonengan atsegingarrien gertatzen zaizkigun ezaugarriak? Zein desira eskatzen ditugu? Nolakoak dira desira hauek? Ariketa honek lagundu al dizue zuen lagunak hobeto ezagutzen? Beste galdera batzuk, ateratzen diren gaien arabera.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 45'. |
|---|---|
| Folioak. Boligrafoak. | ***Talde egituraketa:*** BA-TH. |

## 5. KARIKATURA

***Helburuak:***

— Autoirudiaz hausnartu: ezaugarri fisiko nabarmenak.
— Norberari buruzko umore zentzua suspertu.

***Jardueraren deskribapena:***

Partaide bakoitzak folio batean idazten du bere izena, bere buruaz karikatura bat egiten du eta goitizen bat eransten dio. Lehenik «karikatura» kontzeptua definitu behar dugu: ezaugarri fisiko nabarmenen azterketa eta irudi komiko bat lortzeko egiten den berorien exajerazioa. Argibideetan azpimarratu egin behar da karikatura ongi egiteko behar beste denbora erabiltzearen ideia. Arkatzez marraztu ondoren, ingerada errotuladorez marka eta margo dezakete. Ondoren, karikatura guztiak enbalatzeko paper plegu handi baten gainean erakusten dituzte, eta denek elkarrekin behatzen dituzte. Behaketa fasearen amaieran, bizienak gertatu diren edo hobekien eginak dauden hirurak aukeratzen ditu taldeak. Ahal izanez gero, adostasunez egin behar dute aukeraketa, eta ezinezkoa balitz programaren hasierako fase honetan, hiru onenak aukeratu beharko lirateke gehiengoz.

Oharrak:

— Behatzailea: Ondorengo azterketarako ekoizpenak jaso. Karikaturak behatzen dituzten bitartean eta eztabaida garaian egindako iruzkinak idatzi.
— Ikus egindako karikaturen adibideak.

Aldaera:

— Lagun baten karikatura: bikotetan elkartuta, kide bakoitzak aldi berean bikoteko kide bezala egokitu zaion adiskidearen karikatura egiten du.

***Eztabaida:***

Zaila al da geure irudi fisikoaz barre eginez jostatzea? Libertitua gertatu al da? Zein karikatura dira libertituenak eta barregarrienak?...

Aldaeran: Zer iruditu zaizue zuen bikotekideak egindako karikatura?...

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 45' |
|---|---|
| Folioak, arkatzak, borragomak eta errotuladore beltzak (partaide bakoitzeko bat). Koloretako margoen kaxa batzuk eta enbalatzeko papera. | ***Talde egituraketa:*** BA-TH. |


Luchi -


Petronila Erwin


"El
Machi"


FACUNDO


JIMMY


SURFERNANDO

## 6. BIZITZAKO ROLAK EDO PAPERAK

***Helburuak:***

- Pertsonalki erakargarri edo higuingarri gertatzen zaigunaz jabetu.
- Autoirudia prospektiboki proiektatu.
- Gizarteko rolak eta beren esanahia aztertu.

***Jardueraren deskribapena:***

Partaideak arbelera irteten dira, gutxi gorabehera hamar minutuz, txandaka, eta bizitzan zehar bete litezkeen era guztietako rolak edo paperak idazten dituzte (irakaslea, lapurra, etxeko lanak, sukaldaria, mekanikaria, sendagilea, artista, abokatua, ertzaina...).

Ondoren, beste hamar minutu ematen dira partaideak arbelera irten eta atseginez beteko lituzketen rolak edo paperak gurutze batez markatzeko.

Hirugarren une batean, eta beste hamar bat minutuz gutxi gorabehera, arbelera txandaka irteten dira eta gurutze batez markatzen dituzte betetzea gustatuko ez litzaizkiekeen rolak edo paperak.

Azkenik, rol baloratuenak eta baliogabetuenak aztertzen dituzte eta beren aukeraketen eta bazterketen arrazoiak azaltzen dituzte partaideek.

Oharrak:

- Irakaslea: Taldeko kide guztien parte-hartzea sustatu, hiru faseetan.
- Behatzailea: Aukeratutako/Baztertutako rolak eta berorien aukeraketarako eta bazterketarako erabilitako argudioak idatzi.

***Eztabaida:***

Eztabaida puntu hauetan ardazten da: 1) aukeratutako eta baztertutako rolen esanahian (zer lan eskatzen duten, zer-nolako irudi soziala du rol horrek, zer sinbolizatzen du...) eta 2) aukeraketetara eta bazterketetara eraman dituzten arrazoiak.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
|---|---|
| Arbela. | ***Talde egituraketa:*** TH. |

## 7. FOKUA

***Helburuak:***

- Taldean giro positiboa, konfiantzakoa, sortu.
- Norbere buruaren eta besteen ezagutza indartu.
- Norbere kontzeptua eta besteena hobetu.

***Jardueraren deskribapena:***

Sei partaideko taldeetan zatitzen da gela eta kide bakoitzari folio bat, boligrafo bat eta beren gainean idazteko moduko tamaina handiko bost etiketa eranskor ematen zaizkio. Ondoren, agindu hauek ematen dira: «Joko samur bat egin behar dugu, FOKUAREN jokoa. Ondoren agertzen dugun honetan datza: taldeko edozein kidek bere burua aurkezten du FOKU izateko, eta taldearen erdigunean kokatzen da. Taldeko beste kideetako bakoitzak etiketa bat hartu eta bertan *FOKU adiskideari buruz ahal dituen gauza positibo guztiak idazten ditu.* Benetako ezaugarriak bakarrik idatz litezke, hau da, adiskideak benetan dituenak. Idazten duzuena egia dela konbentziturik egon behar duzue. Hasi aurretik, une batez hausnartu zuen adiskidearen ezaugarriak. Denek amaitu dutenean, bakoitzak hitzez esaten dizkio FOKUARI berak jarri dituen nolakotasunak eta mezu horiek idatzi dituen txartela ematen dio. Erdian dagoenak jaso eta bere folioan itsasten ditu. Gero beste boluntario bat aurkezten da eta ariketa errepikatu egiten da, taldeko kide guztiak pasatu bitartean». Jokoa amaitzean taldeko kide bakoitzak bost txartel edukiko ditu, adiskideek berari buruz jarritako mezu positiboekin. Ondoren, folio guztiak enbalatzeko paperaren gainean jartzen dira, taldeko kide guztiek ikusi ahal izan ditzaten eta azkenean egindako ariketari buruzko debate bat hasten da.

Oharrak:

- Irakaslea: Adiskideek dituzten ezaugarri positiboak izendatu behar dituztela azpimarratu. Beste gabe adiskideari gustatzen zaizkion gauzak izendatzen dituztenak edo beren edukian bestearen alderdi positiboak biltzen ez dituzten esaldiak baliogabeak izango lirateke (ikus adibidea 3. kapituluan, «Jardueraren ekoizpena» epigrafean).
- Behatzailea: Etiketan itsasten diren folioak bildu, taldearen burutzapena aztertzeko helburuarekin. Debatean esandakoak idatziz hartu.

***Eztabaida:***

Zer-nolakoa izan da ariketa? Erraza, zaila, atsegina, trabakorra...? Zuen adiskideengan aurkitu al duzue ezaugarri onik? Zeuongan aurkitu al duzue ezaugarri onik? Zuen adiskideengan idazteko moduko gauza positiboak aurkitzea asko kostatu al zaizue? Zergatik? Zuen adiskideak aipaturiko zein ezaugarri gertatu zaizue atseginen eta ezustekoen? Jokoa egin aurretik baino hobeto sentitzen al zarete? Positiboa dena eta negatiboa dena besteei esateko ohiturarik ba al dugu? Norbaitek jaso al du mezu negatiboren bat? Zer motatako mezu positiboak aipatu dira maiztasun gehienaz? Zenbat mezu positibo planteatu dira talde bakoitzean? Zein arrazoirengatik gertatu dira taldeen arteko ezberdintasunak?

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60' |
|---|---|
| Folio bat, boligrafo bat eta tamaina handiko bost etiketa itsaskor partaide bakoitzeko. | ***Taldearen egituraketa:*** TT-TH |

## 8. ISPILU MAGIKOA

***Helburuak:***

— Dohain eta nolakotasun pertsonalak identifikatu autokontzeptua, autoestimua eta norberarengan konfiantza hobetzeko.
— Norberarenganako sentimendu positiboen adierazpen emozionala.

***Argibideak:***

Jarduera aldi berean burutzen duten sei edo zazpi kideko taldeak antolatzen dira lehenik. Talde bakoitzeko partaideek ispilu sinboliko baten aurrean jarri eta dauzkaten hiru ezaugarri onetan pentsatu behar dute (arduratsua, eskerronekoa, arretatsua, alaia, baketsua, kirolaria, laguntzailea, zerbitzaria, askea, independentea... naiz), eta paper batean idatzi behar dituzte.

Ondoren, txandaka, zirkuluaren erdira irteten da partaide bakoitza eta taldeko beste kideek pertsona horrek dituen ezaugarri positiboak izendatu behar dituzte. Taldeko kideek erdiko adiskidearen ezaugarriak izendatu dituztenean, asmatu duten eta zein ezaugarritan asmatu duten esaten du honek. Eta honela prozesua errepikatu egiten da taldeko kide guztiekin jarraian. Ondoren, talde handian, nork bere buruaz duen irudiaren eta besteek norberaz duten irudiaren arteko aldeari buruzko solasaldia egingo da.

***Eztabaida:***

Nola aurkitu zarete ispiluaren aurrean? Nola aurkitzen zineten taldeko kideek zuei buruzko iruzkin positiboak egiten zituztenean? Zuen hitzak eta ez-berbazko hizkuntza (gorputz hizkuntza) adostasunean al zeuden? Taldeko kideen dohainak pentsatzea erraza al zen? Eta norberarenak pentsatzea?

| | |
|---|---|
| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 45'<br>***Talde egituraketa:*** TT-TH |

## II. MODULUA
## Talde barneko komunikazioa

### 9. KOMUNIKAZIOA ETA ADOSTEA: ZER EGIN DAITEKE ...TEKO/TZEKO?

***Helburuak:***

- Talde barneko komunikazioa sustatu. Entzute aktiborako azturen garapena.
- Adostasunez erabakiak hartzearen zailtasunak aztertu.
- Arazoen ebazte teknikak ikasi (sormena).
- Autoestimuaren, gizarte elkarreraginerako estrategia kognitiboen... (taldeari planteatutako arazoaren arabera aldatuko da) hobekuntza.

***Jardueraren deskribapena:***

Lehen fasean, sei edo zazpi pertsonako ekipoetan banaturiko taldeak dagokion gaia eztabaidatzen du. Talde batekin jarduera hau burutzea planteatzen den bakoitzean, ekipo guztiei eztabaidagai bera eman dakieke, ekipo bakoitzari gai ezberdina eman dakioke edo bi edo hiru gai ezberdin landu daitezke. Plantea litezkeen gaien adibide batzuk hauek dira:

- Zer egin behar da lagunak irabazteko (gizarte elkarreraginerako estrategiak).
- Zer egin dezaket gai ez naizela, ez dudala balio, ez naizela ausartzen, hutsune asko ditudala (autoestimu baxua) sentitzeari utzi nahi badiot?
- Zer egin behar da alai egoteko (emozioen kontrolerako estrategiak).
- Zer egin behar da besteekin harreman onak izateko (gizarte elkarreraginerako estrategiak).
- Zer egin behar da talde batean sartzeko (gizarte elkarreraginerako estrategiak).
- Zer egin behar da haur bat gelan integratzeko (laguntzako harremanak).

Lehenik, planteaturiko arazoari buruz ekipoko kideek ematen dituzten erantzunak idatziko dituen idazkari bat izendatzen du ekipo bakoitzak. Lehen fase honetan kritika gabe onartu behar dira ekipoko kideek emandako erantzun guztiak (ideien zurrunbiloa). Bigarrenik, adostasuna duten erantzunak argitu behar ditu ekipoak, hau da, taldeko kide guztien adostasuna duen egoerari emandako erantzun estrategiak. Adostasunik ez dagoenean eta erantzunen bati buruzko desadostasunak agertzen direnean, taldeko kideek argudio ezberdinak hitzetan jarri behar dituzte, eztabaida luzatuz eta besteak konbentzitu eta adostasunera heltzen saiatuz. Denbora bat iragan ostean desadostasunak irauten badu, adostasunik ez duten erantzunak eta desadostasunezko argudioak erregistratzen ditu idazkariak. Hirugarrenik, arazo den egoerari aurre egiteko eraginkorra iruditzen zaion erantzuteko modua aukeratzen du ekipo bakoitzak eta gainontzeko adiskideentzat dramatizatu egiten du, aukeratutako ebazpidea erakutsiz. Ekipoen dramatizazioaren ondoren, talde handian, ekipo bakoitzaren ondorioak komentatzen dira eta debatea hasten da; bertan erantzunak aztertzen dira, eraginkorrenak eta sortzaileenak zeintzuk diren argituz.

Oharrak:

- Irakaslea: Saio bat baino gehiagotan gauzatu liteke, planteaturiko egoerak aldatuz (ikus adibidea 3 kapituluan, «Jardueraren ekoizpenak» epigrafean).
- Behatzailea: Ekipo bakoitzaren ekoizpena jaso, ondoren aztertzeko. Debatean esandakoak idatzi.

***Eztabaida:***

Ekipo bakoitzeko erantzunen artetik zenbat eta zeintzuk dira adostasunera heldu ez direnak eta zergatik? Adostasunezko ondorioetara heltzeko zer zailtasun agertu dira? Adiskideek beren erantzunentzako argudioak ematen zituztenean arretaz entzuten al genien? Zein izan da taldeko eztabaidak egin digun ekarpena? Landu dugun egoerako arazoari aurre egiteko modu eraginkor eta sortzaileenak zeintzuk lirateke?

Erabakia hartzeko gehiengoaren prozedura erabili duen jardueraren bat burutu bada aurretik (Antartidarako bidaia, abentura ilargian...), erabakiak hartzeko eredu bietako ondorioen alderaketa sar daiteke eztabaida honetan: ze ezberdintasun dago ondorio batzuetara adostasunez eta gehiengoz heltzearen artean? (prozedura bien arteko ezberdintasunak: eztabaida denboretan, desadostasun indibidualen agerikotasunean, ondorioen kalitatean, taldeko kideen asebetetze mailan...).

| ***Materialak:*** | ***Denbora***: 1 or. 30' |
|---|---|
| Folioak eta boligrafoak. Arbela. Dramatizaziorako materialak. | ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |

## 10. ANTARTIDARAKO BIDAIA

***Helburuak:***

— Talde barneko komunikazioa suspertu.
— Komunikazio prozesua alderatu, erabakiak hartzeko bi ereduetan: adostasuna eta gehiengoa.

***Jardueraren deskribapena:***

Taldeari planteatzen zaio Antartidara bidaia bat egin behar duela eta bidaia honetan zazpi gauza edo objektu pertsonal bakarrik eraman ditzaketela. Lehenik banaka egin behar dute eramatea otutzen zaien guztiaren zerrenda. Ideiak hertsapenik gabe azaldu behar dituzte, inolako ideiarik kritikatu gabe, oso bitxia iruditu arren. Gero, bost edo sei partaideetako ekipoak eratzen dira eta gehiengoak bozkatutako zazpi objektu aukeratzean datza egitekoa. Horretarako, ekipoko pertsonek nabarmendutako objektu guztien zerrenda egiten da, errepikapenak baztertuz, objektu bakoitzaren agerpenen maiztasuna apuntatzen da eta taldeak gehien aukeratu dituen zazpiak zehazten dira. Bigarren fasean, ahal den objektu kopuru handienari buruzko adostasunera heltzen saiatzen dira ekipo bakoitzeko kideak. Bizitzarako garrantzi handienekotzat dituzten objektuak aukeratu behar ditu ekipo bakoitzak. Azkenik, talde handian, ekipo bakoitzaren aukeraketak komentatzen dira, erantzunak arbelean agertuz eta taldeen arteko ezberdintasunak aztertuz.

Oharra:

— Behatzailea: Partaide bakoitzaren ekoizpenak jaso, ondoren aztertzeko. Debatean esandakoak idatzi, arbelean agertutako ekipo bakoitzaren emaitzak egunkarian deskribatuz.

***Eztabaida:***

Gehiengoak beti erantzun berberak ematen al ditu? Ondorioetara adostasunez eta gehiengoz heltzearen artean zer alde dago? (prozedura bien arteko aldea: eztabaida denboran, desadostasun indibidualen ebidentzia handiagoa, ondorioen kalitatea, taldeko kideen asebetetasun maila...). Adostasunez zenbat objektutara heldu da talde bakoitza? Zer zailtasun egon da? Gehiengoak hutsegin al dezake?

| | |
|---|---|
| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60' |
| Folioak eta boligrafoak. Arbela. | ***Talde egituraketa:*** BA-TT-TH. |

## 11. POLARIZAZIO ELEKTRIKOA

***Helburuak:***

— Talde barneko komunikazioa sustatu: entzute aktiboko azturak garatu.
— Beste talde soziokulturaletakoei (beltzak, ijitoak, marokoarrak...) buruz ditugun hautemateak eta haien azpian dautzan balioak ezagutu.
— Gai ezberdinei buruzko iritzi ikuspegi ezberdinak nabarmendu.
— Beste taldeekiko jarrera diskriminatzaile eta arrazistak argitu.
— Komunikazio prozesuen bidez berregituraketa kognitiboa sustatu.

***Kontzeptuen definizioa:***

*Arrazismoa:* Arraza baten besteekiko nagusitasuna baieztatzen duen dotrina.

*Etnozentrismoa*: Norberaren talde sozialaren jarrera eta balioak paradigma unibertsal bezala kontsideratzeko joera. Talde etniko batzuei buruz adierazpen erasokorrak egiteko eta subjektuaren identifikazio taldeetatik datorren guztiaren alderako jarrera akritikoa agertzeko joera...; nire taldearen eta besteen arteko bereizketa zurrunean oinarritzen da. Beste taldeekiko aurreiritzia edo etsaitasunezko jarrera eta norbere taldeari mesede egiteko joera.

*Xenofobia:* jatorri sozialeko sugestio batek eragindako arrotzarekiko gorrotoa.

*Diskriminatu:* Arraza, gizarte, sexu... ezberdintasunak argudiatuz bereizkuntza egitea.

*Interdependentzia:* Gizabanakoen, taldeen, nazioen arteko menpetasunezko harremanak.

***Jardueren deskribapena:***

Lehenik, «Bai» ordezkatzen duen horma eta «Ez» ordezkatzen duen aurrez aurreko horma ipintzen dira gelaren barnean. Jokalariak gelaren erdian kokatzen dira eta irakasleak baieztapen bat irakurtzen du ozenki, txalo bat jotzen du eta taldeko guztiak lekualdatu egiten dira; baieztapenarekin ados baldin badaude «Bai» daukan horman kokatzen dira, eta baieztapenaren kontra badaude, «Ez» daukan horman. Inor ezin daiteke erdian gelditu. Denek hartu behar dute erabakia. Baieztapenaren alde edo kontra erabat ez egoteak ez du axolarik.

Ondoren, irakasleak galdetzen du zergatik kokatu den bakoitza bere ertzean. Lehenik talde txikienari, gero talde handienekoei eta talde txikienekoei txandaka.

Argudio nagusiak agertu direnean, hau adierazten da: «Aurreko taldeak esandako argudioren batekin ados daudenak mugi litezke alde horretarantz. Beste taldekoen argudioek sortu dizueten konbentzimendu mailaren arabera gehiago edo gutxiago hurbildu behar duzue». Ondoren, lekualdatzeren bat egiten dutenek besteen jarrerara hurbiltzea zein argudiok eragin dien azaltzen dute. Hurbilketa maila bat baldin badago, guztiak akordio maila handiagoan edo txikiagoan leudekeen adostasunezko esaldi batera heltzeko saiakera egin liteke.

Oharrak:

— Irakaslea: Erantzunen egiazkotasuna azpimarratu. Helburua ez da ideiak epaitzea, pentsatzen duguna libreki adieraztea eta besteen pentsamenduak entzutea baizik. Beste esaldiak asmatu eta jarduera hau zenbaitetan gauzatu. Esaldiak enuntziatu aurretik, beraien kontzeptu inplizituak definitu (arrazismoa, diskriminazio sexuala, indarkeria, txirotasuna...). Esaldiaren edukiaz hausnar dezaten, erabakia hartu eta bizkor polariza daitezen sustatu. Aurkako

taldeak emandako argudioen eraginez lekualdatu nahi duten planteatu baino lehen, irakasleak laburbil ditzake bi ertzetan agertu diren argudioak, aldaketa edo jarreren hurbilketa sustatuz. Gaiaren informazio objektiboa eman liteke, baina helduak ez du debatean jarrera pertsonalik hartu behar; taldeko kideen iritzietan oinarrituta haren hausnarketa sustatzea da helburua (ikus adibidea 3. kapituluan, «Jardueraren ekoizpena» epigrafean).

— Behatzailea: Esaldi bakoitzari bi ertzetan planteatzen zaizkion argudioak hitzez hitz idatzi. Era berean, emandako lekualdatzeak eta argudioak eta debateko hizketaldiak deskribatu egunkarian.

***Eztabaida:***

Zer ekarpen egin dizu taldeko eztabaidak? Adiskideek emandako argudioetan oinarrituta zure ikuspuntuak aldatu al dituzu? Zer irudi dugu atzerritarrez, marokoarrez, ijitoez... (esaldietan aipaturiko kolektiboen arabera) Zergatik ditugu irudi horiek? Zer egin dezakegu errealitateari buruz ditugun irudi oker horiek aldatzeko? Beste taldekoekiko zer sentimendu eduki ditugu?

| | |
|---|---|
| ***Materialak:*** Taldeari planteatu beharreko esaldi eta baieztapenen zerrenda | ***Denbora:*** 60'-90' (esaldi kopuruaren arabera). ***Talde egituraketa:*** TH. |

## 11. Polarizazio elektrikoa

— Arraza ezberdinetakoak toki ezberdinetan biziko balira arrazismoaren arazoa konponduko genuke.
— Gizakiek historikoki mundua menperatu dute eta horrela izaten jarraitu behar du.
— Inguratzen gaituzten taldeen kultura ezagutuko bagenu, ez legoke arrazismorik.
— Marokoarrek lana kentzen diete herri honetako pertsonei.
— Zigor fisikoa erabiltzea beharrezko gertatzen da batzuetan.
— Heriotza zigorra baztertu egin beharko litzateke kasu guztietan eta lurralde guztietan.
— Beti egon dira txiroak, betidanik izan den errealitate bat ez dugu gaur arazo bihurtu behar.
— Beste lurraldetako etorkinak kontrolatzeko ahaleginean gobernuak gastatzen duen dirua, haiek beren lurraldera bidaltzen eta haiei denbora baterako lansaria ematen inbertitu lezake.
— Sexua ez litzateke aipatu beharko enplegu eskaintzetan, edozein dela ere lan mota.
— Gizarte aldaketa aberastasunen birbanaketa batetik hasi beharko litzateke, mundua denona baita.
— Dirua eta kultura baldin baditu balio du gizaki batek.
— Gure lurraldean bizi den beste lurraldetako jendeak gu bizi garen auzo beretan bizi behar du, hobeto ezagutzera heltzeko.
— Arrazismoa arazo ekonomiko bat da nagusiki, eta bazterturiko taldeen bizi-baldintzak eta abaguneak berdintzea izango litzateke soluziobide bat.
— Gizakiak indarkeria zaleak dira eta horrela izango dira beti.
— ...

## 12. ILARGIAN ABENTURA

***Helburuak:***

— Talde barneko komunikazioa sustatu: Entzute aktiboko azturen garapena.
— Komunikazio prozesua alderatu erabakiak hartzeko bi ereduetan: adostasuna eta gehiengoa.
— Komunikazio prozesuen bidez berregituraketa kognitiboa suspertu.

***Jardueraren deskribapena:***

Bost edo sei pertsonako ekipotan banatzen dira partaideak. Partaide bakoitzak materialak zerrendan jartzeko erantzun orria jasotzen du, haien ordenaketa lehenik gehiengo bidezko taldean eta gero adostasun bidezko taldean egiteko.

Jarraian, ondorengo argibideak ematen dira jokorako: «Irudika ezazue ilargiaren alde argitsuan aurkitzen den ontzi inude batekin elkartu beharko lukeen espazio-ontzi batean zaudetela. Arazo teknikoengatik zuen ontzia ontzi inudetik 200 kilometrora ilargiratu da. Ilargia hartzean, zuen ontziko tresneriaren zati handi bat desegin egin da. Hamar objektu bakarrik gelditu dira ukitu gabe. Zuen biziraupena ontzi inudera heltzearen menpe dago, eta horretarako ezinbestekoena dena bakarrik eraman dezakezue. Zuen egitekoa objektuak beren garrantziaren arabera mailakatu eta sailkatzea da, tripulazioak ontzi inudera heltzea lor dezan. Irizpide honekin zenbakituko dituzue: 1 artikulu garrantzitsuena izango litzateke eta 10 garrantzi gutxienekoa».

Lehenik, ordenaketa banaka egin behar duzue, inorekin hitz egin gabe eta erantzunak arrazoituz (hamar minutu). Bigarrenik, talde txikietan, adostasun bidez ordenaketa egin, lehen bost objektuetan gutxienez ados jartzen saiatuz. Artikuluak berrikusi behar dituzte eta adostasun bidezko ordenaketara heltzen saiatu, besteak konbentzitzeko argudioak emanez. Adostasun bidez ahal duen artikulu gehien ordenatzen saiatuko da ekipo bakoitza, hogei minutuko gehienezko denbora batean. Hirugarren fase batean, gehiengoz egiten da ordenaketa, partaide bakoitzak objektu bakoitzari eman dion ordena zenbakiak batuz; horretatik ateratzen da objektu bakoitzaren azken puntuazioa, eta lortutako puntuazioen arabera ordenatzen dira ondoren objektuak.

Azkenik, partaide bakoitzak hiru sailkapenak (banakakoa, adostasun bidezkoa eta gehiengoarena) bere erantzun orrian jasota gero, NASAko zientzialari talde batek landutako erantzunen ordenaketaren berri ematen dio irakasleak taldeari. Banaka eta taldeetan hiru zutabeetako emaitzez eta zientzialarien emaitzez hausnartzen dute, ondorioak ateratzen saiatuz. Talde handiaren emaitzak komentatzen dira eta debatea planteatzen da.

Oharra:

— Behatzailea: Partaide bakoitzaren erantzun orria jaso, ondoren aztertzeko. Eztabaida fasean hitzez adierazitakoak deskribatu.

***Eztabaida:***

Zer ezberdintasun agertzen dira egindako lau ordenaketen artean? Banakako, adostasun bidezko, gehiengo bidezko erabakien abantaila eta desabantailak (adibidez, egiteko denboran, desadostasun indibidualen agerikotasunean, ondorioen kalitatean, taldeko kideen asebetetze mailan... erabakiak hartzeko modu bakoitzean).

| |
|---|
| Ekipo bakoitzean adostu duten artikulu kopurua (erabakiak hartzean arazoak: informazio falta, bestearen komunikazioaren aurreko blokeoa...). Erraza izan al da erabakia adostasunez hartzea? Nola gertatu da? Zer ekarpen egin dizu taldeko eztabaidak? |

| | |
|---|---|
| ***Materialak:*** <br> Erantzun orria, arkatza eta borragoma partaide bakoitzarentzat. <br> NASAko zientzialarien erantzun orria irakaslearentzat. | ***Denbora:*** 1 or. 15'. <br> ***Talde egituraketa:*** BA-TT-TH |

## 12. Abentura ilargian

Erantzun orria

| Artikuluak | Banaka | Adostasunez | Gehiengoz | NASA |
|---|---|---|---|---|
| Pospolo kaxa bat <br> Janari kontzentratuko lata bat <br> Hogei metro Nylonezko lokarri <br> Hogeita hamar metro jausgailu zeta <br> 50 litroko bi oxigeno bonbona <br> Ilargiko konstelazioen izar mapa bat <br> Iparrorratz magnetiko bat <br> Hogei litro ur <br> Lehen laguntzetarako maletatxo bat, injekzioetarako xiringarekin <br> FM-ko hartzaile eta igortzaile bat, eguzki energiaz dabilena | | | | |

## 12. Abentura ilargian

NASAko zientzialarien ordenaketa

| | |
|---|---|
| Pospolo kaxa bat | 10. Ez dago oxigenorik |
| Janari kontzentratuko lata bat | 4. Ezin da bizi denboraldi bat janaririk gabe. |
| Hogei metro nylonezko lokarri | 6. Zoru irregularrean laguntzeko. |
| Hogeita hamar metro jausgailu zeta | 8. Garraiorako, eguzkitik babesteko. |
| 50 litroko bi oxigeno bonbona | 1. Airerik ez dago ilargian. |
| Ilargiko konstelazioen izar mapa bat | 3. Beharrezkoa orientatzeko. |
| Iparrorratz magnetiko bat. | 9. Lurreko eremu magnetikorik ez dago. |
| Hogei litro ur | 2. Urik gabe ezin daiteke bizi. |
| Lehen laguntzetarako maletatxo bat, injekzioetarako xiringarekin | 7. Botikin txiki bat beharrezko izan liteke. Orratzak alferrikakoak dira. |
| FM-ko hargailu eta igorgailu bat eguzki energiaz dabilena | 5. Ontziarekin komunikatu. |

## 13. INPAKTUA: GUDA

***Helburuak:***

— Talde barneko komunikazioa sustatu: entzute aktiboko azturen garapena.
— Gudaren berehalako eta luzerako ondorenak aztertu.
— Indarkeriaren adierazpen motak, zergatiak, ondorenak eta kontrol mekanismoak argitu.

***Jardueraren deskribapena:***

Sei edo zortzi partaideko ekipotan banatzen da taldea. Ekipo bakoitzak folio bat, arkatz bat, borragoma bat, errotuladore bat eta jardueraren emaitzen errepresentazio bat gauzatzeko enbalatzeko paper plegu handi bat hartzen ditu. Ekipoak eta materiala banatu ondoren, argibide hauek planteatzen dira: «Talde bakoitzak gudaren ondorenei buruzko hausnarketa egin behar du. Lehenik, gudaren lehen mailako ondorenez, berehalako ondorenez pentsatu behar duzue. Ondoren, horien zerrenda duzuenean, egin ezazue harekin errepresentazio grafiko bat. Horretarako, pleguaren erdian zirkulu bat marraztu eta lantzen ari garen gaia idazten da bertan, guda adibidez; zirkulu horretatik beste zirkulu batzuk irteten dira, lehen eraztun modura, eta hauetan berehalako ondorenak idazten dira. Ondoren, lehen mailako ondoren edo berehalako ondoren bakoitzetik epe luzeagoko zer ondoren ateratzen diren pentsa ezazue, eta grafikoan irudikatu. Orain, zirkulu hauetako batzuetatik bigarren eraztun moduan marraztutako beste zirkuluak irteten dira, eta haietan lehen mailakoetatik eratorritako ondorioak idatziko dira, eta horrela jarraian, detektatzen diren ondorio maila bezainbat eraztun marraztuko dira.

Ekipo guztiek gaiari buruz ahal den hausnarketa gehien egin eta grafikoki irudikatu dutenean, talde handian, gauzatutako errepresentazioa erakutsi eta komentatuko die ekipo bakoitzeko ordezkari batek beste adiskideei. Ekipo ezberdinetan lortutako emaitzetatik abiatuta egingo da eztabaida.

Oharrak:

— Behatzailea: Ekipo bakoitzak gauzatutako errepresentazio grafikoak egunkarira transkribatu. Eztabaida fasean egindako iruzkinak idatzi.
— Irakaslea: Egindako errepresentazio grafikoen adibideak ikusi (ikus 3. kapituluan «Jardueraren ekoizpenak» epigrafea).

***Eztabaida:***

Nabarmendutako ondoren garrantzitsuenak laburbiltzen ditu irakasleak, behar izanez gero bakarren bat gehiago erantsiz. Iruzkin ezberdinak egin ditzake, adibidez «Guda da giza indarkeriaren erakuslerik nagusiena. Askotariko zergatiak izan ohi ditu, nahiz eta ondorenak orokorrean oso negatiboak izan ohi diren, jadanik ikusi dugun bezala...», eta taldeari galdera ezberdinak egin diezazkioke, egoera konkretuetan oinarrituta elkarrizketa sustatzeko, adibidez:

— Indarkeriaren adierazpen motak (hitzezkoa, fisikoa, iraina, diskriminazioa...).
— Erasokortasunaren eta indarkeriaren zergatiak (lurraldea, erlijioa, arraza...).

| | |
|---|---|
| —Erasokortasuna kontrolatzeko eta giza gatazkak indarkeriarik gabe (adierazpen sinbolikoa, elkarrizketa, negoziaketa...) ebazteko moduak. | |
| ***Materialak:***<br>Folioa, arkatzak, borragomak, errotuladoreak eta enbalatzeko paper plegua. Arbela. | ***Denbora:*** 60'.<br>***Talde egituraketa:*** TT-TH. |

## 14. DIBORTZIOAREN INPAKTUA

***Helburuak:***

— Talde barneko komunikazioa sustatu: Entzute aktiboko azturen garapena.
— Dibortzioaren berehalako eta epe luzerako ondorenak aztertu.

***Jardueraren deskribapena:***

Sei edo zortzi partaideko taldetan zatitzen da taldea. Ekipo bakoitzak folio bat, arkatz bat, borragoma bat, errotuladore bat eta errepresentazio grafikoa gauzatzeko enbalatzeko paper plegu handi bat hartzen ditu, ondorengo argibide hauek planteatuz: «Ekipo bakoitzak gurasoen bereizkuntzaren ondorenei buruzko hausnarketa bat egin behar du. Lehenik, dibortzioaren lehen mailako edo berehalako ondorenez pentsatu behar duzue. Ondoren, hauen zerrenda egina duzuenean, egizue haien errepresentazio grafikoa. Horretarako, pleguaren erdian zirkulu bat egiten da eta bertan lantzen ari garen gaia idazten, adibidez dibortzioa; hemendik lehen eraztun moduan marrazturiko beste zirkulu batzuk irteten dira eta hauetan berehalako ondorenak idazten dira. Ondoren, pentsa ezazue epe luzeagoko zer ondorio eratortzen diren lehen mailako edo berehalako ondorio bakoitzetik eta grafikoan irudika itzazue. Orain, zirkulu hauetako batzuetatik bigarren eraztun bezala marrazturiko beste zirkulu batzuk irteten dira; lehen mailako ondorenetatik eratorritako ondorenak idatziko dira berauetan, eta horrela jarraian, detektatzen diren ondorio maila bezainbat eraztun egingo dira.

Ekipo guztiek gaiari buruz ahal den hausnarketa gehien egin eta grafikoki irudikatzen dutenean, talde handian, gauzatutako irudikapena erakutsi eta komentatuko die ekipo bakoitzeko ordezkari batek beste adiskideei. Ekipo ezberdinetan lortutako emaitzetatik abiatuta egingo da eztabaida.

Oharrak:

— Irakaslea: Nahi den edozein gairen (nerabeen haurdunaldiak...) ondorenak azter litezke teknika berarekin. Aztergaia irakasleak edo nerabeen taldeak aukera dezake (ikus adibideak 3. kapituluan, «Jardueraren ekoizpena» epigrafean).
— Behatzailea: Ekipo bakoitzak gauzatutako errepresentazio grafikoak egunkarira transkribatu. Eztabaida fasean egindako iruzkinak idatzi.

***Eztabaida:***

Nabarmendutako ondoren garrantzitsuenak laburbiltzen ditu irakasleak debate fasean, behar izanez gero bakarren bat gehiago erantsiz. Dibortzio gaiari buruz ekipo desberdinek seinalaturiko ondorenetan zentratuko da eztabaida. Beste hausnarketa ardatz bat hau izan daiteke: egoera honetara eramaten duten zergati ezberdinak, seme-alaben bizipenak eta bertan inplikaturiko pertsonek egoera honi aurre egiteko dituzten modu egokiak.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
|---|---|
| Folioak, arkatzak, borragomak, errotuladoreak eta enbalatzeko paper pleguak. | ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |

## 15. ELKARRIZKETAK

***Helburuak:***

— Talde barneko komunikazioa sustatu: Entzute aktiboko azturak garatu eta komunikazioa blokeatu eta oztopatzen duten jokaerak aztertu.
— Norabide bakarreko komunikazioaren eta norabide biko komunikazioaren, komunikazio zirkularraren edo atzeraelikadurazko komunikazioaren (jasotako mezuen atzeraelikadurarekin) abantailak eta mugak esperimentatu eta alderatu.
— Taldeko kideek talde horri buruz duten irudia argitu.

***Jardueraren deskribapena:***

Lehenik, bikotetan zatitzen dira, elkarrizketatzailearen eta elkarrizketatuaren rolak hartuz, eta gero alderantzikatuz. Bigarrenik, bost minutuko hausnarketa egin eta «taldetik atsegin zaiona eta desatsegin zaiona» adieraziz mezu labur bat (bost edo hamar lerro) idazten du elkarrizketatuak paper batean. Hirugarren fasean, hitzez mezua elkarrizketatzaileari jakinarazten dio, eta honek elkarrizketatuari entzun ondoren (elkarrizketatuak komunikatzen dion informazio guztia jasotzea amaitu ondoren), jasotako mezua idazten du, baina une honetan ezin dio galderarik egin. Azkenik, idatzitako eta adierazitako mezua kontrastatzen dute biek, eta igorritako eta jasotako mezuen arteko egokitzapenaren arabera informazioa erantsi edo kendu egingo diote. Eransten zaion edo ezabatzen zaion informazioa beste kolore bateko boligrafoz egingo da, eta horrek mezuaren kalitatean komunikazio mota bien arteko aldeak aztertzea ahalbidetuko du. Jardueraren bigarren fasean rolak aldatu egiten dira, prozesu bera burutuz.

Oharrak:

— Irakaslea: Bikoteak distantzia egokira banatu gelan, kontzentrazio giroan egin ahal izan dezaten jarduera.
— Behatzailea: Partaideen mezuen deskribapenak jaso, agertutako edukien azterketa egiteko ondoren. Eztabaida-aldian esandakoak idatzi.

Aldaera:

— Ipuina: Hiru pertsona aukeratzen dira zoriz, A, B eta D deituko ditugunak, eta taldea dagoen gelatik irten egiten dira. Irakasleak kondaira edo ipuin bat kontatzen die taldeko gainontzekoei. Gero A sartzen da gelara eta taldeko batek kondaira kontatzen dio. Amaitzean, B sartzen da gelan, eta A-k kondaira kontatzen du. Hirugarrenik, D sartzen da gelan, eta B-k kontatutako kondaira entzuten du. Kontaketen ondoren, mezuaren transmititze-prozesuan informazioak jasandako galerak eta deformazioak aztertzen dira.

***Eztabaida:***

Debatea hiru ardatzetatik eragiten da:

— Norabide bakarreko komunikazioaren zailtasunen azterketa: Elkarrizketatuak zuzenketa asko egin al dizkio elkarrizketatzaileari mezu bidalia eta mezu jasoa oso ezberdinak zirelako? (norabide bakarreko komunikazioaren eta atzeraelikadura duen komunikazioaren arteko aldeak nabarmendu). On-

dorioa: mezu baten transmisioaren prozesu guztietan komunikazioaren edukiaren gutxitze bat gertatzen da ezinbestez: esan nahi dena; esaten dena; entzuten dena; entzundakotik ulertzen dena; oroitzen dena; erreproduzitzen edo errepikatzen dena (atzeraelikadura) gutxitu egiten da maila bakoitzean.

— Taldearen aldaketarako helburuak: Talde honen zer osagai nabarmendu dira positibo bezala eta negatibo bezala? Zer egin dezakegu negatiboak aldatzeko? Kideek taldeari buruz dituzten irudiak argitzea eta, bereziki, aldaketarako jomuga bezala sar daitezkeen alderdi negatiboak identifikatzea ahalbidetu dezake honek. Aldaketarako jomugak argitzeko asmoz, idatzitako mezuen edukiak aztertzen dira, edo elkarrizketen emaitzak irakurtzen dira, edo taldearen gustuko ez denetik esanguratsuena dena talde handian hitzez komentatzen da.

— Komunikaziorako oztopoak: Zein jokaerek laguntzen dute komunikazioa eta zein jokaerek blokeatzen, oztopatzen edo distortsionatzen dute? Azterketa hau ideien zurrunbiloaren teknikaz burutu daiteke edo, baita ere, irakasleak irakur dezake komunikazio onak blokeatzen dituzten jokaeren zerrenda; zerrenda honen bidez, bakoitzari eskatzen zaio banaka azter dezala ea besteekiko harremanetan jokaera hauek egiten dituen ala ez:

- Ohar gordinak eta kontsiderazio gabeak.
- Esaldi eta erantzun latzak.
- Besteen umore oneko agerpenak preziatzeko gaitasunik eza.
- Esamesak eta zurrumurruak.
- Porrotak etengabe oroitaraztea.
- Harropuzkeriatan ibiltzea.
- Jarrera isekaria.
- Modu hotz eta inpertsonalean hitz egitea.
- Etsaitasun sentimenduak adieraztea.
- Umore iraintzailea.
- Pertsona bati hitza ebakitzea.
- Hitza moztea.
- Gaiaz etengabe aldatzea.
- Jende aurrean zuzenketak egitea.
- Monotonia, astuna izatea.
- Solaskideari ez begiratzea, arretarik ez jartzea.
- Entzuten ez jakitea.
- Komunikazio gaiari buruzko argitasun edo zehaztasun gabezia.
- Denbora baino lehen ondorioetara jauzi egitea.
- Pausaldirik gabe hitz egitea.
- Galdera bati beste batez erantzutea...

| *Materialak:* | *Denbora:* 60' |
|---|---|
| Bi folio eta kolore ezberdineko bi boligrafo bikoteko. | *Talde egituraketa*: BI-TH. |

## 16. AKORDIOAK ETA DESADOSTASUNAK

***Helburuak:***

- Talde barneko komunikazioa sustatu.
- Ikuspegi ezberdinen agerpenean oinarritutako komunikazio prozesuen bidezko berregituraketa kognitiboa sustatu.
- Adostasunez erabakiak hartzeko zailtasunak aztertu.

***Jardueraren deskribapena:***

Lehenik gai konkretu bat planteatzen da, hari buruzko iritzia emateko. Gaia taldeari iradoki dakioke (adibidez, sexu harreman goiztiarrak, planetako zuhaitz mozketa kontrolik gabea, drogen kontsumoa, errendimendu akademikoaren arazoak, 12-14 urteko neska-mutilen arteko aldeak...) edo taldeko kideek gai bat aukera dezakete une konkretu horretan dituzten interesen arabera.

Bigarrenik, bospasei partaideko ekipoak egituratzen dira. Ekipo bakoitzak gaiari buruzko lau edo bost baieztapen idatzi behar ditu folio batean, bere ideiak nabarmenduz (adibidez, drogak hartzeko gaian: drogek atsegina sentiarazten dute, drogak osasunerako kaltegarriak dira, substantzia guztiek ez diote osasunari kalte bera eragiten, trafikatzaile guztiek espetxean egon beharko lukete...).

Azkenik, talde handian, ekipo guztien erantzunak biltzen dira. Ekipoetako erantzun orrietako baieztapenak irakurtzen ditu irakasleak eta arbelean idazten dira, bi zutabetan ordenatuz: adostasuna duten baieztapenak eta desadostasuna duten esaldiak. Horretarako irakasleak, gaiaren inguruan planteaturiko baieztapenak irakurtzen dituen bitartean, esaldiaren edukiarekin ados dagoen ala ez esateko eskatzen dio taldeari. Lehenengo biran beren adostasuna duten baieztapenak eta beren adostasunik ez dutenak identifikatu eta idazten dituzte, eta azken hauen inguruko debatea hasten da. Desadostasunak planteatzen diren baieztapenei dagokienez, baieztapenaren aldeko eta kontrako argudioak eztabaidatzen dira.

Oharra:

- Behatzailea: Arbeleko baieztapena (akordioa/desadostasunak) eta desadostasunetatik abiatuta sortutako eztabaida idatziz jaso (ikus 3. kapituluko adibidea, «Jardueraren ekoizpenak» epigrafea).

***Eztabaida:***

Eztabaidaren hasieran akordioa edo desadostasuna eragiten duten baieztapenak argitzen saiatuko dira eta, ondoren, desadostasuna gertatzen den, hots, adostu gabekoak diren baieztapenen aldeko eta kontrako argudioak ematen dira.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
|---|---|
| Folioak eta arkatzak. Arbela. | ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |

## 17. KONDAIRA

***Helburuak:***

- Zerbait kontatzen digutenean edo zerbait irakurtzen dugunean gertaerei buruz egiten dugun interpretazioaz hausnartu: komunikazioa, hautemate eta iritzi okerrak.
- Talde barneko komunikazioa sustatu.

***Jardueraren deskribapena:***

Lehenik, irakasleak kondaira bat irakurtzen die poliki-poliki partaideei, eta hauek arretaz entzun behar dute. Bi bider irakurtzen da.

Kondaira: «Negozio gizon batek dendako argiak itzali berriak zituen, gizon bat agertu eta dirua eskatu zionean. Jabeak kaxa erregistratzaile bat ireki zuen. Kaxa erregistratzaileko edukia atera eta gizona korrika irten zen. Polizia bati abisatu zioten berehala».

Bigarrenik, partaideek banaka bete behar dute ematen zaien galdekizun bat, kondairari buruzko baieztapen batzuk dituena, eta baieztapen horiek egiazkoak diren, gezurrezkoak ala ez dakiten esan behar dute.

Azkenik, irakasleak ozenki irakurtzen ditu baieztapenak eta partaideek haietako bakoitzari emandako erantzunari buruzko informazioa ematen dute. Taldeko kideek erantzunak erakutsi ondoren, irakasleak erantzunen klabean agertzen diren argudioak ematen ditu.

Oharra:

- Behatzailea: Erantzun orriak bildu, ondoren analizatzeko. Zuzenketa eta debate fasean esandakoak idatzi.

***Eztabaida:***

Irakasleak baieztapenak ozenki irakurri dituenean hasten da eztabaida. Haietako bakoitzari emandako erantzunei buruzko informazioa ematen dute partaideek. Erantzun horiek zein argudiotan oinarritzen diren galdetzen du irakasleak eta azkenik erantzunen klabean agertzen diren datuak ematen ditu. Honek nabarmen uzten du gertaeren deskribapen bat ez dela nahikoa iritzi bat edo interpretazio bat emateko.

Ondorioa: Hitzek gauza jakin batzuei buruzko kontzeptu edo ideiak biltzen dituzte (negozio gizona-jabea). Garrantzitsua da entzuten denaz eta jasotako informaziotik interpretatzen edo deduzitzen denaz hausnartzea, iritzi okerrak eragin baititzakete.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 30'. |
|---|---|
| Erantzun orriak (partaideko bana).<br>Erantzunen klabea (irakaslearentzat). | ***Talde egituraketa:*** TH-BA-TH. |

## 17. Kondaira: erantzun orria

*Esaldiak egiazkoak (E) diren, faltsuak (F) diren, edo ez dakizun (?) adieraziz*

1. Jabeak dendako argiak itzali ondoren gizon bat agertu zen.
2. Lapurra gizon bat zen.
3. Agertu zen gizonak ez zuen dirurik eskatu.
4. Kaxa erregistratzailea ireki zuena jabea zen.
5. Dendaren jabeak kaxa erregistratzaileko edukia hartu zuen eta korrika irten zen.
6. Norbaitek kaxa erregistratzaile bat ireki zuen.
7. Lapurrak dirua eskatu zion jabeari.
8. Egun argitan agertu zen gizona.
9. Agertu zen gizonak kaxa erregistratzailea ireki zuen.
10. Inork ez zuen dirurik eskatu.
11. Kondaira gertaera sail bati buruzkoa da eta hauetan hiru pertsona bakarrik aipatzen dira: dendako jabea, dirua eskatu zuen gizon bat, polizia bat.

## 17. Kondaira: erantzunen gakoa

1. Jabeak dendako argiak itzali ondoren gizon bat agertu zen. (¿? Ziur al zaude negozio gizona eta jabea pertsona bera direla? Hitz batzuek gauza jakin batzuei buruzko kontzeptuak edo ideiak biltzen dituzte, adibidez, «negozio gizona» «jabearekin» elkartzen da. Zergatik?)
2. Lapurra gizon bat zen. (¿? Lapurreta batez hitz egiten al da ezinbestez? Beste pertsona bat ezin al zitekeen izan dirua eskatzen zuena: jabearen semea, alogera kobratu behar zuen jabea...?)
3. Agertu zen gizonak ez zuen dirurik eskatu. (Faltsua. Agertu zen gizonak dirua eskatu zuen.)
4. Kaxa erregistratzailea ireki zuena jabea zen. (Egia. «Jabea»: mugatu singularra da. Beste inor ezin daiteke izan.)
5. Dendaren jabeak kaxa erregistratzaileko edukia hartu zuen eta korrika irten zen. (¿? Oso probablea denik ez iruditu arren, kondairak ez du ezinbestez baztertzen).
6. Norbaitek kaxa erregistratzaile bat ireki zuen. (Egia. Kondairak dio jabeak kaxa erregistratzailea ireki zuela.)
7. Lapurrak dirua eskatu zion jabeari. (¿? Lapurreta bat al da ezinbestez? Dirua eskatu zuena lapurra ez izatea gerta zitekeen.)
8. Egun argitan agertu zen gizona. (¿? Dendetako argiak eskuarki piztuta edukitzen dira egunez.)
9. Agertu zen gizonak kaxa erregistratzailea ireki zuen. (¿? Ez al zitekeen posible agertutako gizona jabea izatea?)
10. Inork ez zuen dirurik eskatu. (Faltsua. Kondairak dio agertu zen gizonak dirua eskatu zuela.)
11. Kondaira gertaera sail bati buruzkoa da eta hauetan hiru pertsona bakarrik aipatzen dira: dendako jabea, dirua eskatu zuen gizon bat, polizia bat. (¿? Jabea eta negozio gizona pertsona bera al dira ala bi pertsona ezberdin dira?, dendako jabea eta agertu zen gizona pertsona bera al dira ala bi pertsona ezberdin dira?)

## III. MODULUA
## Sentimenduen adierazpena eta ulerkuntza

### 18. SENTIMENDU SORTA

***Helburuak:***

— Gorputz adierazpenaren bidez era askotako sentimenduak (zoriontasuna, inbidia, tristura...) identifikatu.
— Sentimendu ezberdinen zergatiak analizatu.
— Sentimendu ezberdinek jokaeran dituzten ondorenez eta eraginaz hausnartu.
— Dramatizazio bidez emozioak adierazi.

***Jardueraren deskribapena:***

**1. fasea. Identifikazioa**: Talde osoaren laguntzarekin irakasleak arbelean idazten du kideek enuntziatu eta berak iradokitzen duen sentimendu zerrenda bat (alaitasuna-zoriontasuna; sorpresa-harridura; desatsegina-higuina; tristura-atsekabea; jeloskortasuna-inbidia; lotsa-aztoramendua; axolagabetasuna-asperra...). Ondoren, emozioen adierazpen ezberdineko aurpegiak dituzten lamina edo argazki ezberdinak erakusten zaizkio taldeari (zoriontasuna, tristura, inbidia, beldurra, sorpresa...) eta partaideek aurpegiek adierazten dituzten sentimenduak identifikatu behar dituzte. Laminak taldeari aurkezten zaizkio, partaide bakoitzak laminan adierazitako sentimendua zein den idazten du eta gero ozenki komentatzen da.

**2. fasea. Zergatiak eta ondorenak:** Taldea lau ekipotan zatitzen da eta ekipo bakoitzari sentimendu edo emozio bat izendatzen zaio. Ekipo bakoitzak, lehenik, sentimendu hori sortarazten duten zergatiak aipatu behar ditu (adostasunik bilatu gabe, ekipo bakoitzean sortzen diren erantzun guztiak islatu) eta, bigarrenik, sentimendu hori edukitzetik erator daitezkeen ondorenak. Ondoren, talde handian, azterturiko sentimenduaren zergati eta ondorenei buruzko bere ondorioak erakusten ditu ekipo bakoitzak; arbelean idazten dira eta erakutsitako ideietan oinarrituriko debate bat hasten da.

**3. fasea. Adierazpena**: Hirugarren fase honetan hasiera, garapena eta amaiera duten, eta pertsonaiak biltzen dituzten kondaira laburrak asmatzen dituzte ekipoek, pertsonaien artekoren batek landu den sentimenduetako bat erakusten duelarik. Kondaira hauek sintetikoki idazten dira, taldeak lantzen dituen bitartean. Ondoren, ekipo bakoitzak dramatizatu egingo ditu asmatutako kondairak, pertsonaien sentimenduak modu oso nabarmenean adieraziz. Dramatizazioak bostetik hamar minutura bitarteko iraupena izango du.

Oharrak:

— Irakaslea: Jarduera hau hainbat alditan egin daiteke, sentimendu ezberdinak proposatuz.
— Behatzailea: Aztertutako sentimenduen zergati eta ondorenei buruzko ekipo bakoitzaren erantzun orriak bildu. Era berean, ekipo bakoitzaren ondorioen agerpenetik eratorritako debateak jaso. Dramatizaturiko kondaira eta dramatizazio ondorengo debatea deskribatu.

| *Eztabaida:* | |
|---|---|
| 1. fasean, aurpegi adierazpen ezberdinetan erakutsitako emozioen identifikazioa eta argitzea.<br>2. fasean, landutako sentimenduen zergati eta ondorenei, sentimendu positiboak eta negatiboak sortarazten dituzten egoerei eta sentimendu horiek ebazteko moduei buruzko debatea.<br>3. fasean, asmatutako kondairei, haietan agertzen diren pertsonaien sentimenduei eta beren barneko eta kanpoko zirkunstantziei buruzko debatea. | |
| ***Materialak:***<br>Emozio ezberdinak adierazten dituzten pertsonaien aurpegiak agertzen dituzten lamina edo argazkiak. Emozio bat modu argian adierazten duen edozein irudi edo argazki hauta liteke.<br>Dramatizaziorako materialak. Boligrafoak. Folioak. Arbela. | ***Denbora:*** 2 ordu.<br>1. eta 2. faseetan: 45'<br>3. fasean: 1 or. 15'<br>***Talde egituraketa:*** TH-TT-TH. |

## 19. SENTIMENDUEN POLTSA

***Helburuak:***

— Hitz eginez emozioak adieraztea suspertu.
— Emozioen ondorenak aztertu.
— Emozio ezberdinak ebazteko modu egokiez hausnartu.

***Argibideak:***

Kubo batean papertxo multzo bat sartzen da, horietako bakoitzean emozio bat idatziz. Taldeko kide batek hiru papertxo aukeratzen ditu zoriz, hiru emozio edo sentimendu idatzita dituztenak. Kide guztiek hiru sentimendu horietako bat bizi izan zuten aukera bat idatzi behar dute. Ondoren, aukeratutako sentimendua bizi izan zuten egoera eta egoera horren aurrean nola erreakzionatu zuten azaltzen dute taldeko kideek. Egoera horri erantzuteko beste modu posibleei (egokiak, asertiboak) buruzko debatea irekitzen da.

Oharrak:

— Irakaslea: Aurretiko jardueretan ukitutako sentimenduak kontuan hartu, jarduera honetan eliminatzeko.
— Behatzailea: Taldeko kideek papertxoetan deskribaturiko egoerak bildu eta egunkariari erantsi. Debatean esandakoak idatzi.

***Eztabaida:***

Emozioen ondorenen eta erantzuteko modu egokien azterketan zentratzen da debatea.

***Materialak:***

Plastiko poltsa.
Bakoitzean sentimendu bat idatzia duten papertxoak.

***Denbora:*** 60'.

***Talde egituraketa:*** TH.

**Sentimenduen zerrenda**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Alai | Aspertua | Kritikoa | Lotsatua |
| Kitzikatua | Harroa | Gogaitua | Errukarria |
| Sumindua-Haserretua | Larritua | Lelotua | Asebetea |
| Lasai | Ulerkorra | Interesatua | Zoriontsua |
| Harritua | Bizia | Urduria | Pairamen gabea |
| Gorrotagarria | Axolagabea | Erruduna | Izutua |
| Atsekabetua | Barregarria | Txeratsua | Desilusionatua |
| Zapuztua | Asegabea | Harritua | Nekatua |
| Bekaiztia | Beldurtua | Ilusionatua | Lagunkoia |
| Goibel | Ausarta | Adore gabea | Ona |

## 20. BELDURRA

***Helburuak:***

- —Ikarazko, beldurrezko sentimenduak identifikatu eta adierazi.
- —Beldurraren zergatiak eta ondorenak eta sentimendu hori maneiatzeko modu egokiak aztertu.
- —Talde barneko komunikazioa sustatu.

***Jardueraren deskribapena:***

Jarduera honetan ondorengo faseok burutzen dira: lehenik, partaideek, talde handian, beldurra sortzen duten gauzak izendatu behar dituzte (bizitza erreala, telebista). Erantzun guztiak arbelean biltzen dira, eta ideien zurrunbiloaren fase hau amaitzean irakurri egiten dira. Bigarrenik, partaide bakoitzak orri batean marrazten du beldurtu duen gertaeraren bat, marrazkiaren edukia argituko duen esaldi bat azpian idatziz. Ondoren, denek marrazkia egin dutenean, estali egiten dute, eta batak bestearen atzetik beren marrazkiak taldeari erakutsi eta komentatzen dizkiote. Izena marrazkian jar dezaten gomendatzen da, geroago lan horiek aztertzeko. Ondoren, beldur baten aurrean eduki daitezkeen erreakzio edo jokaerei buruzko, hau da, beldurraren ondorenei buruzko debate bat hasten da. Eta azkenik, beldurren aurrean positiboki erantzuteko moduei buruz hausnartzen da: zer egin daiteke beldurrarekin?

Oharrak:

- —Irakaslea: Partaideak egokiro banatu gelan barrena, marrazkia kontzentrazioz egin dezaten (ikus adibidea 3. kapituluan, «Jardueraren ekoizpenak» epigrafea).
- —Behatzailea: beldurra sortzen duten egoeren zerrenda, sentimendu haren ondorenak eta hari aurre egiteko debatean iradokitzen diren estrategiak idatzi. Marrazkiak bildu, ondoren aztertzeko.

***Eztabaida:***

Beldur sentimenduen zergati, ondoren eta ebazte moduen inguruan gertatzen da debatea. Jardueraren ondoriozko osagai batzuk hauek izan litezke: guztiok gauzen aurrean beldur ezberdinak sentitzen ditugula ezagutu. Beldur batzuk arrazionalak dira eta besteak irrazionalak, baina irrazionalak ere besteak bezain kezkagarriak dira. Garrantzitsua da beldurrak konpartitzea, epaitu gabe. «Beldurrak gauza izugarriak asmatzen ditu, beldurra gure irudimenak, gure fantasiak, norberaren segurantzarik ezak probokatzen du... gauzak okerrago ikusten ditugu beldurra sentitzen dugunean, beldurra sentitzean geure burua animatu beharra daukagu...» bezalako mezuek lagun dezakete emozio hori kontrolatzen.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
|---|---|
| Folioak, margoak, arkatzak. Arbela. | ***Talde egituraketa:*** TH-BA-TH. |

## 21. HASERREA

***Helburuak:***

- Haserre, amorru, erasokortasun sentimenduak identifikatu eta adierazi.
- Sentimendu erasokorren zergatiak eta ondorenak eta sentimendu horiek maneiatzeko modu egokiak aztertu.
- Talde barneko komunikazioa sustatu.

***Jardueraren deskribapena:***

Haserrearen sentimenduarekin lan egiteko aurreko jardueraren antzeko prozedura bat jarraitzen da, ondorengo fase hauek burutuz: lehenik, talde handian, haserrea, amorrua eta erasokortasuna sortarazten dituzten egoera konkretuak izendatzen dira. Erantzun guztiak arbelean biltzen dira eta ideien zurrunbilo hau amaitzean irakurri egiten dira. Bigarrenik, amorrua, erasokortasuna sortarazi dion gertaeraren bat marrazten du partaide bakoitzak orri batean, marrazkiaren edukia argituko duen esaldi bat azpian idatziz. Taldeko kideak sentimendu hori bizi izan duen egoera pertsonal konkretu bati buruzkoa behar du izan. Guztiek marrazkia egin dutenean, estali egiten dute eta batak bestearen atzetik beren marrazkiak taldeari erakutsi eta komentatzen dizkiote. Izena marrazkian jar dezaten gomendatzen da, geroago lan horiek aztertzeko. Hirugarrenik, sentimendu horretatik erator daitezkeen jokaerez, hots, haserrearen ondorenez hausnartzen da. Azkenik, haserrea eragin duten egoera konkretuetako batzuk aukeratzen dira eta taldeko kideek haiei erantzuteko moduak izendatu behar dituzte. Partaideek haserrea adierazteko modu ezberdinak izenda ditzaten sustatzen da, emozio hori sortarazi duen egoera konkretu bakoitzaren aurrean sentimendu horiek maneiatzeko modu positiboak (bestea iraintzen ez dutenak) argituz.

Oharrak:

- Irakaslea: Partaideak egokiro banatu gelan barrena, marrazkia kontzentrazioz egin dezaten (ikus adibidea 3. kapituluan, «Jardueraren ekoizpenak» epigrafea).
- Behatzailea: haserrea sortarazten duten egoeren zerrenda, sentimendu haren ondorenak eta hari aurre egiteko debatean iradokitzen diren estrategiak idatzi. Marrazkiak bildu, ondoren aztertzeko.

***Eztabaida:***

Haserre sentimenduen zergati, ondoren eta ebazte moduen inguruan gertatzen da debatea. Jardueraren ondoriozko osagai batzuk hauek izan litezke:

- Amorruzko sentimenduak gizaki guztiengan gertatzen direla onartu.
- Sentimendu hauek modu moldakorrean, asertiboan, hau da, norbere eskubideak zainduz baina besteari kalterik egin gabe adieraztearen garrantziaz jabetu. Asertiboki erantzutea, besteari irainik edo minik egin gabe norbere sentimenduak adieraztea da; horretarako formula hau erabil liteke: ... sentitzen naiz, ...-lako.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
|---|---|
| Folioak, margoak, arkatzak. Arbela. | ***Talde egituraketa:*** TH-BA-TH. |

## 22. EREDUAK

***Helburuak:***

— Emozioak identifikatu eta adierazi: alaitasuna, haserrea, nagusitasuna, menpekotasuna, erasokortasuna, maitasuna, beldurra, konfiantza, mesfidantza, inbidia, higuina, goibeltasuna, lasaitasuna, artegatasuna-urduritasuna, axolagabekeria, sorpresa, sinpatia...

***Jardueraren deskribapena:***

1. fasea: Gorputzez eta hitzez adierazten dute emozioa: Lehen fase batean gutxi gorabehera hamar jokalariko taldetan zatitzen da taldea. Ekipoko kide guztiak zutik jartzen dira posizio zirkularrean. Bata bestearen atzetik zirkuluaren erdira irteten dira eta pertsonalki aukeratutako sentimendu bat gorputzez adierazten dute eta hitz bakar batez iragartzen (alaitasuna, haserrea, nagusitasuna, menpekotasuna, erasokortasuna, maitasuna, beldurra, konfiantza, mesfidantza...). Taldeko beste kideek eredua behatzen dute eta adierazpen modua ahal den leialtasun handienaz errepikatzen saiatzen dira.

2. fasea: Gorputzez emozioa adierazi eta adierazitako emozioa zein den atzeman behar dute. Ondoren, talde handian biltzen dira eta txandaka zirkuluaren erditik irteten dira partaideak, sentimendu bat adierazten dute eta beste adiskideek adierazitako sentimendua zein den atzeman behar dute.

3. fasea: Emozio bat aipatu eta berezkotasunez adierazten da. Hirugarren une honetan irakasleak emozio bat aipatzen du eta taldeko kide bakoitzak bere modura adierazten du.

Oharra:

— Behatzailea: Taldeko kideen adierazkortasun maila eta debate fasean egindako iruzkinak egunkarian deskribatu.

Aldaera:

— *Non dago zure bikotekidea?:* Irakasleak emozio bat izendatzen die bi nerabeei, beren bikotekidea nor den bietako inork jakin gabe. Gero, gelan zehar lekualdatu, emozio hori adierazi eta emozio bera adierazten duen adiskidea aurkitu behar dute.

***Eztabaida:***

Zaila gertatu al da eredua imitatzea? Zer-nola gertatu da gorputz adierazpenetik abiatuta sentimendua igartzea?

Aldaera: Zaila al da emozioa adierazi eta adiskidea aurkitzea?

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'.<br>***Talde egituraketa:*** TT-TH. |
|---|---|

## 23. OSATU GABEKO ESALDIAK

***Helburuak:***

- Gizarte elkarreragineko egoera ezberdinetan sentimenduak identifikatu eta analizatu.
- Talde barneko komunikazioa sustatu.
- Gizarteko egoera ezberdinei aurre egiteko jokaera eraginkor eta egokiei buruz hausnartu.

***Jardueraren deskribapena:***

Osatu gabe dauden esaldien multzo bat duen orri bat jasotzen du partaide bakoitzak. Esaldiak irakurtzean burura lehenik datorkienarekin orriak osatzean datza lana. Ondoren, gelako zoruan enbalatzeko paper plegu batzuk kokatzen dira, eta bakoitzaren goialdean landutako esaldien hasiera jartzen da (taldeko kide guztien erantzunak biltzeko adina luzera eduki behar du). Ondoren, osatu gabeko esaldiei emandako erantzunak idazten dituzte partaideek paper pleguetan. Pleguen prozedura aukera liteke, edo baita ere, irakasleak ozenki irakur ditzake taldearen erantzunak. Azkenik, pleguak beteak daudenean, talde handian, taldeak osotasunean esaldi bakoitzari emandako erantzunak irakurtzen ditu irakasleak eta agertutako edukien ondorioen sintesi bat egiten da (taldea oso kopurutsua bada eta osatu gabeko esaldi asko hartzen badira, emaitzen azterketa prozesurako eduki esanguratsuagoak dituzten esaldi batzuk aukera litezke). Gizarte egoeren aurrean partaideen emozioak agerian jarri ondoren, egoera horri erantzuteko jokaera egokien motei buruzko debatea irekitzea garrantzitsua da, adibidez, nola eman ezezkoa bestea zauritu gabe, nola kontsolatu atsekabetua dagoen bat, nola aurre egin kritika bati...

Oharrak:

- Irakaslea: Proposatzen diren osatu gabeko esaldiak adibide moduan emandako iradokizun bat besterik ez dira. Eskuerara duten denboraren eta ukitu nahi diren gaien arabera aukeratu esaldi kopurua (ikus adibidea 3. kapituluan, «Jardueraren ekoizpenak» epigrafea).
- Behatzailea: Banaka egindako osatu gabeko esaldiak jaso, ondoren aztertzeko. Debate fasean esandakoak idatzi.

***Eztabaida:***

Esaldi bakoitzari emandako erantzunak aztertu ondoren planteatzen da eztabaida. Taldeak agertutako edukien ondorioen sintesia izango da elkarrizketaren antolaketaren ardatza. Taldeko kideek egoera bakoitzean agertutako edukiak aztertu ondoren, «planteaturiko gizarte egoerei erantzuteko modu eraginkor eta egokiak» proposatzera bultzatzen da taldea.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60' (4-5 esaldi). |
|---|---|
| Osatu gabeko esaldiak eta boligrafoak (partaide bakoitzeko bana). Enbalatzeko paper pleguak eta errotuladoreak (egindako esaldi bakoitzeko bana) | ***Talde egituraketa:*** BA-TH. |

## 23. Osatu gabeko esaldiak

| | |
|---|---|
| Norbaiti ezezkoa eman behar diodanean | ....................... sentitzen naiz. |
| Norbait nirekin haserretzen denean | ........................... sentitzen dut. |
| Nirekin dagoen norbaitek negar egiten duenean | ............... sentitzen naiz. |
| Zoriontsu naiz | .......................................... -ean (noiz). |
| ............................................. | -ren (zeren) beldur naiz. |
| Gehien desiratzen dudana | .............................................. da |
| Konplimendu edo laudorio bat egiten didatenean | ......................... |
| Taldeko adiskideren batek baztertzen nauenean | ............... sentitzen naiz. |
| Norbait kritikatzen dudanean | ............................... sentitzen naiz. |
| Norbaitek iraintzen edo erasotzen nauenean | ................. sentitzen naiz. |
| Bakarrik nagoenean eskuarki | ........................................... |
| Talde berri batean nagoenean | ........................................... |
| Talde honetatik kezkatzen nauena | ....................................... |
| Orain berton | ........................................... sentitzen naiz. |
| Gustatuko litzaidake | ................................................ |
| Norbaitek kritikatzen nauenean | ............................ sentitzen dut. |
| Talde batean isilik nagoenean | ............................ sentitzen naiz. |
| Norbaitekin haserretzen naizenean | ......................... sentitzen dut. |
| Ikasturte hasieran ikasgela berri batean aurkitzen naizenean | ....... sentitu ohi dut. |
| Denak isiltzen direnean, | ................................ sentitu ohi dut. |
| Gogaitua sentitzen naiz irakasleak | ............................ -ean (noiz). |
| Ikasgela batean beldur gehien ematen didana | ......................... da. |
| Norbait zauritua sentitzen denean nik | ................................... |
| Niri ikasgelan min gehiena ematen didana | ............................... |
| Talde batean bakardade handiena sentitzen dudan unea | ......... -ean (noiz) da. |
| .................................... | duten (diren) haietaz fidatzen naiz. |
| Gustatzen zait irakasleak | ............................................. |
| Norbaiti konplimendu bat egiten diodanean | ............................. |
| Nik besteengandik | ............................................ espero dut. |

## 24. IRUDIAK

***Helburuak:***

- Norbere buruarenganako sentimenduak argituz norberaren ezagutza gehitu.
- Besteek sortarazten dituzten sentimenduei buruz hausnartu.
- Norbere buruarenganako eta besteenganako sentimenduek jokaeran duten eragina aztertu.

***Jardueraren deskribapena:***

32 sentimenduen (16 positiboak eta 16 negatiboak) zerrenda bat ematen zaie partaideei, irakur dezaten eta beren buruarekiko sentimendu horiek dituzten maiztasunaren arabera hiru zutabetan taldeka ditzaten. Ondoren, sentimendu horiek besteekiko zein maiztasunekin dituzten adierazi behar dute beste erregistro orri batean. Azkenik, banaka aztertzen dituzte erantzunak, beren buruarekiko eta besteekiko eskuarki zer sentimendu mota dituzten argituz. Beren burua deskribatzeko erabili dituzten sentimendu positibo eta negatiboen kopuruaren zenbaketa batez egin dezakete hau. Banakako hausnarketaren ondoren debatea hasten da, eztabaida atalean iradokitako galderetan oinarriturik.

Oharrak:

- Irakaslea: Une ezberdinetan egin daiteke jarduera hau, eta norberaren irudiaren eta besteen irudiaren aldaketak azter daitezke. Informazio esanguratsua aztertu (maiztasun handiko sentimendu negatiboak eta maiztasun txikiko sentimendu positiboak).
- Behatzailea: Partaide bakoitzaren erregistro orriak bildu, ondoren aztertzeko. Debate fasean esandakoak eta nabarmendutako ondorioak idatzi.

***Eztabaida:***

Zeuon buruak hobeto ezagutzen eta besteei buruz duzuen irudia argitzen lagundu al dizue ariketa honek? Oro har, positiboak ala negatiboak dira zeuon buruarekiko eta besteekiko dituzuen sentimenduak (maiztasun handiko sentimendu negatiboen eta maiztasun gutxiko edo nuluko sentimendu positiboen kopuruaren kontaketa)? Ze ondoren ditu geure buruarekiko eta besteekiko sentimendu positiboak edo negatiboak edukitzeak? Zein faktorek, zein gertakarik eragiten dute geure buruaz eta besteez dugun irudian? Nondik datoz geure buruaz eta besteez ditugun irudiak? Ditugun sentimenduek zein modutan baldintzatzen edo eragiten dute gure jokaera?

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
|---|---|
| Sentimenduen zerrenda. Erregistro orriak: 1 eta 2 erregistro orriak (partaide bakoitzeko bana) | ***Talde egituraketa:*** BA-TH. |

## 24. Irudiak. Sentimenduen zerrenda

| | | | |
|---|---|---|---|
| Alai | Aspergarria | Interesatua | Lotsatua |
| Sumindua-Haserretua | Harroa | Erruduna | Errukarria |
| Lasai | Larritua-Urduria | Txeratsua | Asebetea |
| Harritua | Ulerkorra | Ustekabean harrapatua | Zoriontsua |
| Gorrotagarria | Bizia | Ilusionatua | Desilusionatua |
| Zapuztua | Barregarria | Adoregabea | Nekatua |
| Bekaiztia | Ase gabea | Ausarta | Lagunkoia |
| Goibela | Ikaratua-Berdurtia | Amultsua | Ona |

## 24. Irudiak. 1. erregistro orria

Neure buruarekiko sentimendu hauek ditut: … sentitzen naiz

| Askotan | Batzuetan | Inoiz ez edo ia inoiz ez |
|---|---|---|
| | | |

## 24. Irudiak. 2. erregistro orria

Besteekiko sentimendu hauek ditut: besteak … sentitzen ditut

| Askotan | Batzuetan | Inoiz ez edo ia inoiz ez |
|---|---|---|
| | | |

## 25. ARAZO DIREN EGOERAK

***Helburuak:***

- —Taldeko kideentzat arazo diren egoerak identifikatu.
- —Egoera jakinei elkarturiko emozio negatiboak adierazi eta ulertu.
- —Talde barneko komunikazioa sustatu: entzute aktiboko azturak garatu.
- —Laguntzako harremanak suspertu.
- —Sentimendu negatiboak sortarazi dituzten egoera arazotsuei soluziobide posibleak bilatu: arazoen ebazpena.

***Jardueraren deskribapena:***

Taldeko kide bakoitzak, banaka eta modu anonimoan, «sentimendu negatibo bat eduki duen edozein motatako egoera arazotsua» paper puska batean deskribatzen du. Lehen pertsonan eta hizki larriez deskribatu behar du, idatzi duena nor den ezkutatzeko.

Bigarrenik, paperak tolestatzen dira, poltsa batean nahasten dira eta partaide bakoitzari paper bana ematen zaio (berak idatzitako papera egokitzen bazaio, poltsara itzultzen da eta beste bat hartzen da). Partaide bakoitzak egokitu zaion papertxoa irakurtzen du eta idatzi duen pertsonaren azalean sartzen da, arazoa bere eginez. Irakurri ondoren, bere ustez arazoa nola ebatziko lukeen idatziko du minutu batez (lehen pertsonan idatziz).

Honela, egoera horren soluziobideak pentsatzen ditu irakurleak, egoeran inplikatua balego bezala, eta paperean idazten ditu. Beren papertxoan planteatutako egoeraren soluziobideak idatzi dituztenean, taldeko lehenak ozenki irakurtzen ditu lehen pertsonan planteaturiko arazoa eta pentsatu dituen soluziobideak. Taldeko gainontzekoek egokiak iruditzen zaizkien soluziobideak iradokitzen dituzte. Egoerari aurre egiteko beste moduak agertzen badira, papertxoan eransten dira. Horrela, jarraian, taldeko kide guztiak mintzatzen dira.

Aldaera:

- —Arazo diren egoera guztiak poltsa batean sartzen dira, irakasleak txandaka papertxoak ateratzen ditu, aukeratutako soluziobidea irakurtzen du eta, talde handian, egoerari erantzuteko modu posibleak komentatzen dira.

Oharrak:

- —Irakaslea: Denbora gutxi dagoenean erabil daiteke aldaera. Kasu horretan ez dira ukitzen taldeko kideek planteaturiko egoera guztiak, zoriz aukeratutako egoera ezberdinak baizik. Gainontzeko egoerak ondorengo saioetan komentatuko dira.
- —Behatzailea: Arazo diren egoeretan deskribatzen diren paperak eta haiek ebazteko moduak bildu. Debatean esandakoak idatzi.

***Eztabaida:***

Debate fasean, taldeko kideek planteaturiko egoera arazotsu ezberdinak, antzeko egoera konkretuei lotuta daudenak (neba-arreben arteko etsaitasuna, berdinen taldeko onarpen gatazkak...) batera trata litezke. Zeintzuk izan dira planteaturiko egoera arazotsuak? Ze soluziobide eman dira? Nola sentitzen gara gure arazoak deskribatzean? Nola sentitzen gara bestearen arazoa agertzean? Nola sen-

| | |
|---|---|
| titzen gara beste batek gure arazoa kontatzen duenean? Besteak ongi ulertu al du zure arazoa? Bestearen arazoa ongi ulertu al dugu? Baliagarriak izan al dira bakoitzak planteaturiko egoera ebazteko iradokizunak? Besteen iritzi eta esperientziak lagungarriak al dira? Zeintzuk dira maiztasun gehienez nabarmendu diren egoerak? Oro har zein egoerek sortarazten dituzte emozio negatiboak? | |
| ***Materialak:***<br>Folioak eta boligrafoak | ***Denbora:*** 90'.<br>***Talde egituraketa:*** BA-TH. |

## 26. OBJEKTUEN LEKUTZEA

***Helburuak:***

— Hitzezko argibideen bidez laguntzako harremanak suspertu.
— Besteenganako konfiantza sustatu.
— Talde barneko komunikazioa bizkortu: Entzute aktiboko azturen garapena.

***Jardueraren deskribapena:***

Taldea bikotetan banatzen da, batek itsuaren rola eta besteak gidaren rola antzeztuz. Ikasgelan zehar objektu ezberdinak kokatzen dira (batzuk partaide bakoitzeko). Gidak hitzezko argibideak eman behar dizkio itsuari; honek gelan barreiaturiko objektuen kopururik handiena jaso eta zakar poltsa batean sartuko ditu. Bi minutu iragan ondoren, itsuek begiak irekitzen dituzte eta rolak alderantzikatzen dira, berriro ere bi minutuz jokatuz. Prozedura honekin bi edo hiru erronda egiten dira, bikote bakoitzak joko jarraikorretan bildutako objektuen kopuru osoa apuntatuz.

Oharrak:

— Irakaslea: Espazio gutxi baldin badago, jarduera bi txandatan egiten da, batak bestearen atzetik jokatzen duten bi ekipotan taldea zatituz.
— Behatzailea: Jokoak sortarazitako eztabaidaren eta talde dinamikaren hitzezko edukiak idatzi (laguntzako harremanak = hitzezko argibide egokiak gogotsuki ematen dituzte; konfiantza = itsu mantentzen dira).

Aldaera:

— *Helmuga:* Ikasgelako espazioan zehar hainbat oztopo kokatu ondoren, partaideak bikotetan banatzen dira: bat gida izango da eta bestea itsua. Gidak irteera lerroan mugitu gabe gelditzen dira eta beren adiskide itsuei hitzezko argibideak eman behar dizkiete espazioan zehar orienta daitezen. Itsuek ikasgela zeharkatuz helmugara heldu behar dute eta jarritako oztopoak ekidin edo saihestu behar dituzte bakoitzari bere gidak oihuka emandako argibideak jarraituz. Gero rolak aldatu egiten dira.

***Eztabaida:***

Zaila gertatzen al zen hitzezko argibideak emanez adiskideari laguntzea? Okasio batzuetan, zaila gertatzen al zen ematen zizkiguten hitzezko argibideak jarraitzea? Zenbat objektu jaso ditu bikote bakoitzak? Zein faktorek eragin dute bikote batzuek objektu asko bil zitzaten? Nola sentitzen ginen itsuaren rolean?

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
|---|---|
| Partaideko objektu sail bat (zurezko takoak, boligrafoak, pilotak, oihalak, makilak, boloak...) eta bikoteko zabor poltsa bat. | ***Talde egituraketa:*** BI-TH. |

## 27. HIZKI ZOPA

***Helburuak:***

- —Talde barneko laguntza eta lankidetza harremanak suspertu, talde arteko lehiaketarekin.
- —Onarpenaren eta partaide izatearen sentimendua sustatu, guztien partaidetza beharrezkoa baita jarduera burutzeko.
- —Taldearen lotura sustatu.

***Jardueraren deskribapena:***

Taldea bi ekipotan zatitzen da, eta bakoitzari alfabetoko hizki guztiak dituen txartel joko bat banatzen zaio (txartel bakoitzak alfabetoko hizki bat du. Ekipoa osatzen duten partaideen kopuruaren arabera, partaide bakoitzak txartel bat edo bi jasoko ditu). Ekipo bakoitza irakaslearen albo batean jartzen da. Honek hitzak esango ditu eta talde bakoitzak, ahal duen abiadura handienaz, hitza osatu behar du, txartel hizkidunak daramatzaten jokalariak ordenatuz. Hitza eraiki eta ekipoko kideen aurrean kokatu behar dute. Esandako hitza lehenik eratzen duen ekipoak bost puntu irabazten ditu. Partaide guztiak hitza osatzeko gutxienez behin erdira irten direnean, jokoa amaitu egiten da.

Hitzen zerrenda:

Dema. Birusa. Metroa. Fusila. Eskua. Horixe. Whiskya. Geruza. Ziega. Jela. Ordua. Fina. Ospea. Tela. Hortza. Kortxea. (Partaide guztiek uneren batean eskuhartzea ahalbidetzen dute hitz hauek, alfabetoko hizki guztiak jasotzen dituztelako).

Jokatzen jarraitzeko beste hitz batzuk: Gidatu. Goma. Hegoa. Fina. Idunekoa. Jantzi. Kirola. Hartu. Sei. Kutxiloa. Zopa. Huraxe. Hortxe. Ortzia. Behia.

Oharrak:

- —Irakaslea: Proposamen bezala iradokitzen diren hitzen zerrendan, taldeko kide guztiek esku hartu behar dute, gutxienez hitz bat osatzen.
- —Behatzailea: Ekipoen jokaerak eta jardueraren talde dinamika idatzi, eta debatean esandakoak ere bai.

***Eztabaida:***

Libertitua gertatu al da? Norberaren ekipokoekin lankidetzan jardutea erraza gertatu al da? Beste ekipo batekin lehian jarduteak motibaziorik ematen al zion jokoari? Zer sentimendu edukitzen da irabazten denean eta galtzen denean?

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
|---|---|
| Bi txartel sorta, dagozkien alfabetoko hizkiekin. | ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |

## 28. HORMA-IRUDIAK

***Helburuak:***

— Laguntzako harremanak eta talde barneko lankidetza sustatu.
— Gizartearen alderako jokaeren behaketa eta hausnarketarako gaitasuna sustatu.
— Onarpen eta taldekoa izatearen sentimendua suspertu.

***Jardueraren deskribapena:***

Bospasei partaideko ekipoak eratzen dira. Aldizkarien zatiak ebakiz horma-irudiak egin behar ditu lankidetzan ekipo bakoitzak, elkarri laguntzen dioten pertsonak, lankidetzan lanean ari diren taldeak edo besteekiko interesa agertzen duten pertsonen egoerak errepresentatzen dituzten irudiak aukeratuz. Erabiliko dituzten laminak, argazkiak edo elementuak aukeratu behar dituzte lehenik. Geroago, aukeratutako irudi edo elementuen antolamenduari dagokionez ados jarri behar dute, horma-irudiaren oinarri bezala erabiltzen diren kartoi meheei azkenean eransteko. Azkenik, erantsitako argazkiei izenburuak jartzen dizkiete eta izenburu orokor bat horma-irudi osoari.

Horma-irudi guztiak egindakoan, ekipoak lekualdatu egiten dira gainontzeko adiskideen horma-irudiak behatzeko.

***Eztabaida:***

Lankidetza prozesuari buruzko galderak: Jarduera burutze prozesua nola gertatu da? Zailtasunen bat egon al da? Nola erabaki da? Egin duzuen horma-irudiarekin asebeteak al zaudete? Guztiok esku hartu al duzue ala norbaitek ez du esku hartu horma-irudia burutzen? Erraza izan al da besteekin ados jartzea?

Emaitzari buruzko galderak: Zer dute komunean egoera hauek? Zerk bereizten ditu egoera lehiakorretatik? Nola sentitzen dira laguntzen dutenak? Eta laguntza jaso dutenak? Zer zailtasun daude lankidetzan lan egiteko? Nola konpon litezke?

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
|---|---|
| Kartoi mehe zuriak, aldizkariak, argazkiak, egunkariak, guraizeak, kola, margoak, errotuladoreak eta sartu nahi diren beste materialak. | ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |

## 29. GIDOIA

***Helburuak:***

— Laguntza eta lankidetza harremanak suspertu.
— Talde barneko komunikazioa sustatu: Aktiboki entzuteko azturak garatu.
— Onarpen eta taldekoa izateko sentimendua sustatu.
— Dramatizazio bidez emozioak adierazi.

***Jardueraren deskribapena:***

Sei-zazpi partaideko ekipoak eratzen dira lehenik, eta partaide bakoitzari argazki ezberdin bat ematen zaio. Argazki iradokitzaile batetik abiatuz, ekipo bakoitzak kondaira bat eraiki behar du, hasiera, garapena eta amaiera dituena. Eraikuntza honek lankidetzazkoa izan behar du, hau da, kide guztiek ekarpenen bat egin behar diote kontatutako kondairari. Ekipoko kide bakoitzaren ekarpena modu arbitrarioan egin daiteke edo kide bakoitzak informazioa modu ordenatuan, hots, txandaka eransteko moduan arautu liteke. Ondoren, ekipoek dramatizatu egiten dituzte landutako kondairak. Azkenik, ekipo bakoitzak bere irudia erakusten du, gauzatu duen kondaira kontatzen du eta debatea hasten da.

Oharrak:

— Irakaslea: Argazkiak taldean landu nahi diren edukien arabera aukeratu. Marjinazio, diskriminazio, inguruaren hondamendi, arrazismo... egoerak nabarmenduko dituzten irudien aukeraketa gomendatzen da programa honetan. Dramatizazioa burutu aurretik kondaira on bat idaztearen garrantzia azpimarratu. Eskaintzen diren argazkien arabera, proposaturiko gaiak edo une horretan taldearen interesekoak izan daitezkeen beste batzuk (sexua, familia, drogak, lagunak...) landu daitezke (ikus adibidea 3. kapituluan, «Jardueraren emaitzak» epigrafean).
— Behatzailea: Ekipoek landutako kondairak bildu. Debatean esandakoak jaso.

***Eztabaida:***

Guztiok jardun al zarete elkarlanean? Zer iruditu zaizkizue zuen adiskideen kondairak? Elkarri entzun al diozue? Koherenteak izan al dira gauzatu dituzuen kondairak, pertsona bakarrak eginak izan balira bezain koherenteak? Arazorik izan al da? Zeintzuk? Nola konpondu dira? Ekipoak landutako kondaira ezberdinetan nabarmendutako gaien inguruan ireki liteke debatea.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 1 or. 30'. |
|---|---|
| Argazki batzuk (ekipoko bana). Folioak. Boligrafoak. Dramatizaziorako materialak. Erabilitako argazkien adibideak ikusi. | ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |













## 30. PRESOA ASKATU

***Helburuak:***

— Lankidetzarako estrategien laguntza eta garapenerako harremanak suspertu.
— Onarpen sentimendua eta taldeko partaide izatearen sentimendua sustatu.

***Jardueraren deskribapena:***

Zoriz aukeratutako partaideetako batek presoarena egiten du. Presoa zirkulu zabal baten erdian kokatutako aulki bati lotua dago (erraz askatzen den zapi batez). Bere eskuak buruan jartzen ditu eta ezin erabil ditzake bere burua askatzeko. Aulkiarekin altxatu eta zirkulutik irten ere ezin daiteke egin.

Beste jokalariak askatzaileak dira, eskua bizkarrean lotua daramate eta gerrian bizitza errepresentatzen duen zapi bat. Espetxezainak zapia kentzen badio, askatzailea hil egiten da. Askatzaileek ezin diote espetxezainari heldu edo hura jo, bultza bakarrik egin dezakete. Espetxezainak (txandakako rola) presoaren askapena ekidin behar du eta askatzaileei zapiak kentzen saiatzen da, zirkulutik irten gabe.

Askatzaileek presoa askatzea lortzen badute, rolak aldatu egiten dira, beste espetxezain bat aukeratzen da zoriz eta erronda batzuk egiten dira.

Oharra:

— Behatzailea: Erronda bakoitzeko hildako kopurua, taldeko kideen laguntza jokaerak eta taldeko dinamika orokorra idatzi, eta baita eztabaida edo debate fasean esandakoak ere.

***Eztabaida:***

Nola lortu da presoak askatzea? Zein estrategia izan dira baliozkoenak? Zenbat hil dira presoa askatzen lagundu nahian? Laguntza emateko arriskatzea erraza al zen? Debatea eratu daiteke presoa askatzen lortutako arrakastaren eta erronda bakoitzean askatzaileek erabilitako prozeduraren (banakakoa zein lankidetzakoa) arteko alderaketaren inguruan.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
| --- | --- |
| Zapiak (partaideko bat). Aulki bat, zirkulua markatzeko klera bat eta presoa lotzeko zapi handi bat. | ***Talde egituraketa:*** TH. |

## 31. LANKIDETZA TANGRAM-A

***Helburuak:***

- Laguntza eta lankidetza harremanak sustatu.
- Adostasunez erabakiak hartzeko talde barneko komunikazioa bultzatu.
- Onarpenaren eta taldeko kide izatearen sentimendua suspertu.
- Pentsamendu sortzailearen garapena sustatu.

***Jardueraren deskribapena:***

Lau partaideko ekipoetan zatitzen da taldea jarduera honetan. Ekipo bakoitzak Tangram joko bat jasotzen du, kide bakoitzari berdintasunean zazpi pieza banatuz. Jokalari guztien piezak konbinatuz eta piezarik batere utzi gabe irudiak gauzatzean datza ariketa. Lehen errondan talde bakoitzari eman dakioke egin behar duen irudiaren eredua. Bigarren errondan eska daiteke jokalariak komunika daitezela zein edo zeintzu irudi egin behar dituzten erabakitzeko eta jokalari guztien lankidetzaz irudiak egiteko prozedura adostu dezaten. Egin behar duten irudiari eta jarraitu behar duten prozedurari buruzko erabakia adostasunez hartu behar da. Irudiak lankidetzan egiten 30-40 minutu igaro eta gero, ekipo bakoitzak beste adiskideen lanak behatzen ditu eta debatea hasten da.

Oharrak:

- Irakaslea: Jatorrizko Tangram-ak erabil daitezke edo lau koloretan plastifikaturiko kartoi mehearekin joko ezberdinak gauzatu (jokoen kopurua partaideen arabera).
- Behatzailea: Taldeetan erabakiak adostasunez, gehiengoz edo kideren baten ezarpenez hartzen diren, gatazkak agertzen diren ala ez eta nola konpontzen diren, denek esku hartzen duten ala norbait kanpoan gelditzen den, talde bakoitzak jarraitu duen buruketarako prozesua, debate fasean esandakoak... idatzi.

***Eztabaida:***

Denok esku hartu al duzue egin beharreko irudia erabakitzen? Zer ekarpen egin dizue talde barneko komunikazioak? Zer prozedura jarraitu duzue jokoa egiteko (piezak ordenan jartzea, modu arbitrarioan jartzea...)? Denok esku hartu al duzue irudia egiten? Zailtasunik izan al da taldean (norbaitek bere ideiak taldeari ezartzea nahi zuen...)? Zeintzuk? Nola gainditu dira?

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
|---|---|
| Lau partaideko Tangram joko bat (28 pieza). | ***Talde egituraketa***: TT-TH. |

## 32. BAHIKETAREN MISTERIOA

***Helburuak:***

- —Talde barneko laguntza eta lankidetza harremanak suspertu.
- —Talde barneko komunikazioa sustatu: Entzute aktiborako azturen garapena.
- —Talde barneko integrazioa sustatu: guztien esku-hartzea bultzatu.
- —Taldearen erantzukizuna inplikatzen duten egoerak egituratu.
- —Onarpen eta talde batekoa izate sentimendua sustatu.
- —Berbazko arrazonamendu logikoa suspertu.

***Jardueraren deskribapena:***

Honako argibide hauek ematen dira jokoan: «Parisetik Bilbora hegan zetorren hegazkin bat bahitu zuten. Susmagarrien artean bahitzailea ziur aski nor den aurkitzean datza jokoa». Horretarako, taldeko jokalari bakoitzak informazio-ohar bat jasotzen du (informazio zati bat duen txartel bat), hegazkinaren bahitzailea aurkitzeko baliagarria izan daitekeena ala ez. Jasotako informazioa aztertu eta erantzun zuzenera elkarrekin heltzean datza jokoa. Jokalariek eztabaida dezakete jasotako informazioa, baina ezin diete erakutsi edo eman txartela taldeko kideei. Bestearen txartela ez ikustea joko honetan jarraitu behar den arau garrantzitsu bat da. Partaide bakoitzak hitzez eman behar du informazioa, berak nahi duenean edo besteek eskatzen diotenean. Taldeak aukera ditzake antolamendu mota ezberdinak, adiskide bati eska diezaioke taldearen ondorioak eta arrazoiketak apuntatzeko idazkariarena egitea, baina inolaz ere ezin zaio informazio txartela lagun bati eman. Lankidetzan aurkitu behar duten misterio honi buruzko informazioaren zati bat eduki behar du partaide bakoitzak.

Jokoak 13 informazio pista ditu, taldearen tamainaren arabera jokalari bakoitzeko txartel bat banatuz. Txartel bakoitzean agertu behar duten pistak «*Bahiketaren misterioa* jokoaren pista informatiboak» atalean deskribatzen dira.

Oharrak:

- —Irakaslea: Jokoak zailtasun maila garaia duenez, ekipoek pista guztien lehen irakurketa bat egin ondoren prozeduraren alderdi batzuk iradokitzea komenigarria gertatzen da adin hauetan (adibidez, pertsonaien izenak argi eduki, taldeko kideen pista informatiboen arabera izenak baztertzen joan, idazkari bat aukeratu...). Dena den, komenigarria da taldeko kideek denbora batez lanari beren baliabide propioekin aurre egitea. Denbora baten ondoren ekipoen komunikazioan blokeo indartsuak ikusten badira, laneko prozedura inplizituak modu egokian egituratzea erraztuko duten antolamendu pista batzuk eman litezke.
- —Behatzailea: jokoan zehar agertzen diren eta elkarrizketa-gai (ikus eztabaida) izango diren jokaeraren alderdiak idatzi, oro har, jokoaren ondoriora heltzea laguntzen edo zailtzen duen guztia, jokoaren soluziobidea eskatzerainoko nahastea edo frustrazioa dagoen... Debate edo eztabaida fasean esandakoa transkribatu.

***Eztabaida:***

Informazioa konpartitzeko egin dutenaren antolamenduaren eta azterketaren inguruan planteatzen da elkarrizketa. Nola antolatu da taldea? Zein izan da tal-

deko kideen entzute gaitasuna? Nola ekidin da denek aldi berean hitz egitea? Liderren bat sortu al da? Norbaitek pistetan esku hartu ez zuelako arazorik izan al da? Norbaiten pistak gelditu al dira jaramonik egin gabe? Pista guztiak kontuan ez hartzeagatik soluziobide okerrak eman al dira? Taldeko kideren batek hitz egitera gonbidatu al ditu gutxi esku hartzen zutenak? Besteen pistetan arreta jarri al da ala bakoitza bere pistetan zentratua zegoen?

| | |
|---|---|
| ***Materialak:*** 13 partaideko txartel joko bat. Folioak eta boligrafoak. | ***Denbora:*** 60'. ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |

## 32. Bahiketaren misterioa: pista informatiboak

— Fayal (Azoreak) uhartearen gainean hegan egitera behartu zuten hegazkina, eta han bahitzaileak jausgailuan jauzi egin zuen gauez.

— Barbara Bans eta bere idazkaria itsasontziz heldu ziren uhartera Kanarietatik.

— Matilde Marcos abuztuaren 16an heldu zen lehenengo uhartera.

— Bahitzaileak ile marroi argia eta begi urdinak ditu.

— Elisa Lopez uhartean indusketak egiten dituen arkeologo bat da.

— Ana Martinek interes handia agertzen du Azore Uharteetako erlijio jaialdiez.

— Poliziak zuhaitz batetik jausgailua askatzen ari zela aurkitu zuen Elisa Lopez.

— Matilde Marcos Barbara Bansen idazkaria da.

— Barbara Bansen bila dabiltza Frantzian, 50 marihuana kilo saltzearren.

— Abuztuaren 14ko arratsaldean bahitu zuten hegazkina.

— Bahiketa baino bi egun beranduago bahitzailearen deskribapenarekin bat zetozen lau emakume atxilotu zituen Fayal-go poliziak.

— Ile beltza eta begi marroiak ditu arkeologoak.

— Frantzian ospitale mental batetik ihes egin zuen bahitzaileak.

## Erantzun zuzenerako arrazoibideak

Erantzun zuzena: Ana Martin (arrazoibide logikoz) (Bahitzailea: Ile marroia eta begi urdinak. Abuztuaren 14an heltzen da uhartera).

Susmagarriak baztertzeko arrazoiak:

Barbara Bans hilaren 16an heltzen da itsasontziz.
Matilde Marcos (Barbara Bans-en idazkaria) itsasontziz heltzen da 16an.
Elisa Lopez (arkeologoa): ile beltza eta begi marroiak.

## 33. ADUANA ZAINTZAILEA

***Helburuak:***

— Talde barneko laguntza eta lankidetza harremanak suspertu.
— Talde barneko komunikazioa bultzatu: Entzute aktiborako azturak garatu.
— Taldeko integrazioa sustatu: guztion esku-hartzea bizkortu.
— Taldearen erantzukizuna inplikatzen duten egoerak egituratu
— Onarpenaren eta taldeko izatearen sentimendua suspertu.
— Hitzezko arrazoibide logikoa.

***Jardueraren deskribapena:***

Jokoan ondoko argibide hauek ematen dira: «Muga gurutzatzen ari diren lau kotxe, bata bestearen atzetik erregistratzen ari da aduana zaintzaile bat. Kotxe bakoitzean bidaiari bakarra dago eta bakoitzaren pasaporteak dioenez, adin ezberdinekoak eta begien kolore ezberdinekoak dira. Bakoitzari pista bezala emango zaizkion txarteletatik abiatuta talde bezala erantzun behar dituzuen galderak honako hauek dira:

— Zer adin du bitxi-saltzaileak?
— Zer lanbide du suediarrak?
— 1,83 metroko altuera duen gizonaren begiak zer koloretakoak dira?».

Horretarako, taldeko jokalari bakoitzak informazio ohar bana jasotzen du (informazioaren zati bat duen txartela), galderak erantzuteko baliozkoa izan daitekeena ala ez. Jasotako informazioa analizatu eta elkarrekin erantzun zuzenera heltzean datza jokoa. Jokalariek eztabaida dezakete jasotako informazioa, baina ezin diezaiekete adiskideei txartela eman edo erakutsi. Partaide bakoitzak hitzez eman behar du informazioa, nahi duenean edo besteek eskatzean. Antolatzeko modu ezberdinak aukera ditzake taldeak, adiskide batek idazkariarena egin dezala eska dezake, taldearen ondorioak eta arrazoibideak erregistratzeko, baina inoiz ere ezin diezaioke informazio txartela adiskide bati eman.

Jokoak 11 informazio pista ditu, eta jokalari bakoitzeko txartel bat banatzen da. 30 jokalariko taldeetan, hiru ekipo osatu. Txartelean agertu behar duten pistak «Aduana zaintzailearen jokoaren pista informatiboak» atalean deskribatzen dira.

Oharrak:

— Irakaslea: Eskemako lauki huts bat eman, datuen integrazioa errazteko. Taldeari informazioa hitzez bakarrik ematean datzan jokoaren oinarrizko arauari buruzko begirunea azpimarratu, txartela ez baitzaio adiskideari erakutsi edo eman behar.
— Behatzailea: Jokoaren buruan agertzen diren eta elkarrizketa-gai (ikus eztabaida) izango diren jokaeraren alderdiak idatzi, oro har, jokoaren ondoriora heltzea laguntzen edo zailtzen duen guztia, jokoaren soluziobidea eskatzerainoko nahastea edo frustrazioa dagoen... Debate edo eztabaida fasean esandakoa transkribatu.

***Eztabaida:***

Informazioa konpartitzeko egin dutenaren antolamendu eta azterketaren inguruan planteatzen da elkarrizketa. Nola antolatu da taldea? Zein izan da taldeko ki-

| |
|---|
| deen entzute gaitasuna? Nola ekidin da denek aldi berean hitz egitea? Liderren bat sortu al da? Norbaitek pistetan esku hartu ez duelako arazorik izan al da? Norbaiten pistak gelditu al dira jaramonik egin gabe? Pista guztiak kontuan ez hartzeagatik soluziobide okerrak eman al dira? Taldeko kideren batek hitz egitera gonbidatu al ditu gutxi esku hartzen zutenak? Besteen pistetan arreta jarri al da ala bakoitza bere pistez bakarrik arduratu da? |

| | |
|---|---|
| ***Materialak:*** Txartel joko bat, 11 partaideko. Folioak eta boligrafoak. Datuak integratzeko eskema lauki bat (taldeko bat). | ***Denbora:*** 60'. ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |

### 33. Aduana zaintzailea: informazio pistak

— Lau turistetako batek 51 urte ditu eta 1,64 neurtzen duen turistaren ondoren eta jarraian iragaten du muga.

— Finlandiarrak 29 urte ditu eta azkena da muga zeharkatzen.

— Begi marroiak (gaztainkarak) dituen argiketariak baino juxtu lehenago iragaten du muga frantsesak.

— Jantzi-egilea hirugarrena da muga pasatzen eta 1,71 neurtzen du.

— Turista ingelesak juxtu artistaren ondoren iragaten du aduana.

— Artistak 37 urte eta begi urdinak ditu.

— Begi grisetako gidariak 1,79 neurtzen du eta juxtu artistaren ondoren iragaten du muga.

— Finlandiarra argiketaria da lanbidez.

— 43 urte dituen gizonak 1,71 metro neurtzen du.

— Begi berdeetako gidariak juxtu ingelesaren atzetik iragaten du muga.

— 1,64 metro neurtzen duen turistak lehenik gurutzatzen du muga eta artista da.

Irakaslearentzat emaitzen eskema laukia

| | 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|
| Ogibidea<br>Adina<br>Nazionalitatea<br>Begiak<br>Altuera | Artista<br>37<br>Suediarra<br>Urdinak<br>1,64 | Bitxi saltzailea<br>51<br>Ingelesa<br>Grisak<br>1,79 | Jantzi-egilea<br>43<br>Frantsesa<br>Berdeak<br>1,71 | Argiketaria<br>29<br>Finlandiarra<br>Gaztainkarak<br>1,83 |

Bitxi saltzaileak 51 urte ditu.
Suediarra artista da lanbidez.
1,83 neurtzen duen gizonaren begiak gaztainkarak dira.

Datuak integratzeko eskema laukia (ekipoak)

| | 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|
| Ogibidea<br>Adina<br>Nazionalitatea<br>Begiak<br>Altuera | | | | |

## 34. ARGAZKIARI IZENBURUA JARRI

***Helburuak:***

— Talde barneko komunikazioa bultzatu: Entzute aktiborako azturak garatu.
— Komunikazioko eta berregituraketa kognitiboko prozesuak sustatu.
— Talde barneko lankidetza harremanak suspertu.
— Adostasun bidez erabaki hartzea sustatu.
— Hitzezko sormena bultzatu.

***Jardueraren deskribapena:***

Taldea bost edo sei partaideko ekipotan banatzen da, eta ekipo guztiei argazki bera ematen zaie. Jaso duten argazkiari izenburu bat jartzea da ekipo bakoitzaren lana. Horretarako, ekipoko kideek argazkiak iradokitako izenburuak esaten dituzte eta idazkariak paperera transkribatzen ditu. Bigarrenik, izenburu bat aukeratu behar dute adostasunez, agertutako ideietako bat aukeratuz edo ekipoko kide guztien ekarpenen integrazioarekin beste titulu berri bat landuz. Kide guztien adostasunez aukeratutako izenburu bat proposatzen saiatu behar dute, baina denbora bat igarota lortzen ez badute, aukeraketa gehiengoz egiteko esango du irakasleak (proposaturiko izenburuak bozkatuz). Ondoren, talde handian biltzen dira denak eta bere taldean erabakitako izenburua esaten du idazkari bakoitzak. Era berean planteaturiko beste izenburuez, lana egiteko jarraitu duten prozesuaz eta erabakia adostasunez edo gehiengoz hartzeari buruzko informazioa ematen du. Idazkariek informazioa ematen duten bitartean, ekipo bakoitzak aukeratutako izenburua idazten du arbelean irakasleak. Azkenik, arbelean idatzitako izenburuetatik abiatuz, taldeko kide guztiek adostutako azken izenburu bat jartzen dute. Desadostasun handiak gertatzen badira, gehiengoz aukera daiteke izenburua (arbelean idatzitako izenburuak bozkatuz). Ondoren, debatea hasten da.

Oharrak:

— Irakaslea: ekipoek planteaturiko ideietatik abiatuz, integrazioa egin eta izenburu bat edo bi proposa litezke, taldeak adostu ditzan (ikus adibidea 3. kapituluan, «Saioen eta jardueraren emaitzen egunkaria» epigrafean).
— Behatzailea: Argazkia erantsi. Ekipo bakoitzaren izenburuak deskribatu, aukeraketa adostasunez edo gehiengoz burutu den eta izenburua talde osoak adostu duen esanez. Debatean esanak idatzi.

***Eztabaida:***

Denok esku hartu al duzue jardueran? Ekipo bakoitzean erabakia hartzea erraza izan al da? Kideren baten ideia nagusitu al da edo guztien partaidetzarekin jarri da izenburua? Adostu den izenburua ongi iruditzen al zaigu guztioi? Zein izan da taldeko eztabaidaren ekarpena? Adostasunez eta gehiengoz erabakiak hartzearen abantailak eta desabantailak (gauzatze denbora, banakako desadostasunen agerikotasuna, ondorioen kalitatea, taldeko kideen asebetetzea...).

| | |
|---|---|
| ***Materialak:*** Zenbait argazki, irudi edo marrazki berdinak (ekipoko bat) (edozein gaiena). Erabilitako argazkien adibidea ikus. | ***Denbora:*** 30'. ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |











## 35. GAZTELUKO MAMUA

***Helburuak:***

— Talde barneko komunikazioa bultzatu: entzute aktiborako azturen garapena.
— Taldearen integrazioa sustatu: guztien esku-hartzea suspertu (talde barneko laguntza eta lankidetza harremanak).
— Onarpenaren eta taldeko izatearen sentimendua suspertu.
— Hitzezko arrazoibide logikoa.

***Jardueraren deskribapena:***

Bost kidetako ekipo txikitan zatitzen da taldea. Kide bakoitzari orri bat eta txartel bat emango zaie. Orrian, aurkitu beharreko arazoa planteatzen duen informazioa izango du, eta txartelean, berriz, konponketara eraman dezaketen bost pistetako bat. Ekipo bakoitzeko kideek arazoa ebaztera heltzeko jasotako informazioa, lankidetzan eta ekipo osoaren adostasunez landua, hitzez konpartitu beharko dute. Informazio orrian planteatzen den egoera honako hau da:

«Gaztelu sorgindu batean sei pertsonaia bizi dira: erregea, erregina, printzesa, printzea, printzesaren dama eta erasotzen dituen guztiak jaten dituen mamua.

Gazteluko bizilagunak une horretan elkarrekin edo bereizita egon daitezke toki hauetako batean: almena, leiho garaia, leiho baxua, atea.

Non dauden jakiteko presa dugu, mamua non dagoen abisatzeko. Pistak eman diezazkigukeen bakarra erregearen bufoia da, oso gizon maltzurra, gaztelutik alde egin baitu. Hala ere, ez dirudi gazteluko bizilagunekiko sinpatia handirik duenik, egoeraren presa gorabehera, klabean eman baitigu informazioa. Informazio orrietan (txarteletan) dauden esaldiak dira bufoiak gure galderei emandako erantzunak. Zuetako bakoitzak informazioaren zati bat duzue, ekipoko beste kideekin konpartitu behar duzuena, mamua non dagoen ahal dugun azkarrena deduzitu eta gaztelukoei abisatzeko».

Informazio pistak. Esaldi bakoitza txartel batean idazten da eta ekipoko bost kideen artean banatzen da.

1. Sagu bat irentsiz ospatu du ilargia mamuak; eta une honetan erregeak baino gorago lo egiten du.
2. Damaren eta erreginaren artean dago printzea: ez dakigu zer egiten duen printzesarekin.
3. Mamuaren eta printzesaren artean dago erregea.
4. Printzesa baino beherago dago dama.
5. Erregea eta erregina elkarrekin daude ingelesa ikasten.

Emaitzak:

— Mamua almenan dago.
— Erregea eta erregina bigarren solairuan daude.
— Printzea eta printzesa lehen solairuan daude.
— Dama atean dago.

Oharra:

—Behatzailea: Ekipoen emaitzekin orriak jaso, gero aztertzeko. Debatean esanak idatzi.

***Eztabaida:***

Denok parte hartu al duzue zuen taldearen azken erabakian? Erraza gertatu al da taldean egitea? Desadostasunak izan direnean, jarrera bakoitzetik argudiorik eman al da, bestea konbentzitzen saiatuz? Adostasunez erabakia hartzera iristea erraza izan al da? Zer arazo izan dira talde bakoitzean? Nola ebatzi dira? Zerk zaildu du erabakira heltzea? Zer ekarpen egin du taldeko eztabaidak?

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 30'. |
|---|---|
| Partaide bakoitzeko informazio orri bat eta ekipo bakoitzeko beste bat. | ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |

## 35. Gazteluko mamua. Orri informatiboa

*Gaztelu sorginduan sei pertsonaia bizi dira:*

— Erregea.
— Erregina.
— Printzesa.
— Printzea.
— Printzesaren dama.
— Erasotzen dituen guztiak jaten dituen mamua.

Gazteluko bizilagunak une honetan elkarrekin edo bereizita egon daitezke, toki hauetako batean:

— Almena.
— Leiho garaia.
— Leiho baxua.
— Atea.

Non dauden jakin eta haiei mamua non dagoen abisatzeko presa dugu. Pistak eman diezazkigukeen bakarra erregearen bufoia da, oso gizon maltzurra, gaztelutik alde egin baitu. Hala ere, ez dirudi gazteluko bizilagunekiko sinpatia handirik duenik, egoeraren presa gorabehera, klabean eman baitigu informazioa. Informazio orrietan dauden esaldiak dira bufoiak gure galderei emandako erantzunak. Informazio honekin mamua non dagoen deduzitu behar dugu ahal dugun azkarrena, gaztelukoei abisatzeko.

## V. MODULUA
## Hautemateak eta estereotipoak

### 36. HAUTEMATE GRAFIKOAK

***Helburuak:***

- Hautemate gaitasunaren muga fisiologikoak eta psikologikoak esperimentatu (hautematea eta behaketa faktore subjektiboen menpe daude).
- Begiradak zabaldu, norbere ikuspuntuak malgutu, beste hautemate posibleetara ireki, gertaera berari buruzko azalpen eta ikuspegiak.
- Pentsamendu sortzailea erraztuko duen hautematearen malgutasuna suspertu.

***Jardueraren deskribapena:***

Damaren irudiaren lamina bat banatzen zaio partaide bakoitzari. Irudia hiru minutuz banaka aztertzean eta ondoko datu hauek zehaztean datza lana: 1) damaren adina eta 2) irudiaren hiru osagai edo bereizgarri nabarmen edo funtsezkoak diruditenak. Ondoren, talde handian, eduki diren hautemate ezberdinak (damaren adina eta hiru bereizgarriak) azaltzeko eta sintetizatzeko debate bat hasten da. Banakako erantzunen agerpenak kinada beraren aurrean gertatzen den hautemate ezberdintasuna nabarmenduko du, eta horrek jardueraren ondorioa agerian utziko du, hots, hautematearen subjektibotasuna eta haren aurrean malguak izatearen garrantzia.

Damaren irudian oinarrituta eztabaida burutu ondoren, ilusio optikoen irudiekin beste lamina bat banatzen da (Müller-Lyer-en ilusioa. Ebbinghaus-en zirkuluaren ilusioa. Necker-en kuboa. Rubin-en koparen irudia). Bat bestearen atzetik bost irudiak behatzen dira eta haiei buruz duten hautemateaz galdetzen zaie partaideei: Müller-Lyer-en lerroen luzera, Ebbinghaus-en erdiko zirkuluen tamaina, Necker-en kuboaren orientazioa, Rubin-en koparen irudia, espiralen norabidea.

Oharra:

- Behatzailea: Damaren irudiaren emaitzen talde handiko integrazio prozesuan gertatzen diren taldearen hautemateak eta iruzkinak idatzi. Era berean, ikusmenezko ilusioekin planteatzen den hitzezko informazioa eta debatea idatzi.

***Eztabaida:***

Damaren adinari buruz eta haren hiru bereizgarri garrantzitsuei buruz taldeak egin dituen hautemate ezberdinak bateratuz eta sintetizatuz debate bat hasten da. Ondorioa: Kinada beraren aurrean hautemate ezberdinak eduki ditzakegu. Ikusmeneko ilusioen jokoak egokiak izan daitezke hautematearen erlatibitatea, subjektibotasuna egiaztatzeko. Egungo egoerak hautemateko moduan eragiten dute aurretiko esperientziek. Gure hautemateak geure jokaeran eragiten duela eta honek besteen jokaera baldintzatzen duela konturatu. Beste adibideak: zebra: beltza marra zuriekin edo zuria marra beltzekin; botila: erdi-hutsa edo erdi-betea.

| *Materialak:* | *Denbora:* 45'. |
|---|---|
| Partaideko bi lamina (L 1. Dama; L2. Ikusmen ilusioak: lerroak, zirkuluak, kopa, espiralak).<br>Erabilitako irudien adibideak ikusi. | *Talde egituraketa:* BA-TH. |





Neckerren kuboa



Ebbinghausen zirkuluaren ilusioa



Espiralak



Rubinen koparen irudia




Müller-Lyerren ilusioa

## 37. INFORMAZIOA ETA KLIXEAK

***Helburuak:***

- Eskura dugun informazioak, beti partziala denak, errealitateari buruz osatzen ditugun hautemateak eta iritziak baldintzatzen ditu.
- Klixe edo estereotipo kontzeptua argitu, informazio gutxirekin eraturiko errealitateari buruzko klixe okerrak eraikitzeko joera agirian utziz.
- Norbere ideien aurrean malgutasuna sustatu.

***Jardueraren deskribapena:***

Bi haurren biografi datuak dakartzan orri bat jasotzen du partaide bakoitzak. Banaka informazioa irakurri eta haur bakoitzari buruzko hiru galderari erantzuteko eskatzen da: 1) haur hauek zure ikasgelan egongo balira, zer pentsatuko zenuke beraiei buruz, 2) haur hauek zure ikasgelan egongo balira, nola uste duzu jokatuko zenukeela beraiekin eta 3) hemendik bost urtera nolakoak izango direla uste duzu.

Ondoren, irakaslea, baliozko iritzirik eman gabe, taldeko kideei galderak egiten hasten da, eta kasu bakoitzean planteaturiko hiru galderei emandako erantzunen informazioa ematen dute haiek. Erantzun guztiak irakurrita gero, erantzunak sintetizatzen dira eta berauei buruzko debatea irekitzen da: Zer pentsatzen duzue eman diren erantzunei buruz? Debatean denbora bat iragan eta gero, irakurritako biografi datuak dagozkien pertsonen izenak (Einstein eta Edison) ematen ditu irakasleak. Azkenik, orain zer pentsatzen duten, debatean komentaturiko guztiarekin eta datu berri honekin haur hauen identitateari buruz zer ondorio atera dezaketen galdetzen da.

Oharra:

- Behatzailea: Ondorengo azterketarako erantzun orriak jaso. Debateetan azaltzen den informazioa sintetikoki idatzi (Ikus adibidea 3. kapituluan, «Jardueraren ekoizpena» epigrafean).

***Eztabaida:***

Egindako hiru galderei taldeko kideek emandako erantzunen inguruan gertatzen da lehen debatea. Erantzunak aztertu egiten dira, eta taldearen iritziak laburbildu egiten dira azkenean. Pertsonaien identitateaz informazioa eman ondoren, debate berri bat irekitzen da, hau galdetuz: zer pentsatzen dute orain, zer ondorioztatu dezakete debatean komentaturiko guztiarekin eta datu berri honekin, haur hauen identitateaz.

Ondorioak: Errealitateaz dugun informazioa partziala da. Klixeak azkar egitea ekidin. Eskura daukagun informazioaren alborapenak (isuriak) kontuan hartu, eta haren aurrean erreflexiboki jokatu. Ezberdintasunekiko begirunea (ezberdintasunak gora-behera, gizaki guztiok kezka eta oinarrizko desira berak ditugu).

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
|---|---|
| Partaide bakoitzarentzat erantzun orriak.<br>Arbela. | ***Talde egituraketa:*** BA-TH. |

## 37. Informazioa eta klixeak: erantzun orria. 1. kondaira

| |
|---|
| Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko mutil bat da. Sendagilearen ziurtagiri bat jaso du eta bertan dioenez, bere nerbio krisialdiak direla eta ikasturte batez ikasketak utzi beharrean da. Mutila, bestalde, ez da ikasle ona, ez du lagunik, kasu problematikoa kontsideratzen dute irakasleek eta bere aita lotsatu egiten da semearekin, atletismorako gaitasunik ez duela eta. Guzti honen eraginez eskolarako moldaera txarra du. Bere eboluzio garapenari dagokionez, hitz egiten beranduegi hasi zela esan behar da. Jokaera bitxiak ditu eta bere gurasoek ezberdin bezala begiratzen dute. |
| Mutil hau zure ikasgelan egongo balitz, zer pentsatuko zenuke berari buruz? |
| Mutil hau zure ikasgelan egongo balitz, nola uste duzu jokatuko zenukeela berarekin? |
| Hemendik bost urtera nolakoa izango dela uste duzu? |

## 37. Informazioa eta klixeak: erantzun orria. 2. kondaira

| |
|---|
| Sei urteko mutil bat da. Jaiotzean burua handitua eduki zuen. Meningitisa eduki duela uste da. Bere hiru anaia bera jaio baino lehen hil ziren. Bere ama ez dago bere semea adimen urrikoa dela esaten dioten ahaide eta auzokoekin ados. Mutila eskolara bidalita, irakasleak uste du buruko gaixotasun bat duela. Ama haserretu egiten da, haurra eskolatik ateratzen du eta berak irakastea erabakitzen du. |
| Mutil hau zure ikasgelan egongo balitz, zer pentsatuko zenuke berari buruz? |
| Mutil hau zure ikasgelan egongo balitz, nola uste duzu jokatuko zenukeela berarekin? |
| Hemendik bost urtera nolakoa izango dela uste duzu? |

## 38. IDEIAK ETA AURREIRITZIAK

***Helburuak:***

— Norbere hautemateak eta estereotipoak aztertu eta taldeko beste kideenekin alderatu.
— Hautemate hauen jatorria aztertu.
— Jokaeretan hautemateek duten eraginaz eta hautemate okerren aldakuntzan esku har dezaketen elementuez hausnartu.
— Komunikazio prozesuen bidez berregituraketa kognitiboa suspertu.

***Kontzeptuen definizioa:***

*Arrazismoa:* Arraza baten besteekiko nagusitasuna baieztatzen duen doktrina.

*Etnozentrismoa*: Norberaren talde sozialaren jarrera eta balioak paradigma unibertsal bezala kontsideratzeko joera. Talde etniko batzuei buruz adierazpen erasokorrak egiteko eta subjektuaren identifikazio taldeetatik datorren guztiaren alderako jarrera akritikoa agertzeko joera...; nire taldearen eta besteen arteko bereizketa zurrunean oinarritzen da. Beste taldeekiko aurreiritzia edo etsaitasunezko jarrera eta norbere taldeari mesede egiteko joera.

*Xenofobia:* jatorri sozialeko sugestio batek eragindako arrotzarekiko gorrotoa.

*Diskriminatu:* Arraza, gizarte, sexu... ezberdintasunak alegatuz bereizkuntza egitea.

***Jardueraren deskribapena:***

Osatu gabeko hiru edo lau esaldi dituen folio bat ematen zaio partaide bakoitzari, burura datorkien lehenengo erantzunarekin esaldiak azkar osatzeko eskatuz, sortutako ideia ebaluatu edo epaitu gabe.

Ondoren, enbalatzeko zenbait paper plegu, tamaina handikoak eta luzexkak (partaide kopurua adina erantzun sartzea ahalbidetzen dutenak) banatzen dira gelako zoruan (esaldi bakoitzeko bat), eta bakoitzean osatu gabeko esaldia jartzen da izenburu bezala. Partaide guztiak pleguetara hurbiltzen dira eta esaldia osatzeko erabili duten testua transkribatzen dute (aurrekoak irakurri gabe idazten dituzte beren erantzunak; gero analisi fase bat gauzatuko da).

Pleguetan esaldien erantzun guztiak idatzi direnean, irakasleak analisia (plegu bakoitzeko esaldiak ozenki irakurtzen ditu) eta eztabaida (taldeari galdetzen dio kolektibo horren zer irudi daukan jendeak orokorrean) gidatuko ditu. Honela, azterturiko kolektiboei buruz (emigranteak, beltzak, ijitoak, marjinatuak, emakumeak, gizonak...) edo balorazioa jasaten duten beste eraikuntzei buruz (laguntasuna, drogak, irakasleak, maitasuna, indarkeria...) talde horrek duen kontzeptua argitzen da. Taldeak kolektibo horri buruz duen kontzeptua aztertzeko, positibo, negatibo edo neutraltzat jotako erantzunak balora daitezke, esaldi bakoitzean planteaturiko erantzun moten kontaketa orokorra eginez (azterturiko kolektibo bakoitzari dagokionez zenbat positibo, negatibo eta neutro). Kolektibo bati buruz zerbait positiboa azpimarratzen dutenak (adibidez, beltzak kirolari handiak dira, ongi abesten dute, oso atseginak dira, oso garrantzitsuak) jotzen dira erantzun positiboak, negatiboen (ijitoak zikinak dira, ostu egiten dute, nazka ematen didate...) edo neutroen (hegoaldean bizi direnak dira marokoarrak, alfonbrak saltzen dituzte, azaleko kolore ezberdina dute) aurrez aurre.

Bigarren fase batean, galdera sail bat egiten zaio taldeari, eta bere erantzunak arbelean biltzen dira sintetikoki:

— Zein da gure sinesteen jatorria? Gauzei buruzko (egunkariak, liburuak, komikiak, filmak, gurasoak, lagunak, eskola...) hautemate hauek zergatik ditugu?
— Nola eragiten du hautematen dugunak gure jokatzeko moduan? (adibidez, X taldearen X hautematea, «Ijitoek lapurtu egiten dute», baldin badut nik, nola jokatuko dut talde horretako kideekin?). Galdera honi dagokionez, jarrera baztertzaileak, xenofoboak eta abar agertu dituzten azterturiko kolektiboen adibide zehatzak erabiliz formulatu behar da. Taldeko kideen erantzunetan nabarmendu diren gizarte kolektiboen bazterketaren pertzepzioak aukeratu.
— Zerk lagun gaitzake gure hautemateak aldatzen? (informazioa, kontaktua...).

Oharrak:

— Irakaslea: Besteen hautemateei buruzko balore iritzirik ez dute eman behar ez irakasleak, ez taldeko kideek. Norbere hautemateak argitzea, besteek dituztenekin kontrastatzea, haien jatorria eta jokaeran duten inpaktua aztertzea da helburua.
— Irakaslea: Osatu gabeko esaldi ezberdinekin erantzun orri bat aurkezten da, jarduera une ezberdinetan gauzatzeko. Beste analisi kontzeptu batzuk erabil daitezke, hausnarketarako erabili nahi diren kolektiboei erreferentzia egingo dieten hitzak bilduz.
— Behatzailea: Osatu gabeko esaldien erantzun orriak jaso, ondoren aztertzeko. Debatean esandakoak jaso.

***Eztabaida:***

1. fasea: Erantzunen irakurketa. Kolektibo bakoitzari buruz daukaten hautemateari buruzko ondorio orokorra (erantzun positibo, negatibo eta neutroen azterketa).

2. fasea: Ondorengo puntu hauetan lagunduko duten galderak egin: 1) dauzkagun ideia edo hautemateen jatorria aztertu, 2) jokaeran hautemateek duten inpaktua aztertu eta 3) sineste okerrak aldatzen lagunduko duten elementuak argitu.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. (3-4 esaldi) |
|---|---|
| Partaide bakoitzeko osatu gabeko zenbait esaldi dituen folioa (esaldien kopurua jarduerarako dagoen denboraren menpe dago). Enbalatzeko paper plegu handiak. Errotuladoreak. Arbela. Boligrafoak. | ***Talde egituraketa:*** BA-TH. |

## 38. Ideiak eta aurreiritziak: erantzun orria

Beltzak ........................................................................

Ijitoak ........................................................................

Espetxean egon diren pertsonak ..................................................

Emigranteak ....................................................................

Jende aberatsa ..................................................................

Pertsona indarkeria zaleak ......................................................

Musulmanak .....................................................................

Jende txiroa ....................................................................

Droga menpekoak ...............................................................

Alkoholikoak ...................................................................

Gizonak ........................................................................

Emakumeak ......................................................................

Marjinatuak ....................................................................

Irakasleak ......................................................................

Kutsadura ......................................................................

Maitasuna ......................................................................

Matxismoa ......................................................................

Feminismoa ....................................................................

Indarkeria ......................................................................

Drogak ........................................................................

Lagunak ........................................................................

Gurasoak ......................................................................

Sexualitatea ....................................................................

## 39. GERTAERAK ETA IRITZIAK

***Helburuak:***

— Gertaerak eta iritziak bereizi.
— Dedukzio okerrak eta aurreiritzizko kognizioak identifikatu.

***Jardueraren deskribapena:***

Partaide bakoitzak baieztapen batzuk aurkezten dituen erantzun orri bat jasotzen du, eta baieztatzen dena gertaera bat edo iritzi bat den adierazi behar du. Ondoren, baieztapen bakoitzean irakasleak galdetzen du gertaera bat ala iritzi bat den. Erantzunak ozenki komentatzen dira eta desadostasunak daudenean argudiatu egiten da. Azkenik, partaideek baieztapenak asmatzen dituzte eta besteek bereizi egin behar dute baieztapenak gertaerak diren ala iritziak diren. Fase hau amaitzean, baieztapen bikoteak (ikus aldaera) irakur ditzake ozenki irakasleak, dedukzio okerren eta aurreiritzizko kognizioen identifikazioa taldeari eskatuz. Horretarako, «datuak edo ezagutza osoa eduki gabe zerbaiti edo norbaiti buruz ematen den iritzia, bere itxura fisikoa, erlijioa, sexua, etnia batekoa izatea... bakarrik kontuan hartuta ematen den iritzia edo egiten den aurresatea» bezala definitzen da aurretik aurreiritzia.

Oharrak:

— Irakaslea: Jarduera egiteko kinada bezala erabil daitezkeen zenbait esaldi eskaintzen dira. Dena den, saio batean komentatzeko hauetako batzuk aukera daitezke edo ariketaren ahalbideak zabal ditzaketen beste batzuk asma daitezke, ukitu nahi diren gai ezberdinen arabera.
— Behatzailea: Erantzun orriak eta desadostasunak sortzen diren baieztapenetan ematen diren argudioak jaso. Taldeko kideek asmaturiko esaldiak idatzi.

Aldaera:

— *Dedukzioak eta aurreiritziak*: Gertaera eta iritzien bereizkuntza amaitzean, irakasleak plantea diezaioke esaldi sail bat taldeari (ikus adibideak), gertaera objektiboak edo eduki deskriptiboak agertzen dituzten esaldiak eta dedukzio okerrak eta kognizio negatiboak edo aurreiritzizkoak (izartxoz markatuak) inplikatzen dituzten esaldiak identifika ditzatela eskatuz.

***Eztabaida:***

Gertaera eta iritzien zuzenketa eta bereizkuntza. Desadostasunak sortzen direnean argudioen komunikazioa. Kontzeptu bien arteko ezberdintasuna argitzea.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 30'. |
|---|---|
| Erantzun orria (partaideko bat). Boligrafoak. | ***Talde egituraketa:*** BA-TH. |

## 39. Gertaerak eta iritziak: erantzun orria

Udaberrian loreak irteten dira.

Horia kolore bat da.

Udazkenean zuhaitz batzuek hostoak galtzen dituzte.

Mutilak txulo samarrak dira.

Hirugarren munduan haurrak gosez hiltzen dira.

Mutilak neskak baino indartsuagoak dira.

Aberatsak ederragoak dira.

Kataluniarrak andaluziarrak baino langileagoak dira.

Musulmanak matxistak dira eta emakumeei tratu txarrak ematen dizkiete.

Ijitoak lurralde askotatik jaurtiki dituzte historian zehar.

Afrikarrek erritmo handia dute.

Landan hobeto bizi izaten da hirian baino.

Abenduan hotz egiten du.

Asko irakurtzen duten pertsonek gehiago dakite.

Ijitoek ez dute atsegin lan egitea eta horregatik bizi dira gizartean bazterturik.

Emakumeak gizonak baino adimentsuagoak dira.

Pertsonak nahi dutelako dira behartsuak.

Mendiak eskalatzeak ahalegin handia eskatzen du.

Musulmanak besteak bezalako pertsonak dira; bereizten dituen gauza bakarra beste kultura bat eta guk ez bezalako ohiturak edukitzea da.

Musulmanek ez dute benetako sinesmenik, Jainkoan sinesten ez dutelako.

Zakurra da gizakiaren lagunik onena.

Fruta ona da gorputzarentzat.

Zaldiak adimentsuak dira.

Kirola egitea ona da osasunerako.

Neskak mutilak baino sentikorragoak dira.

Historiako txirrindularirik onenetakoa da Indurain.

Mutilen kirola da futbola.

Film dramatikoak akziokoak baino txarragoak dira.

## 39. Gertaerak eta iritziak: zuzenketa orria

| | |
|---|---|
| H | Udaberrian loreak irteten dira. |
| H | Horia kolore bat da. |
| H | Udazkenean zuhaitz batzuek hostoak galtzen dituzte. |
| O | Mutilak txulo samarrak dira. |
| H | Hirugarren munduan haurrak gosez hiltzen dira. |
| O | Mutilak neskak baino indartsuagoak dira. |
| O | Aberatsak ederragoak dira. |
| O | Kataluniarrak andaluziarrak baino langileagoak dira. |
| O | Musulmanak matxistak dira eta emakumeei tratu txarrak ematen dizkiete. |
| H | Ijitoak lurralde askotatik jaurtiki dituzte historian zehar. |
| O | Afrikarrek erritmo handia dute. |
| O | Landan hobeto bizi izaten da hirian baino. |
| H | Abenduan hotz egiten du. |
| H | Asko irakurtzen duten pertsonek gehiago dakite. |
| O | Ijitoek ez dute atsegin lan egitea eta horregatik bizi dira gizartean bazterturik. |
| O | Emakumeak gizonak baino adimentsuagoak dira. |
| O | Pertsonak nahi dutelako dira behartsuak. |
| H | Mendiak eskalatzeak ahalegin handia eskatzen du. |
| H | Musulmanak besteak bezalako pertsonak dira; bereizten dituen gauza bakarra beste kultura bat eta guk ez bezalako ohiturak edukitzea da. |
| O | Musulmanek ez dute benetako sinesmenik, Jainkoan sinesten ez dutelako. |
| O | Zakurra da gizakiaren lagunik onena. |
| H | Fruta ona da gorputzarentzat. |
| O | Zaldiak adimentsuak dira. |
| H | Kirola egitea ona da osasunerako. |
| O | Neskak mutilak baino sentikorragoak dira. |
| H | Historiako txirrindularirik onenetakoa da Indurain. |
| O | Mutilen kirola da futbola. |
| O | Film dramatikoak akziokoak baino txarragoak dira. |

## 39. Gertaerak eta iritziak (aldaera)

—Hark lapurtu ditu marrubiak. Begira nola daukan kamiseta gorriz zikindua*.

—Oso argia da. Bere notak beti bikainak dira.

—Azterketa gaizki egingo du. Suspenditu egiten du eskuarki*.

—Begira nola janzten den. Oso behartsua izan behar du*.

—Irakasle zorrotza da. Egunero jartzen ditu etxeko-lanak.

—Ez du harekin jolastu nahi. Beste kolore batekoa du azala*.

—Bere erruz seguru galdu baietz partida. Oso makala da*.

—Begi urdinak ditu, txapela zuria eta alkandora gorria ditu.

—Seguru bera aukeratzen dutela. Irakaslearen begikoa da*.

—Ezin daiteke hartaz fida. Oso aurpegi gogorra du*.

—Festara ez zuela etorri nahi esan zuen. Oso nekatua zegoen.

—Hobe nire laguna ez bada. Algeriarra da eta janzkera bitxia du*.

—Oso maltzurra behar du izan. Begi zabalak ditu*.

—Oso garaia da. Saskibaloian baloi asko saskiratzen ditu.

—Neska bat da. Gaizki jokatuko du futbolean*.

—...

## 40. KAZETARITZA KRITIKOA

***Helburuak:***

- —Informazio bideen aurrean gaitasun kritikoa suspertu.
- —Informazio alborapenak (isuriak) eta haietatik eratorritako interpretazioak identifikatu.
- —Talde barneko komunikazioa sustatu.
- —Taldeko lankidetza suspertu.

***Jardueraren deskribapena:***

Bi edo hiru egunkari ezberdinetatik berri bera aukeratzen da eta aldizkari bakoitzean ematen diren datuak eta interpretazio bereziak aztertzen dira. Horretarako, bospasei partaideko ekipotan banatzen da taldea. Berri beraren bi edo hiru egunkari-bertsio irakurtzen ditu ekipo bakoitzak eta alderatu egiten ditu, ondorengo hauek bezalako auziak argitzen saiatuz:

- —Ematen diren datuak.
- —Erabiltzen diren argudioak.
- —Errealitateaz duten ikuskera.
- —Norbaiten aldeko jarrera hartzen duten.
- —Gatazkari edo gaiari zer azalpen ematen dioten.
- —Berriaren osagaietatik abiatuta... kazetaren orientabidea.

Ekipoaren ondorioak idazten ditu idazkari batek. Ondoren, ekipo bakoitzak egindako azterketak ozenki irakurtzen dira eta ondorioetan oinarrituta debatea hasten da.

Oharrak:

- —Irakaslea: gaurkotasuna duen berri bat, gaiaren aldetik taldeari interesatuko zaiona aukeratu.
- —Behatzailea: Ekipo bakoitzak berriaz egiten dituen azterketak bildu. Eztabaida fasean planteatzen diren esaldiak idatzi.

***Eztabaida:***

Ekipo bakoitzak lortu dituen ondorioak komentatzen dira talde handian eta gaiari buruzko debatea irekitzen da. Ondorio batzuk: datuetan, errealitateari buruzko informazioan gertatzen diren alborapenek eragina dute hari buruz egiten dugun interpretazioan.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
| --- | --- |
| Bi edo hiru egunkari ezberdinetan datorren berri bera ematen zaio ekipo bakoitzari. Folioak. Boligrafoak | ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |

## 41. BESTE HERRIEN IRUDIAK

***Helburuak:***

— Beste nazioen irudiak aztertu eta irudi hauen jatorria argitu.
— Norbere irudiak besteenekin kontrastatu.
— Hautemateak, estereotipoak eta aurreiritziak identifikatu.
— Beste herri eta nazioen ezagutza zabaldu: klixeak eta estereotipoak malgutu.
— Berregituraketa kognitiboa suspertu, talde barneko komunikazio prozesuen bidez.

***Kontzeptuen definizioa:***

*Arrazismoa:* Arraza baten besteekiko nagusitasuna baieztatzen duen doktrina.

*Etnozentrismoa*: Norberaren talde sozialaren jarrera eta baloreak paradigma unibertsal bezala kontsideratzeko joera. Talde etniko batzuei buruz adierazpen erasokorrak egiteko eta subjektuaren identifikazio taldeetatik datorren guztiaren alderako jarrera akritikoa agertzeko joera...; nire taldearen eta besteen arteko bereizketa zurrunean oinarritzen da. Beste taldeekiko aurreiritzia edo etsaitasunezko jarrera eta norbere taldeari mesede egiteko joera.

*Xenofobia:* jatorri sozialeko sugestio batek eragindako arrotzarekiko gorrotoa.

*Diskriminatu:* Arraza, gizarte, sexu... ezberdintasunak alegatuz bereizkuntza egitea.

*Interdependentzia*: Gizabanakoen, taldeen, nazioen arteko elkarrekiko menpetasunezko harremanak.

***Jardueraren deskribapena:***

Beste herriei edo nazioei buruzko zenbait esaldi osatu gabeekin orri bat jasotzen du partaide bakoitzak. Lehenik, banaka, esaldiak osatu behar dituzte, herri edo nazio horretaz duten irudia behatzea ahalbidetuko duelarik horrek. Partaide bakoitzak bizkorki osatzen ditu esaldiak, burura datorkion lehenarekin erantzunez, sortutako ideia ebaluatu edo epaitu gabe. Ondoren, enbalatzeko zenbait paper-plegu (esaldiko bat) luze (partaideen kopurua besteko erantzun kopurua sartzeko adinako luzera) zabaltzen dira ikasgelaren zoruan, eta bakoitzaren izenburuan osatu gabeko esaldi bat jartzen da (adibidez, estatubatuarrak). Partaide guztiak pleguetara hurbiltzen dira eta esaldi horien osaketan erabilitako testua transkribatzen dute (aurrekoak irakurri gabe idatzi behar dituzte beren erantzunak. Azterketa fase bat egingo da gero). Pleguetan esaldiei emandako erantzun guztiak idatzi direnean, irakasleak azterketa (ozenki irakurtzen ditu plegu bakoitzeko esaldiak) eta eztabaida (taldeari galdetzen dio zer irudi daukan jendeak oro har kolektibo horretaz) gidatzen ditu, ideia idatziak positibo, negatibo edo neutral bezala baloratzearen bidez talde horrek analizatutako herriei buruz duen kontzeptua argituz. Kolektibo horren alderdi positiboren bat nabarmentzen duten haiek ulertzen dira erantzun positibo bezala (pertsona onak dira, ongi dantza egiten dute, xarmagarriak eta lagunkoiak dira), negatiboen (bortitzak dira, bekaiztiak dira, gorroto ditut, txulo batzuk iruditzen zaizkit, lurralde honetatik alde egin beharko lukete...) edo neutralen (Bartzelonan bizi dira, jotak dantzatzen dituzte, futbolean jokatzen dute, oliba olioa egiten dute...) aurrez aurre.

Bigarren fase batean, hiru zatitan zatitzen da arbela, taldeari egiten zaizkion hiru galderen erantzunak jasotzeko (taldeak irudi negatiboak zein adibide konkreturi buruz agertu dituen ikusi eta haiexekin lan egin):

—Beste herri edo nazioei buruz ditugun irudien jatorria zein da?
—Hautematen dugunak nola eragiten du gure jokatzeko eran? (adibidez, X taldearen X hautematea baldin badut..., nola jokatuko dut haiekin?).
—Zerk lagun gaitzake gure hautemateak aldatzen? (informazioa, kontaktua...).

Oharrak:

—Irakaslea: Hautemateei buruz ez da balio iritzirik eman behar. Norbere hautemateak argitzea, besteenekin kontrastatzea, haien jatorria eta jokaeran duten eragina aztertzea da helburua.
—Irakaslea: Ariketa honetarako erantzun orri bat aurkezten da eta bertan zenbait herri edo nazio iradokitzen dira (estatubatuarrak, errusiarrak, argentinarrak, marokoarrak, japoniarrak, txinoak, euskaldunak, katalanak, gailegoak, espainiarrak, andaluziarrak, alemaniarrak, frantsesak...); dena den, taldeak berari buruz zer irudi duen aztertu nahi den edozein lurralde aukera liteke (jarduera planteatzen dugun bakoitzean bost baino gehiago ez aztertzea iradokitzen da).
—Irakaslea: Lurralde bati buruz kognizio negatiboak edo aurreiritzizkoak identifikatzen badira, saioaren amaieran proposa liteke lau edo bost ekiporen eraketa; hauetako bakoitzak gizarte kolektibo bati (zeinari buruz taldeak aurreiritzizko jarrera agertu duen) buruzko informazioa ekarri behar du hurrengo saiorako. Ekipo bakoitzak informazio segmentuez arduratu behar du: jantziak, erlijioa, bizilagunak, ohiturak, elikadura, geografia, flora-fauna, jaiak... eta jasotako informazioa konpartitu egiten dute ekipoek hurrengo saioan, honek herri hori hobeto ezagutzen laguntzen duen eta/edo ezagutza eta ulerkuntza sakonago horretatik abiatuta haien irudia hobetzen laguntzen duen analizatuz. Azterketa kognitiboago hau errepresentazio dramatikoez osa daiteke. Informazioa bateratzearen ondorengo debatea amaitzean, taldeko kideak lurralde honetako pertsonen paperean edo egoeran jarriko dituen kondaira bat asma lezake ekipo bakoitzak.
—Behatzailea: Osatugabeko esaldien erantzun orriak bildu, ondoren aztertzeko. Debateko iruzkinak eta arbelean idatzitako erantzunak idatzi.

***Eztabaida:***

*1. fasea*: Erantzunen irakurketa. Lurralde bakoitzari buruz daukaten hautemateari buruzko ondorio orokorra (erantzunak positibo, negatibo eta neutro bezala baloratzea).

*2. fasea*: Ondorengo puntu hauetan lagunduko duten galderak: 1) ditugun ideia eta hautemateen jatorria aztertu (kazetak, liburuak, komikiak, filmak, gurasoak, eskola...), 2) hautemateek jokaeran duten eraginaz hausnartu eta 3) irudi okerrak aldatzen lagunduko duten elementuak argitu. Herri ezberdinei buruz zer irudi ondorioztatu diren eta taldeko kideen artean adostasunik badagoen ala ez argitzea da kontua.

| | |
|---|---|
| ***Materialak:*** Partaideko erantzun orri bat. Boligrafoak. Enbalatzeko paper plegu handiak. Errotuladoreak. Arbela. | ***Denbora:*** 60'.90' (esaldi kopuruaren arabera). ***Talde egituraketa:*** BA-TH. |

## 41. Beste herrien irudiak. Erantzun orria

| | |
|---|---|
| Txinatarrak | ........................................ |
| Iparramerikarrak | ........................................ |
| Kubatarrak | ........................................ |
| Marokoarrak | ........................................ |
| Japoniarrak | ........................................ |
| Errusiarrak | ........................................ |
| Algeriarrak | ........................................ |
| Alemaniarrak | ........................................ |
| Frantsesak | ........................................ |
| Ingelesak | ........................................ |
| Afrikarrak | ........................................ |
| Argentinarrak | ........................................ |
| Palestinarrak | ........................................ |
| Andaluziarrak | ........................................ |
| Espainiarrak | ........................................ |
| Kataluniarrak | ........................................ |
| Galiziarrak | ........................................ |
| Extremadurakoak | ........................................ |
| Kanariarrak | ........................................ |
| Valentziarrak | ........................................ |
| Kantabriarrak | ........................................ |
| Asturiarrak | ........................................ |

## 42. HITZEN ELKARKETA

***Helburuak:***

— Hitz batzuekin elkartzen den lehen irudia ezagutu.
— Hitz jakin batzuekin elkartutako hautemateak argitu.
— Norbere hautemateak besteenekin kontrastatu.
— Hautemateen jatorria eta berauek jokaeran duten eragina aztertu.
— Hautemateen malgutasuna sustatu.

***Jardueraren deskribapena:***

Hitz zerrenda bat agertzen duen orri bat jasotzen du partaide bakoitzak. Lehenik, banaka irakurtzen dute hitz bakoitza eta harekin elkarturik burura datorkien lehen hitza idazten dute alboan. Gero talde handian biltzen dira, irakasleak hitz hauek izendatzen ditu (adibidez, etxea, indarra, emakumea, gurpil-aulkia, polizia, drogazalea, herria, telebista, zaharra, ametsa, liburua...) eta hauekin gauzatutako elkarketen berri ematen dute taldeko kideek. Azkenean emaitzak laburbiltzen dira, hitz horri buruz taldeko kideek dituzten hautemateak argituz.

Oharrak:

— Irakaslea: Deskribatzen den hitzen zerrenda oso zabala denez, jarduera hainbat saiotan burutzea iradokitzen da, saio bakoitzean bost edo sei hitz aukeratuz. Hautemateei buruz balore iritzirik ez da eman behar. Norbere hautemateak argitzea, beste pertsonenekin kontrastatzea, haien jatorria eta jokaeran duten eragina aztertzea da helburua.
— Behatzailea: Hitzen elkarketaren erantzun orriak bildu, ondoren aztertzeko. Debateko iruzkinak idatzi.

***Eztabaida:***

Hitz bakoitzarekin elkarturik taldeko kideek emandako erantzunen irakurketa. Hitz bakoitzaren elkarketen azpian dautzan kontzeptuekin harremanean nabarmentzen diren hautemateen sintesi bat egiten da. Adierazten diren edukiei loturik egongo da ondorengo debatea. Zergatik ditugu hautemate hauek? Zein da ditugun irudien jatorria? Zer-nolako eragina dute gure hautemateek gure jokatzeko eran? Zerk lagun gaitzake gure hautemateak aldatzen? (informazioa, kontaktua...).

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 30'. (4-5 hitz). |
| --- | --- |
| Hitzen elkarketaren erantzun orria. | ***Talde egituraketa:*** BA-TH. |

## 42. Hitzen elkarketa: erantzun orria

| | | |
|---|---|---|
| Aita | Afrika | Ametsa |
| Ama | Urtarrila | Gosea |
| Gurutzea | Guraizeak | Zigorra |
| Liburua | Janaria | Beldurra |
| Emakumea | Eskimala | Itsasoa |
| Etxea | Musua | Espazioa |
| Gurpil aulkia | Zoriontasuna | Urdina |
| Beltza | Aiztoa | Ordenagailua |
| Arabiarra | Gitarra | Udaberria |
| Alkohola | Telebista | Ura |
| Erre (zigarroa) | Indiarra | Mairua |
| Espetxea | Barroteak | Indarkeria |
| Guda | Herria | Oporraldiak |
| Drogak | Zaharra | Susmoa |
| Gizona | Ninia | Indarra |
| Familia | Isolamendua | Berdea |
| Laguna | Gaztea | Menpekotasuna |
| Maitasuna | Gorrotoa | Neba-arrebak |

## 43. ERAIKUNTZA-ENPRESA

***Helburuak:***

— Gure ekintzen azpian gordetzen diren baloreak aztertu.
— Adostasunaren bilaketarako talde barneko komunikazioa sustatu.
— Nazionalitatean edo estatusean oinarritutako besteekiko jarrera diskriminatzaileak identifikatu.
— Komunikazio prozesuen bidez berregituraketa kognitiboa suspertu.

***Jardueraren deskribapena:***

Sei eta zortzi kide bitartean dituen ekipo txikitan zatitzen da taldea. Ekipo bakoitzak eraikuntza agentzia errepresentatzen du. Eraikuntza agentziaren eskaintza eta zintzilik dituen eskaerak agertzen dituen erantzun orria jasotzen du ekipo bakoitzak. Lehenik, taldeko kide bakoitzak bakarka erabakitzen du nori emango zaion eskaintza bakoitza eta bere erantzun orrian idazten du, hartutako erabakien arrazoiak justifikatuz. Erabakia ikuspegi honetatik hartzen da: «nori gustatuko litzaioke etxebizitzak ematea eta zergatik», hau da, askeki esleitu ahal izanez gero, nori emango lizkieke eta zergatik. Gero, ekipo txikitan, partaide bakoitzaren erabakiak eta arrazoiak komentatzen dira, adostasun bidezko esleipenera heltzen saiatuz (ekipoaren erantzun orrian idazten dute, erabaki horietarako agertutako argudioekin). Hirugarrenik, talde handian, ekipo bakoitzeko ordezkari batek bere ekipoko erabakiak eta argudioak transmitituko ditu, esleipen horiek defendatzen saiatuz. Fase honetan ekipoa idatzizko oharren bidez bakarrik komunika liteke bere ordezkariarekin. Ekipo guztien erabakiak aurkeztu eta argudiatu ondoren, bost minutu dituzte ordezkariek ados jartzeko. Adostu dituzten etxebizitzak bakarrik alokatu ahal izango dira. Azkenik, eztabaida eta debate gune bat irekitzen da.

Oharrak:

— Irakaslea. Ariketa honetan garrantzitsua da kide bakoitzak bere banakako esleipenen balio inplizituei buruz hausnar dezala iradokitzea.
— Behatzailea: Banakako eta talde bakoitzeko ondorioekin erantzun orriak jaso. Ekipoetako ordezkarien arteko debatearen hitzezko edukiak eta debate garaiko talde dinamika idatzi.

***Eztabaida:***

Nola sentitu gara? Gure ekipoaren erabakiarekin identifikaturik sentitzen al gara? Nolakoa izan da erabakiak hartzeko prozesua? Nolakoa izan da ekipoen barneko komunikazioa? Denok esku hartu ahal izan duzue? Zein irizpide nagusitu dira etxebizitzak esleitzeko garaian? Zein argudio izan dira batez ere kontuan hartu direnak? Zein balio nagusitu dira etxebizitzen esleipenetan?

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
|---|---|
| Erantzun orriak (ekipoko partaide bakoitzeko bat eta ekipo bakoitzarentzat bestea) | ***Talde egituraketa:*** BA-TT-TH. |

## 43. Eraikuntza enpresa: erantzun orria

*Eskaintzak*

— Luxuzko txalet bat.
— Aurrean eta atzean lorategia duen etxe familiarra, auzo on batean.
— Kanpoaldeko auzo batean seigarren pisu bat (hiri inguruan).
— Garaje baten gainean pisu bat, erdiguneko auzo zaharkitu batean, hondatutzat jotako etxeetan.

*Eskaerak: etxebizitzen eskaera*

— Etxeberria sendia: orain dela hamar urte heldu ziren Argentinatik, duela urte asko beren sendikoekin hara emigratu baitzuten. Aitak banketxe batean egiten du lan. Ama itzultzailea da. 16 eta 14 urteko alabak eta 13 eta 11 urteko semeak dituzte.
— Agirre sendia: Gizona denda baten jabea da eta emakumeak etxean lan egiten du. 10, 7 eta 5 urteko alabak.
— Mahfuz Hassan sendia. Sendi marokoar bat da. Aitak jatetxe batean egiten du lan. Amak garbitzaile bezala egiten du lan, lantegi batean. 6, 4 eta 3 urteko semeak.
— Perez familia. Aitak puru lantegi batean egiten du lan. Ama dibortziatua ez litzateke etxe horretan biziko. 10 eta 5 urteko semeak eta 8 eta 7 urteko alabak.

*Esleipenak eta argudioak*

# VI. MODULUA
## Diskriminazioa eta etnozentrismoa

### 44. ARRAZISMOAZ HITZ EGITEN

***Helburuak:***

— Beste kultur taldeei (ijitoei) buruzko gure hautemateak eta haien azpian dautzan balioak ezagutu.
— Beste taldeenganako jarrera diskriminatzaile eta arrazistak argitu.
— Talde barneko komunikazioa bultzatu: Entzute aktiborako azturen garapena.
— Komunikazio prozesuen bidez berregituraketa kognitiboa suspertu.

***Kontzeptuen definizioa:***

*Arrazismoa:* Arraza baten besteekiko nagusitasuna baieztatzen duen doktrina.

*Etnozentrismoa*: Norberaren talde sozialaren jarrera eta balioak paradigma unibertsal bezala kontsideratzeko joera. Talde etniko batzuei buruz adierazpen erasokorrak egiteko eta subjektuaren identifikazio taldeetatik datorren guztiaren alderako jarrera akritikoa agertzeko joera...; nire taldearen eta besteen arteko bereizketa zurrunean oinarritzen da. Beste taldeekiko aurreiritzia edo etsaitasunezko jarrera eta norbere taldeari mesede egiteko joera.

*Diskriminatu:* Arraza, gizarte, sexu... ezberdintasunak alegatuz bereizkuntza egitea.

*Xenofobia:* jatorri sozialeko sugestio batek eragindako arrotzarekiko gorrotoa bezala definitu da.

***Jardueraren deskribapena:***

Bost edo sei partaideko ekipotan zatitzen da taldea eta zortzi esaldi dituen orri bat hartzen du bakoitzak. Esaldiak irakurriz eta haien edukiak argituz hasiko da irakaslea, taldeko kideek informazioa ulertzeko zailtasunik izan ez dezaten. Ondoren, ekipo bakoitzak pentsatu beharko du esaldi bakoitzaren edukiekin eta akordioaren edo desakordioaren azpiko argudioekin ados dagoen ala ez. Lehenik ebaki eta gero bakoitzari buruz ekipoak duen adostasunaren arabera sailkatu behar dituzten esaldien fotokopia bat hartzen dute ekipoek. Prozesu honetan iritzi desadostasunak eztabaidatzen dira, eta banakako ideien arrazoiketan oinarrituta taldeak sailkatu egin behar ditu (adostasuna-desadostasuna) adostasunera heltzen saiatuz. Esaldi guztiei buruz posible ez bada, argitu egin behar dute zein esalditan ez den adostasunik izan eta zeintzuk izan diren planteatu diren desadostasuneko argudioak. Azkenik, taldeak bi zutabetan zatituriko folio batean itsasten ditu sailkaturiko esaldiak. Ekipo bakoitzak bere emaitzak aurkeztu ondoren, haiei buruzko eztabaida bat irekitzen da.

Oharrak:

— Irakaslea: Talde konkretu (ijitoak) baten azterketa planteatzen du ariketak, adibide moduan; dena den, hurrengo okasioetan proposa liteke beste kolektibo edo kultur taldeei buruzko hausnarketa (beltzak, musulmanak edo beste kolektiboak, zeintzuei buruz talde honek aurreiritzizko jarrerak eduki ditzakeen).

| |
|---|
| —Behatzailea: Banakako orriak eta ekipo bakoitzaren erantzun orriak jaso. Egunkarian idatzi ekipo bakoitzaren emaitzak, argudioak eta planteaturiko desadostasunak, eta baita debatean hitzez adierazitakoak ere. |
| ***Eztabaida:*** <br> *1. fasea*: Erantzunen irakurketa. Kolektibo bakoitzari buruz daukaten hautemateari buruzko ondorio orokorra. Zer irudi daukagu ijitoez? Zer ekarpen egin digu taldeko eztabaidak? Ekipo guztietan bat etorri al dira emaitzak? Zer ezagutzen dugu ijitoez? Nola eskuratu ditugu ezagutza hauek? <br> *2. fasea*: Ondorengo puntu hauetan lagunduko duten galderak: 1) ditugun ideia eta hautemateen jatorria aztertu (esperientzia, kazetak, liburuak, komikiak, filmak, gurasoak, lagunak, eskola...), 2) hautemateek jokaeran duten eraginaz hausnartu eta 3) irudi okerrak aldatzen lagunduko duten elementuak argitu. |

| | |
|---|---|
| ***Materialak:*** <br> Partaide bakoitzeko esaldien orri bat, arkatz bat eta borragoma bat. Ekipo bakoitzeko beste orri bat esaldiekin, guraizeak, folioak eta kola (ekipo bakoitzeko bat). | ***Denbora:*** 60'. <br> ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |

## 44. Arrazismoaz hitz egiten: baieztapenen orria

| | |
|---|---|
| 1 | Ijitoei ez zaie besteei ematen zaien tratu bera ematen |
| 2 | Ijitoen alde egingo duten eta bizi duten egoera hobetzeko aukera emango dieten legeak behar dira. |
| 3 | Ijitoek dituzten arazoen soluziobideak beraiengandik irten behar du, eta hartarako hobeto antolatu behar dute. |
| 4 | Gobernuak ijitoen zokoratzea bultzatzen du, heziketa mailan kultur ezberdintasunak ezagutzen ez dituelako. |
| 5 | Aukera berdintasuna dugu denok; toki berera heltzen ez bagara, batzuk besteak baino gehiago saiatzen direlako da. |
| 6 | Ijitoen eta paioen arteko elkarbizitzaren arazoa ijitoen kulturaren ezezagutzari eta gehiengoaren taldearen intolerantziari zor zaio. |
| 7 | Ijitoak eta paioak arazorik gabe bizi dira elkarrekin. |
| 8 | Ijitoak gizarteko toki apartatuetan bizitzea da guztiontzat onena. |

## 45. ARROTZA

***Helburuak:***

- Marjinazio egoerak agerian jarri eta aztertu.
- Talde barneko komunikazioa suspertu: Entzute aktiborako azturak garatu.
- Komunikazio prozesuen bidez berregituraketa kognitiboa sustatu.
- Bestearen ikuspuntuan kokatzeko eta enpatiarako gaitasuna kitzikatu.
- Gizarte egoera gatazkatsuak ebazteko teknikak ikasi.

***Jardueraren deskribapena:***

*1. fasea*

Irakasleak kondaira bat (Hassan-en kondaira) irakurtzen du talde handian. «12 urteko mutil marokoar bat da Hassan. Bere aitak eraikuntzan lan egiten du eta bere amak garbiketa enpresa batean. Duela urtebetetik, bere gurasoak lurralde honetara bizi izatera etorri ziren unetik etortzen da eskola honetara. Ikastetxean, sarritan bere adiskideak jotzen ditu eta beren jostailuak kentzen dizkie. Bere lagunak asperturik daude berarekin, eta albora uzten dute. Taldean zokoratua dago. Ia inorekin ez du hitz egiten, nahiz eta hemengo hizkuntza dezente menperatzen duen, eta lagunik ez du. Batzuetan bere baitan bildua eta besteetan erasokor agertzen da. Gainera, eskolako arlo batzuetan besteak baino atzeratuxeago doa. Irakasleekin ere ez da ongi konpontzen eta inoiz ikasgelatik kanporatu dute. Hassanek bere lurraldearen eta han utzi zuen guztiaren herrimina du». Entzun duzuen bezala, Hassan-ek arazo batzuk dituela dirudi. Zer pentsatzen dugu gerta dakiokeela Hassan-i? Kondaira kontatu ondoren, hamar minutuz taldeko kideak zirikatzen ditu irakasleak Hassan-en jokaeraren eta arazoen zergati posibleak aztertuz, bere sentimenduei edo pentsamenduei buruzko erantzunak hitzez eman ditzaten. Hassan-en jokaeraz egiten diren egozpenak aztertzen dira (Hassan-en jokaeraren ardura nori egozten zaion).

*2. fasea*

Zortzi-hamar kideko ekipoetan zatitzen da taldea eta ekipo bakoitzak ondoko suposizio honetaz pentsatu behar du: «Hassan gure ikasgelan egongo balitz, zer egin ahal izango genuke hari laguntzeko?». Ekipo bakoitzak, lehenik, Hassan-i laguntzeko egokiak irudi lekizkiokeen soluziobide posible guztien zerrenda egin behar du. Bigarrenik, landutako zerrendatik soluziobide eraginkorrena aukeratu behar du ekipo bakoitzak (adostasunez edo gehiengoz) eta, azkenik, ekipoek egoera antzezten dute txandaka. Dramatizazioek ekipoak aukeratutako soluziobidea aurkeztu behar dute funtsean.

Oharra:

- Behatzailea: Hassan-en jokaeraren zergatiei buruzko erantzunak (jokaerari dagokionez egiten diren egozpenak) eta debatean esandakoak idatzi. Ekipo bakoitzaren soluziobideen zerrenda bildu.

***Eztabaida:***

*1. fasea:* Hassan-en arazoen zergatiei buruzko erantzunen azterketa. Zer egozten zaio bere jokaerari? (kanpokoa, barnekoa...).

| | |
|---|---|
| *2. fasea:* Dramatizazioaren ondoren, talde handian, ekipoek zerrendan jarri dituzten beste soluziobide posibleak irakurtzen dira eta debate bat hasten da komentaturiko soluziobideen egokitzapenari buruz. | |
| ***Materialak:***<br>Dramatizaziorako materialak. Folioak eta boligrafoak. | ***Denbora:*** 1 or. 30'.<br>***Talde egituraketa:*** TH-TT-TH. |

## 46. DISKRIMINAZIO EGOERAK

***Helburuak:***

— Talde barnean diskriminazio egoerak identifikatu.
— Diskriminazio egoeren soluziobide posibleak aurkitu, berdinen taldearen testuinguruan.
— Talde barneko komunikazioa sustatu. Beste adiskideen sentimendu eta pentsamenduen entzute arretatsua.

***Jardueraren deskribapena:***

Jarduera hau talde handian egiten da eta irakaslea diskriminazio kontzeptua definitzearekin hasten da (diskriminatu = arraza, sexu, eskola maila, klase maila... ezberdintasunak aipatuz bereizketa egin). Lehen une batean taldeko kide bakoitzak, banaka eta modu anonimoan, «bere taldeko adiskideen aldetik diskriminatua sentitu den edo diskriminatua sentituko litzatekeen egoera bat» deskribatzen du paper puska batean. Lehen pertsonan deskribatu behar du.

Bigarrenik, paperak tolestatzen dira, nahasten dira eta partaide bakoitzarentzat paper bat birbanatzen da (berak idatzitako papera egokitzen bazaio, poltsara itzultzen da eta beste bat hartzen da). Partaide bakoitzak egokitu zaion papertxoa irakurtzen du eta hura idatzi duen pertsonaren azalean sartzen da, arazoa bere bihurtuz. Irakurri ondoren, bere ustez arazoa nola konponduko lukeen idatziko du minutu batez (lehen pertsonan idatziz). Honela, irakurleak egoera honentzako soluziobideetan pentsatzen du, bera han inplikaturik balego bezala, eta paperean idazten ditu. Denek beren papertxoan agertzen den diskriminazio egoerarentzat soluziobideak idatzi dituztenean, lehen pertsonan planteaturiko arazoa eta pentsatu dituen soluziobideak ozenki irakurtzen ditu taldeko kide batek. Taldeko gainontzekoak egokiak iruditzen zaizkien beste soluziobideak planteatzen saiatuko dira. Diskriminazio egoera tratatzeko beste moduak agertzen badira, papertxoan eransten dira. Honela, bata bestearen atzetik eta bizkorki taldeko kide guztiek beren adierazpenak egiten dituzte.

Oharrak:

— Irakaslea: Talde handian egindako jardueraren emaitzen integraziorako denbora gutxi baldin badago, partaideei zera eska lekieke; beren papertxoak diskriminazio egoerekin eta beren soluziobideekin ilaran erakusteko, taldeko kide bakoitzak bere arazoari planteaturiko soluziobidea ikusteko aukera izan dezan. Irakaslea zoruan aurkitzen den papertxoen ilararen aurrean jartzen da taldearekin batera, egoerak eta haiei aurre egiteko proposaturiko moduak azkar irakurtzen ditu eta komentatu egiten dira. Halakorik gertatuko balitz, irakasleak iragazi egin behar ditu agian positiboak ez diren soluziobideak, haietaz arreta deituz (ikus adibidea 3. kapituluan, «Jardueraren ekoizpenak» epigrafean.).
— Behatzailea: Diskriminazio egoerak eta ebazpen moduak deskribatzen dituzten papertxoak bildu. Debatean esandakoak idatzi.

***Eztabaida:***

Debate edo eztabaida fasean, planteaturiko diskriminazio egoerak eta proposaturiko soluziobideak komentatzen dira lehenik. Antzeko egoerak egongo dire-

nez, eta debatea malguago bihurtu asmoz, elkartu eta erlazionatu daitezke. Horretarako diskriminazio egoera bat eta bere soluziobideak komentatzen dira eta ondoren galdetzen da ea antzeko beste egoerarik badagoen, sintetikoki komentatuz. Irakasleak negatibotzat edo ez-eraginkortzat jotzen dituen soluziobideak emango balira, soluziobide horren ondorenez galderak egin dakizkioke taldeari; galdera horiek eraman dezakete taldea emandako soluziobidearen egokitzapen gabeziaz hausnartzera eta hura argitzera.

Egoeren eta haien ebazpenen erakusketa amaitzean, esandakoa (planteaturiko egoerak eta soluziobideak) laburbil daiteke eta debatea zabalduko duten galderak egin daitezke: Baliagarriak izan al dira bakoitzak planteaturiko diskriminazio egoerak ebazteko iradokizunak? Besteen iritzi eta esperientziak lagungarriak al dira? Hobeto ulertzen al ditugu orain diskriminazio esperientziak eta haiek tratatzeko modua? Zeintzuk dira maiztasun handienaz nabarmendu diren egoerak? Nola ekidin dezakegu besteenganako jarrera diskriminatzaileak edukitzea?

| | |
|---|---|
| ***Materialak:*** Folioak eta boligrafoak. | ***Denbora:*** 60'. ***Talde egituraketa:*** BA-TH. |

## 47. MUTILAK ETA NESKAK

***Helburuak:***

- Sexuari dagozkion diskriminazio egoerak identifikatu.
- Beste sexuko kideekiko elkarreraginean jokaera atsegingarri eta desatsegi-nei buruzko informazioa trukatu.
- Sexuen arteko elkarreraginetan hobekuntza bultzatu.
- Talde barneko komunikazioa suspertu.

***Jardueraren deskribapena:***

Sexu bereko zazpi edo zortzi partaideko ekipoak eratzen dira. Lehenik, 15-20 minutuko denbora batez, eman zaien galdekizuna betetzen dute ekipoek, taldeko kide guztiek azaldutako ideiak bilduz. Ondoren, talde handian, ekipo bakoitzaren erantzunak jasotzen dira eta adierazitako oinarrizko ideiak eztabaidatzen dira. Azkenik, sexuen arteko elkarreraginaren hobekuntzarako aldaketa helburuak adierazten dira.

Oharra:

- Behatzailea: Ekipo bakoitzaren galdekizunak bildu. Debate fasean taldeak hitzez adierazitakoak egunkarian idatzi.

***Eztabaida:***

Galdekizunetan adierazten diren edukien inguruan planteatzen da debatea. Ekipo bakoitzaren ondorioak erakusten dira, oinarrizko ideiak sintetizatzen dira, nabarmendutako edukiak eztabaidatzen dira eta aldaketa helburuak adierazten dira.

Diskriminazio jarrerak agertu al dira? Taldeko elkarrizketak beste sexukoak hobeto ezagutzen lagundu al du?

Ondorioa: Ezberdintasunak gora behera, berdintasunak gehiago ditugu desberdintasunak baino (antzeko desirak, premiak, kezkak, fantasiak, beldurrak...).

| | |
|---|---|
| ***Materialak:*** Galdekizuna eta boligrafoa (ekipoko bat, sexuaren arabera aukeratua) | ***Denbora:*** 60'. ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |

## 47. Mutilak eta neskak: galdekizuna (mutilentzako bertsioa)

Zer da mutil izatetik gustatzen zaidana?

Zeintzuk dira mutil izatetik tristatzen nauten esperientziak?

Zer zailtasun ditugu mutil bezala, geure sexu bereko pertsonekin?

Zer ez dugu berriro esperimentatu nahi mutil bezala beste sexuko pertsonengandik?

Zer egin dezakegu neskak ulertu eta sostengatzeko, gure artean harreman hobeak sortzeko?

Okasioren batean baztertuak sentitu al zarete mutil izateagatik? Zeinetan?

## 47. Mutilak eta neskak: galdekizuna (neskentzako bertsioa)

Zer da neska izatetik gustatzen zaidana?

Zeintzuk dira neska izatetik tristatzen nauten esperientziak?

Zer zailtasun ditugu neska bezala, geure sexu bereko pertsonekin?

Zer ez dugu berriro esperimentatu nahi neska bezala beste sexuko pertsonengandik?

Zer egin dezakegu mutilak ulertu eta sostengatzeko, gure artean harreman hobeak sortzeko?

Okasioren batean baztertuak sentitu al zarete neska izateagatik? Zeinetan?

## 48. NAZIOARTEKO JATETXEA

***Helburuak:***

- Munduan goseak eta txirotasunak duten hedadura eta ipar eta hegoko herrien artean baliabideak nola banaturik dauden ikusi.
- Diskriminazioa esperimentatu, elikagaien gaiaren bidez neurri txikian nazioarteko ordena ekonomiko zuzengabekoa bizituz.
- Gatazka horren (aberastasunaren zuzengabeko banaketa) azterketa eta ikasketa bultzatu.
- Lurralde alboratuekiko, ekonomikoki diskriminatuekiko enpatia bultzatu.
- Arazoak ebazteko ekintza motei buruz, hau da, munduko baliabideak banatzeko estrategia zuzenago eta berdintzaileagoei buruz hausnartu.
- Gizabanakoen, taldeen, nazioen... elkarrekiko menpekotasun harremanak agerian jarri.

***Jardueraren deskribapena:***

Munduko baliabideen banaketa desberdina simulatzen duen egoera bat proposatzen da jarduera honetan; egoera horretan, ondasunen jabetzaren eta ongizate materialaren baldintza ezberdinetan jartzen dira taldeko kideak.

*Prestakuntza fasea:*

Partaide bakoitzari eskatu, saioaren egunean elikagaiak (gailetak, gozokiak, frutak, kakahueteak, olibak, ogitartekoak, esnea, ogi-xerrak, fruitu lehorrak, zukuak...) eraman ditzala eskolara. Taldeko kide bakoitzak eraman behar dituen elikagaiak aurrez adostu daitezke.

Saioa hasi aurretik, elikagaiak lau pilatan zatitu, kantitatea eta kalitatea progresiboki txikituz:

- A pilan elikagai onenak daude (ogitarteko zaporetsuak, zukuak, frutak, kalitateko gailetak...) eta eskura dagoen janari kopuru osoaren erdia hor dago.
- B pilan nahiko oinarrizko janari barietate badago, kantitate eta kalitate txikiagoan bada ere (gailetak, esnea, hain zaporetsuak ez diren ogitartekoak). Guztiaren laurden bat dago hor.
- C pilan gaileta lehorrak, ogia eta ura besterik ez dago, eta guztiaren laurdena ordezkatzen du.
- D pilan ura besterik ez dago.

*Garapen fasea:*

Taldeari azaltzen zaio elikagai pilek munduko elikagaiak ordezkatzen dituztela. Laburki deskribatzen dira eta ikasleak lau taldetan desberdinki banatzen dira. Zoriz banatzen diren lau koloretako txartelen sistemaz egiten da partaideen banaketa (kolore bat pila bakoitzeko, A pilarako bost, B pilarako hamar, C-rako hamar eta D-rako bost). Partaide bakoitzak kolore bateko txartela hartzen du eta kolore horrek errepresentatzen duen pilan kokatu behar du. Adibidez, 30eko talde batean banaketa honako hau izan daiteke:

- A taldea: bost kide (A pila berentzat dute, janari asko eta kalitatekoarekin).
- B taldea: hamar kide (B pila berentzat dute, kalitate ertaineko nahiko janarirekin).

— C taldea: hamar kide (gaileta lehorrak, ogia eta ura bakarrik dituen C pila balia dezakete).

— D taldea: bost kide (ura bakarrik duen D pila balia dezakete).

Gainera, A taldekoak eroso eseriko dira (aulkiak eta kuxinak) eta espazio handia dute berentzat. B taldekoak ere eroso eseriko dira, baina espazio gutxiago dute; bere kideentzat espazio juxtua. C taldekoak zoruan eseriko dira eta espazio txikia dute. D taldekoak zutik eta pilaturik egongo dira, gelaren ertz batean, batzuk besteei itsatsita.

Elikagai ezberdinek sinbolizaturiko baliabideen banaketak aberastasunaren eta kontsumoaren banaketaren munduko eskemak islatzen dituela azaltzen du irakasleak, eta elikagaiak pilatan sailkaturik dauden bezala banatuko direla planteatzen du. Puntu honetan hasten da debatea: talde ezberdinei eskatzen zaie taldeko gainontzekoei deskriba diezazkietela dauzkaten elikagaiak eta pertsona bakoitzeko zenbat dituzten; asko, dezente, gutxi edo ezer ez edukitzeagatik dituzten sentimenduez eta bizitako erosotasun mailen berri emanez.

Debatea amaitzean, aberastasunen banaketa desberdineko egoeren zergatiez eta beren soluziobideaz hausnartu ondoren, elikagai guztiak ikasgelaren erdian biltzen dira, partaideak posizio zirkularrean esertzen dira janarien inguruan eta askari bat egiten da denon artean. Saioaren azken minututako askariaren buruan komenta litezke elikagaiak berdintasunez banatzean bizitako sentimenduak, aurreko fasean bizi izandakoekin alderatuz.

Oharra:

— Behatzailea: Prozesuaren buruan gertatzen diren jokaerak, debate fasean esandakoak eta agertzen diren zergati eta soluziobideen sintesia idatzi.

***Eztabaida:***

Zeintzuk dira asko, gutxi, ia ezer ez edo batere ez edukitzean bizi izandako sentimenduak? Irudika al dezakezue nola sentitzen diren egoera hau egunero bizi duten pertsonak? Zeintzuk dira zuen iritzian gosearen zergati nagusiak? Zergatik gertatzen dira gertaera hauek? Nola bana litezke munduko baliabideak zuzen eta berdintasunez? Idatzi arbelean taldean komentatzen diren zergatien eta soluziobideen zerrenda).

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
|---|---|
| Elikagaiak. Paperezko mantelak, platerak eta plastikozko edalontziak. Lau koloretako txartelak (A taldearentzat bost, B taldearentzat hamar, C taldearentzat hamar eta D-rentzat bost). Kuxinak (batzuk, A eta B taldearentzat) edo aulkiak. | ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |

## 49. BAIEZTAPENAK ETA GERTAERAK

***Helburuak:***

- Gertaerak eta iritziak bereizi.
- Emigranteei buruzko sinesteak aztertu, besteen sinesteekin eta errealitateko datuekin kontrastatuz.
- Hirugarren munduko emigrazioari buruzko ezagutzak eskuratu.

***Jardueraren deskribapena:***

Taldeko kide bakoitzak erantzun orri bat jasotzen du eta bertan zenbait esaldi edo baieztapen agertzen dira. Irakasleak ozenki irakurtzen du baieztapen ezberdin bakoitza eta partaideek, banaka, adierazten diren baieztapenak egiazkoak ala gezurrezkoak direla uste duten eta beren erantzunak (denbora bat ematen da esaldi bakoitzari erantzun diezaioten eta beren erantzuna argudia dezaten) zein arrazoi, esperientzia, oroitzapenengatik... planteatzen dituzten idatzi behar dute. Ondoren, esaldi bakoitzari emandako erantzunez eta berauen arrazoiketez galdetzen du irakasleak. Argudioen azalpena entzun ondoren, baieztapena egiazkoa ala faltsua den esaten du irakasleak eta bere baieztapena sostengatzen duten errealitateko datuak ekartzen ditu. Baieztapenen azterketa amaitzen denean, hirugarren munduko emigrazioaz dauzkagun sineste orokorrei buruzko, berauen jatorriari buruzko eta irudi okerrak aldatzen lagun dezaketen ekintza arauei buruzko debate bat hasten da.

Oharrak:

- Irakaslea: Irakurtzean baieztapenetan ( adibidez, malaria...) agertzen diren kontzeptu esplizituak argitzea garrantzitsua da, jarduera honekin taldeko kideen ezagutzak zabaltzea ere lortu nahi baita. Dena den, ikertzen direnak sinesteak dira eta ez ezagutzak; beraz, lana ez da asmatze hutsegite eskemaren arabera planteatu behar. Taldeko kideek dituzten pertzepzioei buruzko balio iritziak ere ez dira eman behar. Informazio berriak eskuratuz norbere hautemateak argitzea, besteenekin kontrastatzea eta beren jatorria aztertzea da helburua.
- Behatzailea: Taldeko kide bakoitzak emandako esaldia eta erantzuna agertzen duten banakako erantzun orriak bildu. Baieztapenei lotuta esandakoak idatzi.

***Eztabaida:***

Hirugarren Munduko emigranteei buruz zer uste nagusitu dira? Ondoko puntu hauetan lagunduko duten beste galderak: 1) ditugun ideia eta hautemateen jatorria aztertu (kazetak, liburuak, komikiak, filmak, gurasoak, eskola...) eta 2) irudi okerrak aldatzen lagunduko duten elementuak argitu.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 30'. |
|---|---|
| Irakaslearentzako materiala. Erantzun orria eta boligrafoa (partaideko bat). | ***Talde egituraketa:*** BA-TH. |

## 49. Baieztapenak eta gertaerak: irakaslearentzako materiala

| |
|---|
| **Madrileko Erkidegoko atzerritar kopuru handiena Hirugarren Munduko lurraldeetatik etorria da.**<br>*Faltsua*: Kalkulatzen denez, Madrileko Autonomia Erkidegoan 180.000 atzerritar bizi dira; horietatik erdiak Lehen Munduko lurraldeetatik etorriak dira. Beste erdia Hirugarren Mundutik etorria da. |
| **Hirugarren Munduko etorkinek dauzkaten gaixotasun nagusiak hemen dituzten bizi baldintzek eragindakoak dira.**<br>*Egia:* Beren lurraldeko bizi baldintzek eragindako gaixotasunek baino askoz ere maiztasun handiagoa dute gaixotasun hauek. |
| **Hirugarren Munduko etorkinak beren lurraldean dituzten gose eta txirotasunagatik etortzen dira gure lurraldera.**<br>*Faltsua*: Ez da guztiz egia. Emigrazio prozesu orotan bi polo daude: etorkinak eta etorkinen hartzaileak. Emigrazioa egon dadin emigranteek bizi baldintzak hobetu nahi izatea eta lurralde hartzaileek garapen ezaugarriak edukitzea beharrezkoa da. |
| **Gure lurraldean ditugun malaria eramaile nagusiak lurralde tropikaletatik datozen etorkinak dira.**<br>*Faltsua:* Gure lurraldean dugun malariaren % 25 bakarrik da etorkinek ekarria; gainontzekoa turistek eta bidaiariek ekarria da. |
| **Etorkinen gehiengoa gizonak dira**<br>*Faltsua*: Kolektibo bakoitzaren barnean asko aldatzen da, baina oro har, gutxi gorabehera erdiak gizonak dira eta beste erdiak emakumeak. |
| **Hirugarren Munduko etorkinen gehiengoarentzat etxebizitzari dagokion arazo nagusia, dirua edukita pisuak alokatu ezin izatearena da.**<br>*Egia:* Arazo nagusia ez da baliabide ekonomikoen gabezia, pisu jabeek beraiei alokatu nahi ez izana baizik. |
| **Etorkinek lanpostuak kentzen dizkiete bertakoei**<br>*Faltsua*: Etorkinek Espainiako lan merkatuaren gain eragiten duten presioa eskasa da, hau da, lanpostuak lortzeko lehiarik ez dago ia. Bertakoei interesatzen ez zaizkien lanak egiten dituzte. |
| **Etorkinek ez dute batere zerikusirik droga trafikoarekin**<br>*Faltsua:* «Batere ez dutela» esatea, gehiegi esatea litzateke; dena den, kolektibo horren barnean gutxiengo bat besterik ez da. |

## 49. Baieztapenak eta gertaerak: erantzun orria

| |
|---|
| Madrileko Erkidegoko atzerritar kopuru handiena Hirugarren Munduko lurraldeetatik etorria da. |
| Hirugarren Munduko etorkinek dauzkaten gaixotasun nagusiak hemen dituzten bizi baldintzek eragindakoak dira. |
| Hirugarren Munduko etorkinak beren lurraldean dituzten gose eta txirotasunagatik etortzen dira gure lurraldera. |
| Gure lurraldean ditugun malaria eramaile nagusiak lurralde tropikaletatik datozen etorkinak dira |
| Etorkinen gehiengoa gizonak dira |
| Hirugarren Munduko etorkinen gehiengoarentzat etxebizitzari dagokion arazo nagusia, dirua edukita pisuak alokatu ezin izatearena da. |
| Etorkinek lanpostuak kentzen dizkiete bertakoei |
| Etorkinek ez dute batere zerikusirik droga trafikoarekin |

## 50. BERTAKOAK ETA ARROTZAK

***Helburuak:***

— Norberaren kultur taldekoen eta talde horretakoak ez direnen hautemateak ezagutu.
— Atzerritarrekiko jarrera diskriminatzaileak, arrazistak eta aurreiritzizkoak argitu.
— Talde barneko komunikazioa suspertu: Entzute aktiborako azturen garapena.
— Komunikazio prozesuen bidez berregituraketa kognitiboa suspertu.

***Kontzeptuen definizioa:***

*Arrazismoa:* Arraza baten besteekiko nagusitasuna baieztatzen duen doktrina.

*Etnozentrismoa*: Norberaren talde sozialaren jarrera eta baloreak paradigma unibertsal bezala kontsideratzeko joera. Talde etniko batzuei buruz adierazpen erasokorrak egiteko eta subjektuaren identifikazio taldeetatik datorren guztiaren alderako jarrera akritikoa agertzeko joera...; nire taldearen eta besteen arteko bereizketa zurrunean oinarritzen da. Beste taldeekiko aurreiritzia edo etsaitasunezko jarrera eta norbere taldeari mesede egiteko joera.

*Xenofobia:* jatorri sozialeko sugestio batek eragindako arrotzarekiko gorrotoa.

*Diskriminatu:* Arraza, gizarte, sexu... ezberdintasunak alegatuz bereizkuntza egitea.

***Jardueraren deskribapena:***

Partaide bakoitzak folio zuri bat hartzen du. Banaka, eta bost minutuko denbora batez, hau idatzi behar du: Zer da atzerritar bat? Gero prozedura bera jarraitzen da, baina orain bere lurralde bereko pertsonak definitu behar ditu: Zer da ... (taldearen nazionalitate nagusia izendatu) bat? Deskribapen biak burutu ondoren, bost edo sei kideko talde txikietan biltzen dira eta hamabost minutuz ekipoko kide guztien ideiak folio batean laburbiltzen saiatzen dira, bere lurraldeko pertsona bati buruz duten irudia eta atzerritar baten irudia argitzen saiatuz. Azkenik, eta talde handian, debate bat hasten da ekipoetan nabarmendutako irudiak argitzeko eta, agertuko balira, jarrera etnozentriko eta diskriminatzaileak seinalatzeko.

Oharra:

— Behatzailea: Taldeko kide bakoitzak gauzatutako deskribapenak bildu, ondoren aztertzeko. Debatean esandakoak idatzi.

***Eztabaida:***

Debate fasean, lehenik, ekipo bakoitzak «bertako eta atzerritar» kontzeptuei buruz emandako informazioak erakusten dira, eta agertzen diren edukien arabera galdera edo iruzkin egokiak planteatzen dira. Taldeko kideek beste lurraldetako pertsonekin edukitako esperientzia errealak erakuts ditzaten sustatu.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
|---|---|
| Folioak eta boligrafoak. | ***Talde egituraketa:*** BA-TT-TH. |

## 51. ARGAZKI GATAZKATSUAK

***Helburuak:***

— Diskriminazioko egoera gatazkatsuak aztertu (gosea, Hirugarren Munduko lurraldeetako haurren laneko esplotazioa...)
— Talde barneko komunikazioa suspertu.
— Gatazka ezberdinen ebazpenerako proposamen posibleez hausnartu.

***Jardueraren deskribapena:***

Taldea lau ekipotan zatitzen da eta bakoitzari egoera arazotsu bat adierazten duen argazki multzo bat ematen zaio, adibidez, eskasia, urritasuna eta gose egoerak agertzen dituzten argazkiak. Hamabost minutuz egoera aztertzen dute eta aipatu gatazkari emango lizkioketen soluziobide posibleak seinalatzen dituzte, pertsona ezberdinen ikuspegia hartuz (norbere taldea, inplikatuak, politiko bat, hiritar normal bat...). Ekipoek proposaturiko soluziobideak talde handiko egoeran hitzez agertzen dira, beraien aldeko eta kontrako puntuak aztertuz.

Oharrak:

— Irakaslea: Gai ezberdinak erakusten dituen argazki multzo bat plantea daiteke, adibidez diskriminazio egoeren eta oparotasun egoeren arteko kontrastea, haurren laneko esplotazioa laborala... (ikus adibidea 3. kapituluan, «Jardueraren ekoizpenak» epigrafean).
— Behatzailea: Erabilitako argazkien kopia bat eta ekipo bakoitzaren erantzun orriak jaso. Planteaturiko soluzio proposamenak eta debatean esandakoak egunkarian deskribatu.

***Eztabaida:***

Proposaturiko soluziobideen erakusketaren eta haien egokitzapenaren azterketaren inguruan gertatzen da debatea.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
|---|---|
| Egoera arazotsuak agertzen dituzten argazkiak (adibidez, urritasun eta gose egoerak). Folioak eta boligrafoa.<br>Ikus erabilitako argazkien adibideak. | ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |






## VII. MODULUA
## Gatazken ebazpena

### 52. LAPURRETA

***Helburuak:***

— Dilema moral bati aurre egin.
— Gatazka horren aurrean gerta daitezkeen ikuspegi ezberdin posibleei buruz talde barneko komunikazioa suspertu.
— Egoera arazotsuaren ebazpenerako teknika ezberdinak azaldu eta aztertu.
— Dramatizazio bidez emozioak adierazi.

***Jardueraren deskribapena:***

Ondoko kondaira hau planteatzen zaio taldeari: «Arratsaldea elkarrekin igarotzekotan gelditu dira lagun batzuk. Jonen etxera joan eta hark dituen joko batzuekin jostatzea erabaki dute. Etxera itzultzerakoan, Xabierrek Joni jostailu bat lapurtu diola konturatu da Kepa. Kepa nahasturik dago. Ez zaio ongi iruditzen bere lagunak egin duena, baina ez daki zer egin. Zer sentitzen du? Zer egin dezake?»

Kondaira kontatuta gero, zazpi-zortzi partaideko ekipotan zatitzen da taldea. Lehenik, lagunak lapurreta egiten duen egoera gatazkatsu honi erantzuteko era posible guztien zerrenda egiten dute (ideien zurrunbiloaren fasea). Ondoren, egoera horri aurre egiteko kontsideratu dituen jokaera posibleak eztabaidatuz, landutako zerrendatik egokiena iruditzen zaion erantzuteko modua aukeratzen du ekipo bakoitzak (ideien ebaluazioaren fasea). Ekipoek arrazoitu egin behar dute zergatik jotzen duten egokientzat soluziobide hori. Kondairaren egoera eta ekipo bakoitzak aukeratutako soluziobidea laburki agertu behar ditu dramatizazioak. Hau amaitutakoan, egoera horri erantzuteko modu asertiboak, erasokorrak edo pasiboak argituko diren debatea hasten da. Eztabaida fasea amaitzean, talde handian debate osagarri bat plantea liteke, emakume gaixoaren dileman oinarrituta (ikus aldaera). Hala ere, aldaera bezala planteaturiko egoera beste saio batean ere landu liteke askeki.

Oharrak:

— Irakaslea: Ager litezkeen erantzun posible batzuk: jostailua itzultzeko eskatu, itzultzen ez badu, bere laguna ez dela izango esan, errieta egin, zergatik egin duen galdetu...
— Behatzailea: Ekipo bakoitzak gauzatutako soluziobideen zerrendak bildu. Dramatizatzeko aukeratutako soluziobideak, haiei buruzko arrazoibideak eta debatean sor litezkeen solasaldiak idatzi.

Aldaera:

— *Emakume gaixoaren dilema*: Egoera ekonomiko oso baxuko sendi baten aurrean gaude. Emakumea bat-batean gaixotu egiten da eta sendagileak sendagai batzuk agintzen dizkio, baina diru faltaz ezin eros ditzake. Emakumeak osasuna berreskura dezan, sendagaiak lapurtzea planteatzen du se-

narrak. Zer egingo zenuke zuk egoera horretan? Sendagaiak lapurtuko al zenituzke? Zer eskubide dago auzi honen azpian?

***Eztabaida:***

Lapurretaren dramatizazioaren ondoren, ekipoek antzeztutako soluziobideak komentatzen dira lehenik, eta ekipo bakoitzak soluziobide hori zuzenena bezala jotzeko erabilitako arrazoibidearen berri ematen du, aukeratutako erantzunak aztertzen diren bitartean (erantzun pasiboa, erasokorrak, asertiboak bereizi). Ondoren, ekipo bakoitzean proposaturiko beste soluziobideak irakurtzen dira, erantzun asertiboak (pentsatzen eta sentitzen duena bestea zauritu edo gutxietsi gabe esaten du), erasokorrak (pentsatzen eta sentitzen duena bestea gutxietsiz edo zaurituz esaten du) edo pasiboak (ez du esaten sentitzen duena edo pentsatzen duena, eta bestearen menpe jartzen da) diren argituz. Eskueran duten denboraren arabera, emakume gaixoaren dilema debatearen azken fase bezala sar liteke. Dilema honetan taldearen kideak lapurreta justifikatua dagoen beste egoera baten aurrez aurre jartzen dira. Gaixoaren dilema morala sartzen bada, jardueraren garapen osoa burutu ahal izateko bi ordu behar dira.

| | |
|---|---|
| ***Materialak:*** Folioak eta boligrafoak. Dramatizaziorako materialak. | ***Denbora:*** 1 or. 30'. ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |

## 53. ERASOA

***Helburuak:***

— Norbaiten aurkako eraso fisiko zuzengabekoa agertzen duen egoerari aurre egitea.
— Gatazka horren aurrean har daitezkeen ikuspegi ezberdin posibleei buruzko talde barneko komunikazioa suspertu.
— Egoera arazotsuaren ebazpen teknika ezberdinak, erasoari erantzuteko modu ezberdinak aztertu.
— Dramatizazio bidez emozioak adierazi.

***Jarduerarem deskribapena:***

Ondorengo kondaira hau planteatzen zaio taldeari: «Mikel pilota batekin patioan jostatzen ari da eta Aitorrek bultza egin, lurrera bota eta pilota kentzen dio. Mikel saiatzen da lurretik altxatzen, baina Aitorrek berriro bultza egiten dio eta berriro erortzen da. Zer sentitzen du egoera horretan? Zer egin dezake?».

Kondaira kontatu ondoren, zazpi-zortzi partaideko ekipoetan zatitzen da taldea. Lehenik, pertsona bat arrazoirik gabe erasoa den egoera gatazkatsu bati erantzuteko modu posible guztien zerrenda egiten da (ideien zurrunbiloaren fasea). Gero, egokiena iruditzen zaion erantzuteko modua aukeratzen du ekipo bakoitzak, egoera horri aurre egiteko kontuan hartu dituen jokaera posibleak eztabaidatuz (ideien ebaluazioaren fasea). Ekipo bakoitzak arrazoitu behar du zergatik jotzen duen egokiena soluziobide hori. Soluziobide onena adostasunez aukeratzea lortzen ez badute, gehiengoz aukeratzen dute (bozketaz). Hirugarrenik, egokientzat jo den soluziobidea nabarmentzen duen eszena bat dramatizatzen du ekipo bakoitzak. Kondairaren egoera eta ekipo bakoitzak aukeratutako soluziobidea agertu behar ditu laburki dramatizazioak. Dramatizazioa amaitzean debateari ematen zaio hasiera. Eztabaida fasea amaituta, talde handian debate osagarri bat plantea liteke, heriotza zigorraren dilematik abiatuta (ikus aldaera). Dena den, aldaera bezala planteaturiko egoera beste saio batean ere landu liteke independenteki.

Oharrak:

— Irakaslea: Ager daitezkeen erantzun posibleetako batzuk: irakasleari esan, bultza egin, barkatzeko esan...
— Behatzailea: Ekipo bakoitzaren soluziobideen zerrendak bildu. Soluziobide dramatizatuak, haiei emandako arrazoibideak eta debatean esandakoak idatzi.

Aldaera:

— *Heriotza zigorraren dilema:* Behin irratian entzun duzu gazte batek lehergailu bat jarri duela eraikin batean eta eztandaren ondorioz bi pertsona hil direla. Atxilotu dutenean, epaitu egin dute eta azkenean zigorrik handiena eman zaio: heriotza zigorra. Epaiaren alde egongo al zinateke? Zergatik? Erailtzea ongi dagoela pentsatzen al duzu? Norbait erail al daiteke hark beste norbait erail duelako? Nola uste duzu sentituko dela kondenatuaren sendia? Eta eztandan hildakoen sendia?

***Eztabaida:***

Dramatizazioaren ondoren, ekipoek aurkeztutako soluziobideak komentatzen dira lehenik eta soluziobide hori zein arrazoirengatik jo duen eraginkorrentzat

esan behar du ekipo bakoitzak, aukeratutako erantzunak aztertzen diren bitartean (erantzun pasiboak, erasokorrak, asertiboak bereizi). Ondoren, ekipo bakoitzean proposaturiko beste soluziobideak irakurtzen dira, erantzun asertiboak (pentsatzen eta sentitzen duena bestea zauritu edo gutxietsi gabe esaten du), erasokorrak (pentsatzen eta sentitzen duena bestea gutxietsiz edo zaurituz esaten du) edo pasiboak (ez du esaten sentitzen duena edo pentsatzen duena, eta bestearen menpe jartzen da) diren argituz. Ekipoen erantzunak erasokorrak edo pasiboak badira, irakasleak, debatea amaitzean, bestearen erasoari erantzuteko modu positiboak izendatu behar ditu, hala nola, bere jokaeraz galdetu, bere jokaerak besteengan duen eragina eta hartatik bere pertsonarteko harremanetarako eratortzen diren ondorenak izendatu, kaltea ordaintzea eskatu, adibidez, «harekin hitz egin eta zergatik egin duen galdetu», «pilota itzul diezaiola eskatu», «bere jokaeragatik barkamena eskatu behar duela esan», «horrela lagunik ez duela izango esan»...

Eskueran duten denboraren arabera, heriotza zigorraren dilema debatearen azken fase bezala sar liteke. Dilema honetan beste egoera baten aurrez aurre jartzen dira taldeko kideak; egoera horretan erasoak ertzeko puntu batera, hots, bestearen heriotzara eramaten du. Heriotza zigorraren dilema morala sartzen bada, jardueraren garapen osoa burutu ahal izateko bi ordu behar dira.

| *Materialak:* | *Denbora:* 1 or. 30'. |
|---|---|
| Folioak eta boligrafoak. Dramatizaziorako materialak. | *Talde egituraketa:* TT-TH. |

## 54. ERREFUSATZEA (ARBUIOA)

***Helburuak:***

- —Lagunek norbait errefusatzen eta mesprezatzen duten egoera bati aurre egin, egoeraren azpian dautzan sentimenduak aztertuz.
- —Egoera arazotsuen ebazpenerako teknika ezberdinei buruz, errefusari erantzuteko modu ezberdinei buruz hausnartu.
- —Taldeak baztertu edo zokoratu dituen adiskideekiko enpatia suspertu.
- —Dramatizazio bidez emozioen adierazpena sustatu.

***Jardueraren deskribapena:***

Ondorengo istorio hau planteatzen zaio taldeari: «Anek arazoak ditu bere denbora libreko taldean. Adiskideek ez diote uzten beren jokoetan parte hartzen, arbuiatu egiten dute. Egun batean, larunbatean Rosaren urtebetetze jaira joateko planak egiten ari zen taldea. Anek, taldearengana hurbildu eta jaira joatea gustatuko litzaiokeela esaten die. Taldeko batek erantzuten dio ezin daitekeela joan, gonbidatua ez dagoelako. Zer sentitzen du Anek egoera honetan? Zer egin dezake?».

Istorioa kontatu ondoren, zazpi-zortzi partaideko ekipotan zatitzen da taldea. Lehenik, pertsona bat besteek errefusatzen eta zokoratzen duten egoera gatazkatsu honi erantzuteko modu posible guztien zerrenda egiten dute (ideien zurrunbiloaren fasea). Gero, ekipo bakoitzak egokiena iruditzen zaion erantzuteko modua aukeratzen du, egoera horri aurre egiteko taldeak kontsideratu dituen jokaera posibleak eztabaidatuz (ideien ebaluazioaren fasea). Ekipo bakoitzak arrazoitu egin behar du zergatik jotzen duen soluziobide hori egokientzat. Soluziobide onena adostasunez aukeratzea lortzen ez badute, gehiengoz aukeratuko dute. Hirugarrenik, ekipo bakoitzak errepresentazio dramatiko bat gauzatzen du, egokiena iruditu zaien soluziobidea nabarmenduz. Kondairaren egoera eta ekipoak aukeratutako soluziobidea erakutsi behar ditu laburki dramatizazioak. Dramatizazioa amaitzean, debatea hasten da. Eztabaida fasea amaitutakoan debate osagarri bat plantea liteke talde handian, adiskide berriaren dilematik abiatuta (ikus aldaera). Dena den, aldaera bezala planteaturiko egoera beste saio batean ere landu liteke askeki.

Oharrak:

- —Irakaslea: Erantzun posible batzuk: irakasleari esan, galderarik egin gabe taldean jolasean sartu, pilotak kendu, gozokiak jatera gonbidatu, jostailuak eskaini, kontuan ez hartu...
- —Behatzailea: ekipo bakoitzak gauzatutako soluziobideen zerrendak bildu. Dramatizatutako soluziobide aukeratuak, haien inguruko arrazoibideak, eta debatean esandakoak idatzi.

Aldaera:

- —*Adiskide berriaren dilema*: Egun batean irakasleak komentatzen du lagun berri bat integratuko dela taldean eta HIESa duen gaixo bat dela. HIESarekin erlazionaturiko alderdi batzuk azaltzen ditu irakasleak (kutsadura bideak) eta gaixo horrekin jostatu eta lan egiteagatik ezer ez dela gertatzen esaten du. Nola jokatuko zenuke zuk adiskide berria heltzean? Zure laguntza eskainiko al zenioke beste edozein ikasle bezala taldean integratu ahal

izateko? Harekin jolastuko al zinateke? Harekin elkarreraginik eduki gabe, albora geldituko al zinateke? Zer balio daude jokoan dilema honetan? Adiskidea nola sentituko litzatekeela uste duzu, adiskide guztiek errefusatuko balute?

***Eztabaida:***

Dramatizazioaren ondoren, lehenik, ekipoek antzeztu dituzten soluziobideak komentatzen dira eta ekipo bakoitzak esan behar du soluziobide hori zer arrazoirengatik jo duen zuzenentzat, aukeratutako erantzunak aztertzen diren bitartean (pasiboak, erasokorrak, asertiboak). Ondoren, ekipo bakoitzean proposaturiko beste soluziobideak irakurtzen dira, erantzun asertiboak (pentsatzen eta sentitzen duena bestea zauritu edo gutxietsi gabe esaten du), erasokorrak (pentsatzen eta sentitzen duena bestea gutxietsiz edo zaurituz esaten du) edo pasiboak (ez du esaten sentitzen duena edo pentsatzen duena, eta bestearen menpe jartzen da) diren argituz. Eskueran duten denboraren arabera, adiskide berriaren dilema debatearen azken fase bezala sar liteke. Dilema honetan beste errefus egoera baten aurrez aurre jartzen dira taldeko kideak. Adiskide berriaren dilema sartzen bada, jardueraren garapen osoa burutu ahal izateko bi ordu behar dira.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 1 or. 30'. |
|---|---|
| Folioak eta boligrafoak. Dramatizaziorako materialak. | ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |

## 55. ERREDAKZIO KONTSEILUA

***Helburuak:***

- —Emigrazio, marjinazio eta lagun gabeziako egoera bati aurre egin.
- —Egoera arazotsua aztertu eta haren soluziobide posibleei buruz hausnartu.
- —Etorkinen moldaera arazoak agerian jarri.
- —Talde barneko komunikazioa sustatu: adostasunez eta gehiengoz erabakiak hartu.
- —Zailtasun egoeran dauden pertsonekiko enpatia suspertu.

***Jardueraren deskribapena:***

Pertsona hipotetiko batek (kasu honetan mutil etorkin batek) bera aurkitzen den bakardade, marjinazio eta moldaera gabeziako egoera baten aurrean aholkua eskatuz idatzitako eskutitz bat irakurtzen da talde handian.

Eskutitza:

Nire izena Kunta da eta 13 urte ditut. Nire gurasoek gure lurraldetik joan egin behar izan zuten, han lanik ez zeukatelako. Duela bi urte Kenia utzi genuenetik nire lurraldeaz bestelako lurralde batean bizi naiz eta ez dut hemen gustura egoterik lortu. Nire lurraldekotik oso desberdina da eskola eta badira nire ikaskideek dakizkiten gauzak eta nik ez dakizkidanak, beraz, besteak baino atzeratuago noa. Nire azala ilunagoa da eta joaten naizen ikastetxeko adiskideek modu ezberdinean tratatzen naute. Taldean baztertuta aurkitzen naiz, hizkuntza berrian komunikatzea kostatzen zait, ez dut lagunik eta egoera honek oso triste jartzen nau. Zer egin dezaket?

Eskutitza irakurri ondoren, sei eta zortzi kide bitartean dituzten ekipotan biltzen dira partaideak. Ekipo bakoitza, hamabost minutuz, aldizkari baten erredakzio kontseilu bihurtzen da eta eskutitz bat idazten dio Kuntari; bertan, harekiko elkartasuna erakutsiz, egoera hori konpontzeko aholkuak ematen dizkiote. Ondoren, talde handian, eskutitzak irekitzen dira eta eskutitzen edukiei eta proposaturiko ekintzen eraginkortasunari buruzko debate bat hasten da.

Oharrak:

- —Irakaslea: Egoera arazotsu ezberdinak asma daitezke, eta haietan aholkua eskatu.
- —Behatzailea: Ekipo bakoitzak idatzitako erantzun eskutitzak jaso, ondorengo azterketarako. Planteatutako debatean esandakoak idatzi.

***Eztabaida:***

Egoera arazotsuari buruz erredakzio taldeak proposaturiko edukien inguruan planteatuko da debatea. Nola sentitzen da? Zer egin dezake bere egoera aldatzeko?

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
|---|---|
| Folioak eta boligrafoak. | ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |

## 56. HERRI EPAIMAHAIA

***Helburuak:***

- Beste kultur taldeekiko jarrera diskriminatzaile eta arrazistak argitu, kultura arteko gatazka egoera bati aurre eginez (ijitoak eta paioak).
- Gatazka aztertu, hari buruzko ikuspegi ezberdinak argituz.
- Soluziobide posibleez hausnartu.
- Talde barneko komunikazioaren bidez berregituraketa kognitiboa sustatu.
- Kulturalki ezberdinak diren gutxiengoei buruzko enpatia suspertu.

***Jardueraren deskribapena:***

Lehenik, egoera arazotsu bat aurkezten da talde handian, taldeak epaitu dezan. *Egoera arazotsua:* Udalak etxebizitza multzo bat eraiki du Donostiako auzo batean, ordura arte txabola kanpamendu batean bizi izandako ijito komunitate batentzat. Auzo horretako paio talde batek ijitoak auzo horretatik botatzeko eskatzen dio Udalari, haiek lapurretaz eta droga trafikoz akusatuz. Ijitoak auzoan kokatu zirenetik lapurreta batzuk gertatu dira eta auzokoek haiek salatzen dituzte egiletzat. Gainera, azken garaietan, auzokoek taxi ugari ikusi dituzte auzora etortzen, eta drogazale itxurako mutil gazteak etortzen dira barruan. Orain epaitegietara heldu da gaia eta guk egoera hau baloratu behar dugu.

Bigarrenik, hamabost minutuko denbora batez, bi azpitaldetan zatitzen da taldea; batak defentsa ekipoa osatuko du eta ijitoek auzoan jarrai dezaten defendatzeko argudioak bilatzen saiatuko da, eta besteak auzokoen aldeko argudioak emango ditu, ijito komunitate osoa auzotik bota dezaten eta txaboletara itzul dadin. Talde biek, gatazkaren aurrean datu positiboak eta negatiboak ekarriko dituzten lekukoen laguntzarekin, defentsa eta erasoa prestatuko dituzte.

Hirugarrenik, rolak banatzen dira eta auzia antzezten da. Irakasleak epailearena egingo du, eta egoera arautzeaz arduratuko da. Ekipo batek bere argudioen bozeramaile izango den abokatu defendatzailea aukeratuko du, eta besteak, ijitoen kontrako argudioak emango dituen fiskala aukeratuko du. Ijitoak defendatzeko edo haiei salaketa leporatzeko datuak agertuko dituzten hiru lekuko edukiko dituzte biek. Taldeko gainontzekoek epai-mahaiarena egingo dute eta epaia eman beharko dute. Epaia eztabaidatzeko behar duen denbora osoa izango du epai-mahaiak.

Oharrak:

- Irakaslea: Jarduera hau zenbait okasiotan plantea liteke, diskriminazio arazo ezberdinak aztertuz (nazionalitate diskriminazioa, erlijio bidezkoa...).
- Behatzailea: Ekipo bien aldeko eta kontrako argudioen erregistrorako orriak jaso. Kulturalki ezberdina den kolektibo horren defentsan edo erasoan agerian jartzen diren argudioak eta beste datuak idatzi.

***Eztabaida:***

Emandako epaiaren egokitasuna, hartara adostasunez edo gehiengoz heldu diren eta egoera horren aurrean zer beste epai posible eman daitezkeen planteatzen da debatean.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 1 or. 30'. |
|---|---|
| Folioak eta boligrafoak. Dramatizaziorako materialak. | ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |

## 57. TALDEKO BORROKA BAT

***Helburuak:***

— Erasoa nabarmentzen den gatazka batean agertzen diren igurikapenei edo pentsamenduei buruz talde barneko komunikazioa suspertu.
— Eraso egoeren ebazpen mekanismoak ikasi, aurre egiteko modu ezberdinen egokitzapenari buruzko hausnarketa eginez.

***Jardueraren deskribapena:***

Lehenik, ikasleei azaltzen zaie klasea amaitzean beren lagunik onenen artean gertatzeko den borroka baten zurrumurrua zabaldu dela eskolan. Zer pentsatuko lukete hau entzutean? Zazpi edo zortzi kidetako ekipotan zatitzen da taldea, eta kide bakoitzak egoera horren aurrean pentsamenduen zerrenda bat jasotzen du. Banaka, pentsamendu horien arteko hiru aukeratu behar dituzte, haiekiko duten adostasunaren arabera (egoera horren aurrean beraiek edukiko lituzketela uste duten hiru pentsamenduak). Ondoren, ekipo bakoitzeko kideek ekipoko idazkariari jakinarazten diote beren aukeraketa eta pentsamenduen maiztasunak ekipoko erantzunen sintesi orri batean biltzen dituzte. Gero, talde handian, emaitzen integrazioaren prozesu bera gauzatzen da (pentsamendu bakoitzaren maiztasunak taldean) eta pentsamendu bakoitzaren inguruan debate bat hasten da. Taldeko emaitzak arbelean laburbiltzen dira.

Oharra:

— Behatzailea: Banakako eta taldeko erantzun orriak jaso. Taldearen pentsamendu bakoitzaren maiztasunak, orokorrean, eta debatean esandakoak idatzi.

***Eztabaida:***

Taldeko kide guztien emaitzen integraziotik lortutako pentsamendu usuenetatik eratorritako inplikazioen (jokaerak, emozioak...) azterketaren inguruan antolatzen da debatea. Zerrendako pentsamenduen inplikazioak eta ondorenak.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
|---|---|
| Banakako erantzun orria (partaide bakoitzeko bat). Ekipoko erantzun orria (ekipo bakoitzeko bat). Arbela. | ***Talde egituraketa:*** BA-TT-TH. |

## 57. Taldeko borroka bat: banakako erantzun orria

| |
|---|
| Pentsamenduen talde honetatik aukeratu eta gurutze batez marka itzazu egoera honetan probabilitate gehienaz edukiko zenituzkeen hiru: |
| 1. Zoragarria, oso interesgarria izango da. |
| 2. Nire adiskidea zauritzeak kezkatzen nau. |
| 3. Borrokatzen banaiz zaurituko naizen beldur naiz. |
| 4. Borrokatzen banaiz besteei kalte egin diezaieket. |
| 5. Nire beste lagunek egiten dutena ikusiko dut. |
| 6. Zuzen dago nire lagunengatik borrokatzea. |
| 7. Ez zait interesatzen. |
| 8. Borrokatzea denbora galtzea da. |
| 9. Borroka gelditzen saiatu behar dut. |

## 57. Taldeko borroka bat: erantzun orria (ekipoa)

| | Maiztasunak | Guztira |
|---|---|---|
| 1. Zoragarria, oso interesgarria izango da. | | |
| 2. Nire adiskidea zaurituko ote duten kezkatuta nago | | |
| 3. Borrokatzen banaiz zaurituko naizen beldur naiz | | |
| 4. Borrokatzen banaiz besteei kalte egin diezaieket | | |
| 5. Nire beste lagunek egiten dutena ikusiko dut | | |
| 6. Zuzen dago nire lagunengatik borrokatzea | | |
| 7. Ez zait interesatzen | | |
| 8. Borrokatzea denbora galtzea da | | |
| 9. Borroka gelditzen saiatu behar dut | | |

## 58. AURKAKOAK ETA NEGOZIAZIOA

***Helburuak:***

— Deszentrazio kognitiboa suspertu: egoera edo gertaera baten aurrean ikuspegi ezberdinak agerian jarri.
— Ikuspegi kontrajarriei buruz talde barneko komunikazioa bultzatu, negoziazioa, jarreren hurbilketa sustatuz: Gatazken ebazpena.
— Giza indarkeriari buruz eta kontrol mekanismo bezala elkarrizketak eta komunikazioak duten paperari buruzko hausnarketa egin.

***Jardueraren deskribapena:***

Taldea lau ekipotan banatzen da eta aurkako bi jarrera kontuan hartzen dituen arazo bat planteatzen da, kasu honetan, «indarkeria-indarkeriarik ez, giza arazoak ebazteko mekanismo bezala» (gizabanakoen arteko gatazkak, arazo pertsonalengatik, lurralde arazoengatik, arazo erlijiosoengatik... taldeen arteko gatazkak). Bi ekipoek hamabost minutuz indarkeriaren aldeko argudioak prestatu behar dituzte eta beste bi ekipoek indarkeriaren kontrako argudioak. Arazo bat ebazteko bitarteko bezala borroka erabiltzearen alde edo gatazken ebazpenerako bide bezala indarkeriazko jarrerak erabiltzearen kontra argudia dezatela planteatzen da. Ondoren eztabaidatu egiten da talde handian, eta talde bakoitzak bere ondorioak agertzen ditu. Ideiak arbelean laburbilduta idazten dira, bi zutabetan: alde-kontra. Aurkako jarreren argudioak aurkeztu direnean, jarreren hurbilketarako saioa egiteko fasea hasten da. Soluziobideak negoziatzen saiatzen dira, haiek aztertzen dira eta bi ikuspegientzat onargarria den soluziobide batera heltzen saiatzen dira.

Oharrak:

— Irakaslea: Indarkeria/indarkeriarik ez adibidean taldea dilema hori gertatzen den egoera ezagun jakin batean koka daiteke (Irlandako gatazka erlijiosoa, palestinar/israeldarren lurralde gatazka, Jugoslaviako gatazka...). Kasu jakin bakoitzean aztertzen den gatazkaren gaiari buruzko informazio berezia ekarri beharko da.
— Irakaslea: Modu honetako debateak plantea daitezke aurkako ikuspegi oso eztabaidatuen profila ematen duen giza arazo sorta zabal batentzat.
— Behatzailea: Ekipo bakoitzaren orriak jaso. Debatean esandakoak eta taldeak negoziatzeko erakutsitako gaitasuna idatzi.

***Eztabaida:***

Giza arazoak ebazteko mekanismo bezala indarkeria erabiltzearen aldeko eta kontrako argudioak agertu. Agertutako argudioei eta haien ondorenei buruzko hausnarketak. Taldea jarrerak hurbiltzera eramango duten galderak: (adibidez, jarrera biak nolabait hurbildu al genitzake?) Bi ikuspegiak hobeto ulertzeko balio izan al digute komunikazioak eta elkarrizketak?

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 60'. |
|---|---|
| Folioak eta boligrafoak. Arbela. | ***Talde egituraketa:*** TT-TH. |

## 59. FANTASIA EDO ERREALITATEA

***Helburuak:***

— Adin maila honetako arazo jakin esanguratsuei buruzko hausnarketa egin.
— Arazo hauen ebazpenerako mekanismo eta jarraibideak ikasi.
— Ebazpen magiko edo fantasiazkoak eta errealitate printzipioko ebazpenak bereizi.

***Jardueraren deskribapena:***

Talde handiko egoeran, «ideien zurrunbiloaren» teknikaren bidez, taldeko kide bakoitzak bere adineko pertsona bat kezka dezaketen arazo ezberdinak iradokitzen ditu eta poltsa batean sartzen dira. Irakasleak poltsatik arazo bat ateratzen du, irakurtzen du eta arazoa iradoki duen pertsonak taldeari azaltzen dio modu xehean. Taldeko kide bakoitzak arazo horri buruz honako hau pentsatu eta idatzi behar du:

1. Ebazpide magiko bat: dena posible balitz gertatzea gustatuko litzaiokeen fantasiazko desira.
2. Ebazpide errealista: arazoari soluziobide praktiko eta errealistak

Hirugarrenik, taldeko kideek pentsatu dituzten soluziobideak erakusten dira eta haietaz hausnartzen da, egokienak aukeratzen saiatuz.

Oharrak:

— Irakaslea: Planteaturiko arazoen zerrenda luzea bada, okasio ezberdinetan burutu daiteke jarduera.
— Behatzailea: Ukitutako arazoak, taldeak pentsatutako soluziobide magiko eta errealistak eta debatean esandakoak idatzi.

***Eztabaida:***

Planteatutako egoera arazotsuentzat taldeko kideek proposaturiko soluziobideen azterketa hartzen du ardatz bezala debateak.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 30-60' (ukitzen diren arazoen kopuruaren arabera) |
|---|---|
| Folioak eta boligrafoak. Arbela. | ***Talde egituraketa:*** BA-TH. |

## 60. ASTOAK

***Helburuak:***

— Gatazka bat aztertu eta behatzeko gaitasuna suspertu.
— Lankidetzan jardutearen versus lehian jardutearen inplikazioei buruzko talde barneko komunikazioa sustatu.

***Jardueraren deskribapena:***

Partaide bakoitzak binetak jasotzen ditu eta ondorengo argibide hauek ematen zaizkie: «Bakoitzak binetak behatu behar ditu eta ondoren bineta horiek zer iradokitzen dioten idatzi. Zer gertatzen den behatzea eta bineten sekuentziak zein ondoriotara eramaten duen aztertzea da kontua». Jarduera honetan, binetetan gertatzen denaz eta planteaturiko bineten multzoak zer ondoriotara eraman dezakeen hausnartu behar du taldeko kide bakoitzak. Hau eginda gero, taldeko kideek banakako hausnarketa ezberdinak komentatzen dituzte, berauei buruzko debate bat hasten da eta elkarrekin ondorio bat ateratzen saiatzen dira.

Oharra:

— Behatzailea: Banakako ondorioak jaso. Debate fasean komentatutako esaldiak eta ondorioak egunkarian idatzi.

***Eztabaida:***

Banakako hausnarketen eta taldeko ondorioen ingurura gidatzen da debatea; lehia/lankidetza gaia har dezake ardatz gisa. Zeintzuk dira lankidetzan jardutearen eta lehiatzearen ondorenak? Guk bizi dugun egoera konkreturen baten berdintsua edo antzekoa al da egoera hau?

Ondorioa: Abere biek helburu bera dute. Elkar kontuan hartzen eta ezagutzen ez zutenean, bietako inork ez zuen bere helburua lortzen. Baina, elkar kontuan hartzean eta lankidetzan jardutean, biek onura bat ateratzen dute.

| ***Materialak:*** | ***Denbora:*** 30'. |
| --- | --- |
| Partaide bakoitzeko bineta bat.<br>Folioak eta boligrafoak.<br>Erabilitako irudiaren adibideak ikus. | ***Talde egituraketa:*** BA-TH. |



# Eranskina

| AUTOKONTZEPTUAREN EBALUAZIORAKO IZENONDOEN ZERRENDA<br>Garaigordobil, ad hoc | | |
|---|---|---|
| Ikaslearen izen-deiturak<br>Adina<br>Ikasturtea | | |
| Argibideak:<br>Bizkorki irakur itzazu ondoren agertzen diren izenondoak eta zeure burua deskribatzeko edo definitzeko balio duten izenondoen zenbakia zirkulu batez ingura ezazu | | |
| 1. Txeratsua | 26. Desordenatua | 51. Desinteresatua |
| 2. Erakargarria, ederra | 27. Mesfidatia | 52. Baikorra |
| 3. Lasaia | 28. Menperatzailea | 53. Garbia |
| 4. Trebea, gaitua | 29. Berekoia | 54. Hezibide onekoa |
| 5. Ausarta | 30. Goibela | 55. Arduratsua |
| 6. Erasokorra | 31. Zuhurra, pentsakorra | 56. Makala |
| 7. Lotsatia | 32. Tolerantea | 57. Maltzurra |
| 8. Larritua | 33. Sentimentala | 58. Fidagaitza, mesfidatia |
| 9. Traketsa | 34. Indartsua | 59. Managaitza |
| 10. Harroputza | 35. Lagunkoia | 60. Lotsagabea |
| 11. Alaia, zoriontsua | 36. Ezezkorra | 61. Adeitsua |
| 12. Argia, azkarra | 37. Egosgogorra | 62. Antolatua |
| 13. Bere buruaz ziurra | 38. Egonarri gutxikoa | 63. Gizartekoia |
| 14. Laguntzailea | 39. Esanekoa | 64. Baketsua |
| 15. Kontsideratua besteekiko | 40. Kezkatua | 65. Osasuntsua |
| 16. Agintzailea | 41. Sinpatikoa | 66. Urduria |
| 17. Oihesa, zakarra | 42. Eskuzabala | 67. Penagarria |
| 18. Kexatia | 43. Graziosoa | 68. Apetatsua |
| 19. Koldarra | 44. Irudimentsua | 69. Ezegonkorra |
| 20. Ankerra | 45. Fidakorra | 70. Bekaiztia, jeloskorra |
| 21. Sentibera | 46. Hezikaitza | 71. Patxadatsua |
| 22. Egiatia | 47. Zuhurtzia gabea | 72. Bizkorra |
| 23. Errukibera, onbera | 48. Arraroa, bitxia | 73. Erlaxatua |
| 24. Ona | 49. Nagia | 74. Maitekorra |
| 25. Txukuna | 50. Lotsatia, herabea | 75. Arrazoiduna |

**TALDEKO ADISKIDEEN IRUDIA EBALUATZEKO IZENONDOEN ZERRENDA**
**Garaigordobil, ad hoc**

Ikaslearen izen-deiturak
Adina
Ikasturtea

Argibideak:

Bizkorki irakur itzazu ondoren agertzen diren izenondoak eta zirkulu batez ingura ezazu zure taldeko adiskideei buruz duzun irudia adierazten duten izenondoen zenbakia, hau da, taldeko zure adiskideak orokorrean deskribatu edo definitzeko erabiliko zenituzkeen izenondoak.

| | | |
|---|---|---|
| 1. Txeratsuak | 21. Sentikorrak | 42. Esanekoak |
| 2. Lasaiak | 22. Egiatiak | 43. Hezibide onekoak |
| 3. Alaiak, zoriontsuak | 23. Errukiberak, onberak | 44. Garbiak |
| 4. Trebeak, gaituak | 24. Pazienteak | 45. Adeitsuak |
| 5. Ausartak | 25. Sinpatikoak | 46. Lotsagabeak |
| 6. Erasokorrak | 26. Desordenatuak | 47. Maltzurrak |
| 7. Erreserbatuak | 27. Mesfidatiak | 48. Nagiak |
| 8. Traketsak | 28. Menperatzaileak | 49. Kritikoak |
| 9. Harroputzak | 29. Berekoiak | 50. Miserableak |
| 10. Koldarrak | 30. Goibelak | 51. Maitekorrak |
| 11. Argiak, azkarrak | 31. Lagunkoiak | 52. Baketsuak |
| 12. Kontsideratuak (zentzudunak) | 32. Eskuzabalak | 53. Patxadatsuak |
| 13. Laguntzaileak | 33. Graziosoak | 54. Amultsuak |
| 14. Onak | 34. Sortzaileak | 55. Arrazoidunak |
| 15. Toleranteak | 35. Fidakorrak | 56. Gogaikarriak |
| 16. Oihesak | 36. Hezikaitzak | 57. Larrituak |
| 17. Ankerrak | 37. Zuhurtzia gabeak | 58. Harroak |
| 18. Barregarriak | 38. Arraroak, bitxiak | 59. Haserretuak |
| 19. Gorrotagarriak | 39. Lehiakorrak | 60. Axolagabeak, apatikoak |
| 20. Bekaiztiak | 40. Tentelak | |
| | 41. Arduratsuak | |

| **ALTRUISMOAREN INBENTARIOA**<br>**Ma Hing Keung eta Leung Man Chi, 1991** | | |
|---|---|---|
| Ikaslearen izen-deiturak<br>Adina<br>Ikasturtea | | |
| *Argibideak*<br>Baieztapen sail bat aurkituko duzu ondoren. Irakur itzazu eta zeure buruari aplikatu. Esaldian esaten dena egiten, pentsatzen edo sentitzen baduzu eskuarki, X bat jar ezazu BAI-aren azpian. Baina esaldiak baieztatzen duena egiten, pentsatzen edo sentitzen ez baduzu eskuarki, EZ-aren azpian jarri behar duzu X bat | | |
| | BAI | EZ |
| 1. Jolasean ari naizen bitartean beste adiskideei jolasean sartzen uzten diet | | |
| 2. Ikasgelako adiskideen arteko gatazkak edo borrokak saihesten saiatzen naiz | | |
| 3. Nire familiako kide bat gaixo dagoenean goibel sentitzen naiz | | |
| 4. Norbaiti paketeak erortzen zaizkiola ikusten dudanean, ez diot laguntzen, ez ikusiarena egiten dut | | |
| 5. Zoritxarreko sentitzen naiz adiskide bat erori eta odoletan gelditzen dela ikusten dudanean | | |
| 6. Oso gutxitan esku hartzen dut aktiboki irakasle bati laguntzeko (liburuak eraman, arbela ezabatu) | | |
| 7. Haur bat eskean ikusten dudanean, diru pixka bat emateko gogoa sentitzen dut | | |
| 8. Nahiago dut bakarrik jostatu besteekin baino | | |
| 9. Animali txiki bat hilda ikusten dudanean, atsekabea, tristura sentitzen dut | | |
| 10. Oso gutxitan ematen dizkiet besteei gozokiak | | |
| 11. Elbarriei beti laguntzen diet nik | | |
| 12. Nire gurasoak zoriontsu egiten dituzten gauzak egiten ditut nik beti | | |
| 13. Oso triste sentituko nintzateke animali txiki bat tranpa batean harrapatua ikusiko banu | | |
| 14. Maite dudan pertsona bati (lagun, anai... ) norbaitek kalte egingo balio, hari kalte ordaina emateko eskatuko nioke | | |
| 15. Nire lagunak lehiaketa batean txapela irabazten duenean inbidia sentitzen dut | | |
| 16. Beste batzuk nire adiskide bat kikiltzen ari direla ikusten dudanean irakasleari esaten diot | | |
| 17. Autobus batean noanean ez diet nire aulkia zaharrei edo elbarrituei uzten | | |
| 18. Segur aski ez nieke lagunduko niri inoiz lagundu ez didaten pertsonei | | |
| 19. Zoriontsu sentitzen naiz norbait animalia txiki bati gehiegikeriak egiten ari dela ikusten dudanean | | |

| | BAI | EZ |
|---|---|---|
| 20. Lagun bat negar-zotinka eta tristaturik ikusten badut, kontsolatu egiten dut<br>21. Zakar ontzian janari bila ikusten baditut katuak eta txakurrak, haiei janari pixka bat emateko gogoa sentitzen dut.<br>22. Ez naiz egoten nire lagunei faboreak egiteko prest (adibidez, apalategira liburuak itzuli, etxeko lanetan lagundu...)<br>23. Zoriontsu sentitzen naiz gurasoek haur bat jotzen dutela ikusten dudanean<br>24. Animalia txiki batzuk jo edo zauritu izan ditut nik | | |

## SOZIOMETRIKOA
**Garaigordobil, ad hoc**

Izen-deiturak
Adina
Ikasturtea

*Argibideak*

Egiazaletasunez erantzun iezaiezu ondorengo galdera hauei. Inork ez ditu zure erantzunak ezagutuko. Galdera bakoitzean nahi duzun adiskide kopurua jar dezakezu.

— Lagunik onenak bezala aukeratuko zenituzkeen zure ikasgelako adiskideak izenda itzazu, zergatik aukeratu dituzun laburki arrazoituz.

— Lagun bezala gutxiena gustatzen zaizkizun zure ikasgelako ikaskideak aipa itzazu, zergatik aukeratu dituzun laburki arrazoituz

## SOZIOMETRIKOA
**Garaigordobil, ad hoc**

Izen-deiturak
Adina
Ikasturtea

Argibideak

Egiazaletasunez erantzun iezaiezu ondorengo galdera hauei. Inork ez ditu zure erantzunak ezagutuko. Galdera bakoitzean nahi duzun adiskide kopurua jar dezakezu.

— Gehien laguntzen duten eta besteekin lankidetzan gehien jarduten diren zure ikasgelako adiskideak izenda itzazu (laguntzen, konpartitzen, lankidetzan jarduten, kontsolatzen... dutenak).

— Besteei gutxien laguntzen edo lankidetzan gutxien jarduten diren zure ikasgelako adiskideak izenda itzazu (ez dute laguntzen, ez dute konpartitzen, ez dira lankidetzan jarduten...).

**GIZARTE EGOEREN EBAZPENERAKO ESTRATEGIA KOGNITIBOEN GALDEKIZUNA**
**Garaigordobil, ad hoc**

Izen-deiturak
Adina eta ikasturtea

Argibideak

Zure adineko pertsona batek aurkitzen duen egoera sail bat komentatzen da ondoren. Astiro irakurri behar dituzu egoerak eta gero pertsona horrek egoera horretan zer egin lezakeen esan behar duzu. Lehenik izenda itzazu egoera bakoitza ebazteko bururatzen zaizkizun modu guztiak eta gero X batez marka ezazu egoera horretan aurkituz gero edukiko zenukeela uste duzun jokaera.

Ane eta bere lagun batek (Jon eta bere lagun batek) erosketa batzuk egitera joatea erabakitzen dute. Liburu-dendan Ane/Jon konturatzen da bere lagunak liburu bat ostu eta ordaindu gabe eraman duela. Dendatik irtetean Ane/Jon nahasturik sentitzen da. Ez zaio ongi iruditzen bere lagunak egin duena, baina ez daki zer egin. Zer egin lezake?

Ane (Jon) jolastorduko patioan dago. Adiskide batek bultza egin, jo eta lurrera erortzen da. Altxatu nahian ari dela, bere erlojua hautsi egin dela ikusten du. Adiskideak, bitartean, iseka eta barrezka, berriro ere bultza egiten dio altxatu nahian ari den bitartean. Zer egin lezake?

Ane (Jon) berria da ikastetxean. Jolastordura heltzean bere lagunak hizketan ari direla ikusten du. Bere adiskide berriekin harremanak izatea gustatuko litzaioke, baina ez daki nola. Zer egin lezake?

Anek (Jonek) arazoak ditu ikastetxean. Akats fisiko txiki bat du eta pixka bat atzeratuta doa eskolan. Bere adiskideek goitizen bat jarri diote eta ez diote beren jolasetan eta jardueretan parte hartzen uzten, baztertu egiten dute. Egun batez, ikastetxeko patioan pilotan jostatzen ari da taldea. Anek (Jonek) jostatu egin nahi duela esaten die, baina taldeak ez dio erantzuten. Berriro galdetzen dio taldeari ea jolas daitekeen eta oraingoan taldeko batek esaten dio ezin jolas daitekeela ondo jokatzen ez dakielako. Zer egin lezake?

Egun batez Anek (Jonek) joko berri bat eramaten du ikastetxera. Bere taldeko adiskide batek kendu egiten dio eta ez dio itzuli nahi. Zer egin lezake bere jostailua berreskuratzeko?

Ane (Jon) lagun talde batekin dago arratsaldea pasatzen. Duela gutxi beraiek baino zaharxeagoa den beste mutil bat sartu da taldean. Mutil honek egun batean droga eramaten du eta drogarik ez duela nahi esan dion taldeko bat barregarri uzten du «ninia» deituz. Zer egin daiteke egoera honetan?

| **AURREIRITZIEN EBALUAZIORAKO OSATU GABEKO ESALDIAK**<br>**Garaigordobil, ad hoc** |
|---|
| Izen-deiturak<br>Adina eta ikasturtea |
| Argibideak<br>Osatu gabeko esaldi sail bat aurkituko duzu ondoren; esaldiaren hasiera irakurtzean burura lehenik datorkizunarekin osatu behar dituzu. |
| Etorkin atzerritarrak/ek ..........................................<br>..........................................................<br>..........................................................<br>Marokoarrak/ek ................................................<br>..........................................................<br>..........................................................<br>Beltzak/ek .....................................................<br>..........................................................<br>..........................................................<br>Nire ikasgelan ijitoak egotea/k ..................................<br>..........................................................<br>..........................................................<br>Neskak-ek/Mutilak-ek (beste sexukoei buruz erantzun) ....................<br>..........................................................<br>..........................................................<br>Jende aberatsa/k ................................................<br>..........................................................<br>..........................................................<br>Jende behartsua/k ...............................................<br>..........................................................<br>..........................................................<br>Gutxitu fisikoak/ek ..............................................<br>..........................................................<br>..........................................................<br>Espetxean egon diren pertsonak/ek ................................<br>..........................................................<br>.......................................................... |

Pertsona indarkeria zaleak/ek. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Ijitoak/ek (ohi dira/ohi dute) . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Nire auzoan atzerritarrak egotea/k . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Jende adindua/k . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Euskaldunak/ek . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Andaluziarrak/ek . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Espainiarrak/ek . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Kataluniarrak/ek . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Hegoamerikarrak/rrek . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Musulmanak/ek . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

| SENTIMENDUAK AZTERTZEKO GAITASUNAREN EBALUAZIO GALDEKIZUNA<br>**Garaigordobil, ad hoc** |
|---|
| Ikaslearen izen-deiturak<br>Adina<br>Ikasturtea |
| Argibideak<br>Sentimendu negatibo jakin batzuk sortarazten dituzten *ZERGATIEI* buruz hausnar ezazu eta otutzen (bururatzen) zaizkizun ideia guztiak izenda itzazu. Zeintzuk dira sentimendu hau pertsonengan sortaraz dezaketen gertaerak edo zirkunstantziak? |
| Tristura |
| Inbidia/Zeloak |
| Amorrua/Haserrea |
| Beldurra |

| SENTIMENDUAK AZTERTZEKO GAITASUNAREN EBALUAZIOA<br>**Garaigordobil, ad hoc** |
|---|
| Argibideak<br>Sentimendu jakin batzuk edukitzetik eratortzen diren *ONDORENEI* buruz hausnar ezazu eta otutzen (bururatzen) zaizkizun ideia guztiak izenda itzazu. Zer ondoren (jokaerak, pentsamenduak, emozioak...) eduki ditzakete sentimendu negatibo hauek pertsona batengan? |
| Tristura |
| Inbidia/Zeloak |
| Amorrua/Haserrea |
| Beldurra |

| SENTIMENDUAK AZTERTZEKO GAITASUNAREN EBALUAZIOA<br>Garaigordobil, ad hoc |
|---|
| Argibideak<br>Sentimendu negatibo jakin batzuen *EBAZPEN MODUEI* buruz hausnar ezazu eta otutzen (bururatzen) zaizkizun ideia guztiak izenda itzazu. Zer egin dezake pertsona batek sentimendu negatibo hauek ezabatzeko? |
| Tristura |
| Inbidia/Zeloak |
| Amorrua/Haserrea |
| Beldurra |

## JAAT-1. JOKAERA ASERTIBOAREN AUTO-TXOSTENA
### García eta Magaz, 1994

Argibideak:

Pertsonen pentsatzeko, sentitzeko edo jokatzeko moduari buruzko baieztapen batzuk ikusiko dituzu ondoren. Arretaz eta kontuz irakur ezazu horietako bakoitza. Esaldi bakoitzean X batez seinala ezazu egoera bakoitzean zure erreakzionatzeko modua hobekien adierazten duen zutabea. IE = Inoiz ez edo ia inoiz ez; BA = Batzuetan. Noizbehinka; SA = Sarritan; BE = Beti edo ia beti

| | IE(4) | BA(3) | SA(2) | BE(1) |
|---|---|---|---|---|
| 1. Norbaitek esandako zerbaitekin ados ez nagoenean, urduri jartzen nau neure iritzia agertu beharrak. | | | | |
| 2. Haserretua nagoenean, besteak hortaz konturatzeak gogaitu egiten nau. | | | | |
| 3. Nire ustez besteen gustukoa ez den zerbait egiten dudanean, nitaz pentsa dezaketenaren beldurra edo lotsa sentitzen dut. | | | | |
| 4. Urduri nagoenean besteak ni ikusteak atsekabetu egiten nau. | | | | |
| 5. Huts egiten dudanean kostatu egiten zait besteen aurrean onartzea. | | | | |
| 6. Zerbait ahanzten bazait, neure buruarekin haserretu egiten naiz. | | | | |
| 7. Haserretu egiten naiz gauzak perfekzioz egitea lortzen ez badut. | | | | |
| 8. Iritziz aldatu behar dudanean gaizki sentitzen naiz. | | | | |
| 9. Norbait goraipatu nahi dudanean urduri jartzen naiz. | | | | |
| 10. Ezagutzen ez dudan zerbaiti buruzko galderak egiten dizkidatenean, nire ezjakintasuna zuritzen saiatzen naiz. | | | | |
| 11. Goibel nagoenean, besteak konturatzeak atsekabetu egiten nau. | | | | |
| 12. Neure buruarekin gaizki sentitzen naiz azaltzen ari zaizkidan zerbait ulertzen ez badut. | | | | |
| 13. Egiten dizkidaten kritikak onartzeak lanak ematen dizkit, zuzenak direla ulertzen badut ere. | | | | |
| 14. Arrazoirik gabe kritikatzen nautenean, neure burua defendatu beharrak urduri jartzen nau. | | | | |
| 15. Hutsegite bat egin dudala uste dudanean, neure burua zurituko duten aitzakiak bilatzen ditut. | | | | |
| 16. Zerbait ez dakidala ikusten dudanean, neure buruarekin gaizki sentitzen naiz. | | | | |
| 17. Kostatu egiten zait galderak egitea. | | | | |
| 18. Mesedeak eskatzea kostatu egiten zait. | | | | |

| | IE(4) | BA(3) | SA(2) | BE(1) |
|---|---|---|---|---|
| 19. Egin nahi ez dudan zerbait egiteko eskatzen didatenean EZETZ esatea kostatu egiten zait. | | | | |
| 20. Laudorioak egiten dizkidatenean, urduri jartzen naiz eta ez dut jakiten zer egin edo zer esan. | | | | |
| 21. Zerbait azaltzen dudanean ez ulertzeak gogaitu egiten nau. | | | | |
| 22. Besteek nik esandakoari kontra egiteak asko haserretzen nau. | | | | |
| 23. Besteek nire arrazoiak edo sentimenduak ez ulertzeak gogaitu egiten nau. | | | | |
| 24. Denbora pasatu ahala jendea iritziz aldatzen dela ikusten dudanean haserretu egiten naiz. | | | | |
| 25. Niri zenbait gauza eskatzeak gogaitu egiten nau, gizabidez egiten badute ere. | | | | |
| 26. Besteek niri galderak egiteak gogaitu egiten nau. | | | | |
| 27. Jendea bere lana ahal den ondoena egiten gehiegi ez dela saiatzen egiaztatzea desatsegina gertatzen zait. | | | | |
| 28. Pertsona batzuen ezjakintasuna egiaztatzen dudanean asaldatu egiten naiz. | | | | |
| 29. Estimatzen dudan pertsona batek erabaki oker bat hartzen duela ikusten dudanean gaizki sentitzen naiz. | | | | |
| 30. Norbait modu desegokian jokatzen ikusten dudanean asaldatu egiten naiz. | | | | |
| 31. Besteek ni kritikatzeak atsekabetu egiten nau. | | | | |
| 32. Arrazoizkoa den zerbait, modu egokian eskatuta, ukatzen didan pertsonarenganako haserrea sentitzen dut. | | | | |
| 33. Beren sentimenduak kontrolatzen ez dituzten pertsonak ikusteak asaldatu egiten nau: negar egiten dute, oihuak egiten dituzte, alaiegi agertzen dira... | | | | |
| 34. Gauzei duten garrantzia ez emateak atsekabetu egiten nau. | | | | |
| 35. Norbaitek bidezko kritika bat ez onartzeak gogaitu egiten nau. | | | | |

| ENPATIAREN EBALUAZIORAKO GALDEKIZUNA<br>Disposizioen enpatiaren galdekizunean oinarritua. Merhabian eta Epstein, 1972 | | |
|---|---|---|
| Izen-deiturak<br>Adina<br>Ikasturtea | | |
| Argibideak<br>Baieztapen sail bat aurkituko duzu ondoren. Haiekin ados zauden ala ez jakin nahi da. Ados bazaude, X bat jarri behar duzu BAI-aren zutabean. Ados ez bazaude, X bat jarri behar duzu EZ-aren zutabean. Ez dago erantzun zuzenik edo okerrik. Denak dira onak, egiazaletasunez erantzuten baduzu pentsatzen duzuna. | | |
| | BAI | EZ |
| 1. Ama bat haserreturik haurrari errieta egiten ari dela ikusten dudanean, pena sentitzen dut. | | |
| 2. Kezkatua dagoen haur bat ikusten badut, kontsolamendua, adorea eta sostengua emateko harengana hurbiltzeko gogoa sentitzen dut. | | |
| 3. Inorekin jostatzeko aukerarik ez duen mutil/neska bat ikusten dudanean triste sentitzen naiz. | | |
| 4. Telebistan katastrofe bat ikusi izan dudanean laguntza bezala zerbait bidaltzeko gogoa sentitu dut. | | |
| 5. Jende aurrean musukatzen eta besarkatzen diren pertsonak ikusten ditudanean barregarriak iruditzen zaizkit. | | |
| 6. Zoriontsu direnean negar egiten duten mutilak eta neskak leloak (ergelak) dira. | | |
| 7. Beste pertsonek erregaliak irekitzen dituztela ikusten dudanean gozatu egiten dut, nik neuk erregaliarik ez baldin badut ere. | | |
| 8. Negarrez ari den neska/mutil bat ikusten dudanean, neuri ere negar egiteko gogoa sortzen zait. | | |
| 9. Mina hartu duen, zauritu den mutil/neska bat ikusten dudanean gaizki sentitzen naiz. | | |
| 10. Beste pertsonak barrezka ikusten ditudanean neuk ere barre egiten dut, zergatik barre egiten duten ez badakit ere. | | |
| 11. Batzuetan negar egiten dut telebistan eszena batzuk ikusten ditudanean. | | |
| 12. Ez dut ezer sentitzen norbait (nire gurasoak, nire lagunak...) kezkatua dagoela ikusten dudanean. | | |
| 13. Animali bat zauritua ikusten dudanean gaizki sentitzen naiz. | | |
| 14. Ongi sentitzen naiz pertsona bat alai, zoriontsu, kontent dagoela ikusten dudanean. | | |
| 15. Munduan pertsona batzuek jasaten dituzten gerra eta gosearen berriak entzuten ditudanean tristatu egiten naiz. | | |
| 16. Pertsonen modura sentituko balute bezala animaliak tratatzea lelokeria da. | | |
| 17. Neskek/mutilek lagunik ez badute, nahi ez dutelako da. | | |

| | BAI | EZ |
|---|---|---|
| 18. Gozoki guztiak jateko gai naiz, horietako bat nahi duen norbait begira baldin badaukat ere.<br>19. Pertsona bat gaixo dagoela ikusten badut, tristatu egiten naiz.<br>20. Mutil/neska bat bere taldeko adiskideek iraintzen dutela ikusten badut, gaizki sentitzen naiz eta hura defendatzeko gogoa sortzen zait.<br>21. Nire gelako adiskide bat zokoratua dela ikusten dudanean, tristatu egiten naiz.<br>22. Zerbait gaizki egiteagatik irakasleak nire adiskide bat zigortzen duenean gaizki sentitzen naiz. | | |

A. Merhabian eta N. Epstein (1972): «A measure of emotional empathy», *Journal of Personality,* 40, 525-533.

| **JOKAERA ARAZOEN ESKALA. JAE.**<br>**Navarro, Peiró, Llácer eta Silva, 1993** | | | |
|---|---|---|---|
| Izen-deiturak<br>Adina<br>Ikasturtea | | | |
| Argibideak<br>Haurrak eta nerabeak deskribatzen dituzten baieztapen sail bat aurkituko duzu ondoren. Zure semearen edo alabaren izateko modu ohikoena edo usuena deskribatzen duen esaldi bakoitzean «sarritan» erantzuna marka ezazu; zure semearen edo alabaren izateko moduarekin batzuetan egokitzen diren baieztapenetan «batzuetan» erantzuna marka ezazu. Baieztapena zure semeari edo alabari egokitzen ez bazaio, «ez» erantzuna marka ezazu. | | | |
| | Ez | Batzue-tan | Sarri-tan |
| 1. Zerbait txarra egiteko edo pentsatzeko beldur da | | | |
| 2. Asko eztabaidatzen du | | | |
| 3. Inork ez duela maite esaten du | | | |
| 4. Lanak edo jarduerak amaitzen ditu | | | |
| 5. Kontzentratzea asko kostatzen zaio | | | |
| 6. Goragalea, herstura du, osasun arrazoi ezagunik gabe | | | |
| 7. Helduei atxikia dago | | | |
| 8. Bakarrik egoteaz kexatzen da | | | |
| 9. Nahastua dagoela dirudi | | | |
| 10. Asko negar egiten du | | | |
| 11. Denbora-tarte egokitan egoten da eserita | | | |
| 12. Ankerra, gehiegikeria zalea eta berekoia agertzen da | | | |
| 13. Alferrikakoa (ezereza) edo behe mailakoa sentitzen da | | | |
| 14. Arreta handia eskatzen du | | | |
| 15. Besteen gauzak suntsitzen ditu | | | |
| 16. Ematen zaizkion aginduak ez ditu betetzen | | | |
| 17. Aginduen aurrean erreboltatu egiten da | | | |
| 18. Argibideak ematen zaizkionean arreta jartzen du | | | |
| 19. Bakartia da (beste haurrekin ez da nahasten) | | | |
| 20. Egoera, leku edo animali zenbaiti beldurra die | | | |
| 21. Errealitatean ez dauden gauzak entzuten ditu | | | |
| 22. Oso errudun sentitzen da | | | |
| 23. Errealitatean ez dauden gauzak ikusten ditu | | | |
| 24. Besteek mania diotela pentsatzen du | | | |
| 25. Urdaileko minak ditu osasun arrazoi ezagunik gabe | | | |
| 26. Bere buruaz beste egiteaz mintzatzen da | | | |
| 27. Maiz borrokatzen da | | | |
| 28. Beste pertsonez iseka egiten du | | | |
| 29. Ideia edo jokaera bitxiak ditu | | | |
| 30. Ezezkoa haserretu gabe onartzen du | | | |
| 31. Bulkadatsua da, pentsatu gabe ekiten du | | | |

| | Ez | Batzue -tan | Sarri -tan |
|---|---|---|---|
| 32. Bakarrik egotea atsegin du | | | |
| 33. Gezurra esaten du eta iruzurtu egiten du | | | |
| 34. Energia gabe dago, mugimenduetan makala da | | | |
| 35. Oso beldurtia edo larritua da | | | |
| 36. Segurantza gabe sentitzen da | | | |
| 37. Zoritxarreko, goibel edo deprimiturik sentitzen da | | | |
| 38. Nekatuegi dago | | | |
| 39. Buruko minak ditu, osasun arrazoi ezagunik gabe | | | |
| 40. Ikastetxean ikasteko zailtasunak ditu | | | |
| 41. Beldurti agertzen da | | | |
| 42. Lanak edo proiektuak errazki uzten ditu | | | |
| 43. Besteei atsegingarri gertatzeak gehiegi kezkatzen du | | | |
| 44. Osasun arrazoi ezagunik gabe zorabioak gertatzen zaizkio | | | |
| 45. Ikastetxeko jarduerez kexatzen da | | | |
| 46. Jateko eta mahaian esertzeko modu egokia du | | | |
| 47. Jendea fisikoki erasotzen du | | | |
| 48. Ekintza batzuk behin eta berriro jarraituan errepikatu beharra du | | | |
| 49. Bere eskolako lanak kalitate gutxikoak dira | | | |
| 50. Besteen bromek hunkitzen dute | | | |
| 51. Giharretako minak ditu osasun arrazoi ezagunik gabe | | | |
| 52. Garbi eta txukun ibiltzen da. | | | |
| 53. Erraz gorritzen zaio aurpegia | | | |
| 54. Ondo hitz egiten du bere irakasleez | | | |
| 55. Oihu asko egiten du | | | |
| 56. Isila da, beretzat gordetzen ditu gauzak | | | |
| 57. Kezkatuta agertzen da | | | |
| 58. Bat-bateko umore aldaketak ditu (ageriko motiborik gabe) | | | |
| 59. Erraztasunez lotsatzen da | | | |
| 60. Antolamendurik gabe lan egiten du | | | |
| 61. Osasun arrazoi ezagunik gabe oka egiten du eta goragaleak ditu | | | |
| 62. Beste pertsona baten gauzak erabili aurretik baimena eskatzen du | | | |
| 63. Herabea da | | | |
| 64. Finko begiratzen du, ikusi gabe | | | |
| 65. Kritikatzen dutenean oso zauritua sentitzen da | | | |
| 66. Arazo txikien aurrean urduri jartzen da | | | |
| 67. Larritua, zurrun dago | | | |
| 68. Bere adinari dagokion jokaera sexuala du | | | |
| 69. Egosgogorra, gorrototsua, haserrekorra da | | | |
| 70. Haserrealdi bortitzak ditu | | | |
| 71. Porrota ongi onartzen du. | | | |

| | Ez | Batzue -tan | Sarri -tan |
|---|---|---|---|
| 72. Jendea mehatxatzen du | | | |
| 73. Kostatu egiten zaio pentsamendu batzuk gogamenetik aldentzea | | | |
| 74. Ozenkiegi hitz egiten du | | | |
| 75. Egoera berrietan ongi moldatzen da | | | |
| 76. Umore ona du | | | |
| 77. Maitekorregia eta leialegia agertzen da | | | |
| 78. Apetitu falta du | | | |
| 79. Edozer gauzaz beldurtzen da | | | |
| 80. Nota txarrak ateratzen ditu | | | |
| 81. Eraso egiten badiote ez du bere burua defendatzen | | | |
| 82. Lasai eta erlaxatuta agertzen da | | | |
| 83. Haserreekiko eta egoera tirabiratsuekiko oso sentikorra da | | | |
| 84. Bere lanetan perfekzionista da | | | |
| 85. Lankidetzan jarduteari uko egiten dio | | | |
| 86. Digestio arazoak ditu osasun arrazoi ezagunik gabe | | | |
| 87. Gaizki irakurtzen du | | | |
| 88. Gizabidez jokatzen du | | | |
| 89. Kexatia da | | | |
| 90. Naturaltasunez onartzen ditu afektu erakusketak | | | |
| 91. Besteekin harreman onak ditu | | | |
| 92. Beste sexuko haurren aurrean lotsatu egiten da | | | |
| 93. Eskolako lanak edo egitekoak pozik egiten ditu | | | |
| 94. Erraz nekatzen da | | | |
| 95. Egiten duen horretan segurantza gabe agertzen da | | | |
| 96. Janaria irenstea kostatu egiten zaio | | | |
| 97. Bere inguruko helduen onarpena bilatzen du | | | |
| 98. Matematikako kalkuluak egiteko arazoak ditu | | | |
| 99. Ikastetxera pozik joaten da | | | |

| AUTOKONTEZPTUAREN ESKALA. AK.<br>Martorell, Aloy, Gómez eta Silva, 1993 | | | | |
|---|---|---|---|---|
| *Izen-deiturak*<br>Adina eta ikasturtea | | | | |
| Argibideak<br>Zure pentsatzeko eta jokatzeko moduari aipamena egiten dioten galdera sail bat aurkituko duzu ondoren. Esaldi bakoitza irakur eta pentsa ezazu INOIZ EZ edo IA INOIZ EZ, BATZUETAN, ASKOTAN edo BETI zure ohiko pentsatzeko edo jokatzeko modua den. Gero jar ezazu X bat aukeratu duzun erantzunaren zutabean. Ez dago erantzun zuzen eta okerrik. | | | | |
| | Inoiz ez edo ia inoiz ez | Batzue -tan | Asko -tan | Beti |
| 1. Nire gainekoak (irakasleak, buruzagiak...) kontent daude nirekin | | | | |
| 2. Oso herrikoia naiz nire lagunen artean | | | | |
| 3. Pertsona garrantzitsua sentitzen naiz | | | | |
| 4. Nire gainekoek (irakasleek, buruzagiek...) langile ona naizela pentsatzen dute. | | | | |
| 5. Nire adiskideek baino hobeto hitz egiten dut | | | | |
| 6. Zorte oneko pertsona naiz | | | | |
| 7. Pertsona garrantzitsua naiz | | | | |
| 8. Pertsona atsegina naiz | | | | |
| 9. Besteek pentsatzen dute beraiek bezain argia ez naizela | | | | |
| 10. Erraz ikaratzen naiz | | | | |
| 11. Triste nago | | | | |
| 12. Erraz egiten dut negar | | | | |
| 13. Nire lagunek baino hobeto egiten ditut gauzak | | | | |
| 14. Langile (ikasle) ona naiz | | | | |
| 15. Besteek nire ideia eta iradokizunak onartzen dituzte | | | | |
| 16. Kostatzen bazait ere, neure buruari zerbait proposatzen diodanean, lortu egiten dut | | | | |
| 17. Lanean (edo ikastetxean) garrantzitsua naiz | | | | |
| 18. Erraz desanimatzen naiz | | | | |
| 19. Traketsa naiz | | | | |
| 20. Nire lagunek nitaz iseka egiten dute | | | | |
| 21. Erraz distraitzen naiz | | | | |
| 22. Helduek (edo nire gainekoek) zerbait esaten didatenean, oso urduri jartzen naiz | | | | |
| 23. Oso dohakabea sentitzen naiz | | | | |
| 24. Herabea naiz | | | | |
| 25. Nire pentsamenduak ergelak dira | | | | |
| 26. Besteek egiten dutena egitea zaila gertatzen zait | | | | |

| | Inoiz ez edo ia inoiz ez | Batzue -tan | Asko -tan | Beti |
|---|---|---|---|---|
| 27. Lagun onak ditut | | | | |
| 28. Pertsona ona naiz | | | | |
| 29. Nire sendiarentzat pertsona garrantzitsua naiz | | | | |
| 30. Fisiko aldetik erakargarria naiz | | | | |
| 31. Gauez gaizki egiten dut lo | | | | |
| 32. Nire jokatzeko moduagatik lotsatua sentitzen naiz | | | | |
| 33. Urduri sentitzen naiz | | | | |
| 34. Besteak bezain argia ez naiz | | | | |
| 35. Aktiboa eta langilea naizela pentsatzen du nire sendiak | | | | |
| 36. Ikasi dudana erraz ahanzten dut | | | | |
| 37. Liderra naiz, bai lagunartean, bai lanean. | | | | |
| 38. Nire familiako kutunena naiz | | | | |

## GIZARTEAREN AURKAKO JOKAERAREN ESKALA. ASB
## (J.F. Allsopp eta Feldman)
## Martorell eta Silva-ren gaztelaniarako egokitzapenetik (1993) itzulia

Izen-deiturak
Adina eta ikasturtea

Argibideak

Ondoren jarduera sail bat aurkituko duzu; haietako bakoitzaren ondoren BAI eta EZ hitzak daude. Esaldi bakoitza arretaz irakur ezazu eta egiaz erantzun ezazu, azken hamabi hilabeteetan (urtebetean) jarduera hori noizbait egin baduzu BAI hitzaren zutabean (X) gurutzea jarriz. Azken hamabi hilabeteetan (urtebetean) jarduera hori ez baduzu inoiz egin, EZ hitzaren zutabean jar ezazu gurutzea (X). Galdekizun honi emango dizkiozun erantzunak konfidentzialak dira; aztertzaileak eta zure baimena emango diezun pertsonek bakarrik ezagutuko dituzte.

| | BAI | EZ |
|---|---|---|
| 1. Gauez argiak itzalita joan bizikletaz | | |
| 2. Txartel gabe joan autobusean edo trenean | | |
| 3. Ikastetxean erre (tabakoa) | | |
| 4. Ikastetxetik ihes egin | | |
| 5. Film pornografiko batera joan | | |
| 6. Txanda itxoin behar denean, txanda saltatu | | |
| 7. Ikasgelan edo korridorean zarata atera | | |
| 8. Denda edo kotxe batetik gauzak harrapatu | | |
| 9. Etxe hutsetan kristalak hautsi | | |
| 10. Lagun taldean joan eta norbera baino jende gazteagoarekin borroka egin | | |
| 11. Toki publikoetan barrena kotxez, motoz edo motozikletaz joan | | |
| 12. Ikastetxetik gauzak harrapatu | | |
| 13. Kalea, zinea edo autobusa bezalako toki publikoetan gauzak hondatu edo hautsi | | |
| 14. Borroka batean behar izanda ere, iskilu (arma) bat eraman | | |
| 15. Pub batera joan eta edari alkoholikoak erosi edateko | | |
| 16. Zure gurasoen idatzi (eskutitz edo ziurtagiri) bat faltsifikatu | | |
| 17. Lorategiak edo etxe hutsak bezalako jabetza pribatuetan sartu | | |
| 18. Kaleak eta espaloiak zikindu, botilak hautsiz edo zakarrak botaz | | |
| 19. Lapurtua izan dela pentsatzen duzun zerbait erosi edo trukatu | | |
| 20. Hitz zatar asko esan | | |
| 21. Ikastetxean zerbait erosteko ematen dizuten dirua zeuretzat hartu | | |
| 22. Jabetza pribatuetan sartu, zerbait lapurtzeko | | |
| 23. Pertsona ezezagunekin edukazio gabea izan | | |
| 24. Toki publikoetan pailazoarena egin | | |
| 25. Borroketan sartu | | |
| 26. Ikastetxera berandu heldu | | |
| 27. Eraman behar denean jantzi egokirik eraman ez, adibidez, ikastetxean soinketa egiteko. | | |
| 28. Azterketa batean kopiatu | | |

| | BAI | EZ |
|---|---|---|
| 29. Dirua ostu | | |
| 30. Jendeari harriak bota | | |
| 31. Telefonoz broma astunak egin, adibidez, arrazoirik gabe suhiltzaileei deitu eta alarmari eman | | |
| 32. Motoan joan, hura gidatzen ikasten ari den batekin | | |
| 33. Zigarrotxoak erosi, erretzeko | | |
| 34. Lorategi bihurtutako eskualdeetan zakarra bota | | |
| 35. Zure etxean gauzak lapurtu | | |
| 36. Zuhaitzetatik fruta ostu | | |
| 37. Besteenak diren gauzak hautsi edo lurrera bota | | |
| 38. Pertsona bat uretara botatzea, eserita dagoenean aulkia kentzea bezalako bromak egin | | |
| 39. Behar duzuna baino beranduago jaiki, nahita. | | |
| 40. Lorategi edo parke bateko loreak atera eta zapaldu | | |
| 41. Beste neska edo mutil batena den zerbait ostu | | |
| 42. Egia ez den zerbait esan pertsona bati buruz, hari arazoak sortzeko asmoz edo besteak haren kontra jar daitezen | | |
| 43. Ikastetxekoak diren gauzak hautsi edo hondatu | | |
| 44. Etxe bateko atera deitu eta korrika alde egin | | |
| 45. Tabakoa erre | | |
| 46. Etxeetara, kotxeetara edo trenetara harriak bota | | |

**ASERTIBITATEAREN ESKALA. AE.**
**Godoy, Gavino, Blanco, Martorell, Navarro eta Silva, 1993**

Izen-deiturak
Adina
Ikasturtea

Argibideak:

Egoera sail bat aurkeztuko dizugu ondoren. Horietako bakoitzean erantzun ezberdinak daude eta zure erantzuna zein izango litzatekeen esan diezaguzun nahi dugu. Hau da, egoera horretan egongo bazina zer egingo zenukeen. Erantzunak bikoteetan datoz eta zuk bikote bakoitzeko erantzun bat aukeratu behar duzu.

Egoera bakoitzaren azpian dauden hiru erantzun bikoteak egoera horri dagozkionak dira denak. Adibidez:

a) Ni bakean uzteko eta ez molestatzeko esango nioke
b) Ez nuke ezer esango eta neurean jarraituko nuke.

Kasu honetan zuk ezer esango ez bazenio eta zeurean jarraituko bazenu, «b» hizkia inguratu behar duzu zirkulu batez. Orduan hurrengo erantzun bikotera iragaten zara eta aukera berria egiten duzu, aukeratutako erantzunaren hizkia inguratuz, eta gero gauza bera egiten duzu hirugarren bikotearekin. Adibidean erantzun bat aukeratu beharko zenuke ondorengo bikote bakoitzeko:

a) «Kaixo» erantzungo nioke, nire izena esango nioke eta gero berea galdetuko nioke, edo
b) Bakean uzteko eta ez molestatzeko esango nioke.

a) Ez nuke ezer esango eta neurean jarraituko nuke, edo
b) «Kaixo» erantzungo nioke, nire izena esango nioke eta gero berea galdetuko nioke.

Oso garrantzitsua da erantzun aurretik egoera bakoitza ongi irakurtzea eta zuk egingo zenukeena erantzutea, eta ez zuk egin beharko zenukeela uste duzuna. Egin behar duzuna ez da azterketa bat, ez dago erantzun «onik» edo «txarrik», eta zure notetan ez dute ezertarako eragiten.

1. *Hondartza batean edo parke batean zaude eta hondarrezko gaztelu bat egiten igaro duzu goiz guztia. Orduan neska edo mutil bat hurbiltzen zaizu eta «itsusia eta gaizki egina dagoela iruditzen zait» esaten dizu gaztelua seinalatuz. Zer egingo zenuke zuk?*

a) Zauritua sentituko nintzateke eta ez nuke ezer esango, edo
b) Ni bakean uzteko eta ahoa ixteko esango nioke.

a) «Ba nik uste dut nahiko ongi dagoela» esango nioke, edo
b) Zauritua sentituko nintzateke eta ez nuke ezer esango.

a) «Ba nik uste dut nahiko ongi dagoela» esango nioke, edo
b) Ni bakean uzteko eta ahoa ixteko esango nioke.

2. *Zuri asko gustatzen zaizun joko batez hizketan ari dira zure adineko mutil edo neska batzuk. Gustatuko al litzaizuke solasaldian parte hartzea? Zer egingo zenuke zuk?*

a) Beren hizketaldia etengo nuke, joko horretan zeinen ona naizen adierazteko, edo
b) Taldera hurbilduko nintzateke eta abagunea edukitzean solasaldian sartuko nintzateke.

a) Haiengana hurbildu ere ez nintzateke egingo, edo
b) Taldera hurbilduko nintzateke eta abagunea edukitzean solasaldian sartuko nintzateke.

a) Beren hizketaldia etengo nuke, joko horretan zeinen ona naizen adierazteko, edo
b) Haiengana hurbildu ere ez nintzateke egingo.

3. *Zure lagunekin nonbaitera joan eta etxera normala baino beranduago heltzea gustatuko litzaizuke, baina ez dakizu zure gurasoek utziko dizuten. Zer egingo zenuke zuk?*

a) Egin nahi dudana azalduko nieke eta baimena eskatuko nieke, edo
b) Baimena eskatu gabe joango nintzateke.

a) Ez nieke ezer esango eta etxean geldituko nintzateke, edo
b) Baimena eskatu gabe joango nintzateke.

a) Egin nahi dudana azalduko nieke eta baimena eskatuko nieke, edo
b) Ez nieke ezer esango eta etxean geldituko nintzateke.

4. *Mutil edo neska batzuk zerbaitetan jolasten ari direla ikusten duzu. Hurbildu eta haiekin jolas dezakezun galdetzen diezu. Ezetz esaten dizute, ongi jokatzen ez duzulako. Zer egingo zenuke zuk?*

a) Abagune (aukera) bat eskatuko nieke, edo
b) Zauritua sentiturik joan egingo nintzateke.

a) Ezin jolastu ahal izateko moduko oztopoak jarriko nizkieke, edo
b) Zauritua sentiturik, joan egingo nintzateke.

a) Ezin jolastu ahal izateko moduko oztopoak jarriko nizkieke, edo
b) Abagune (aukera) bat eskatuko nieke.

5. *Lagun batekin zure etxean jostatzen ari zara eta zarata ateratzen ari zarete. Zure gurasoak asko haserretzen dira eta horrenbeste zarata ateratzeagatik builaka hasten zaizkizu. Zer egingo zenuke zuk?*

a) Horretara ezin gaitezkeela zaratarik egin gabe jostatu esango nieke, edo
b) Beste zerbait bilatuko nuke egiteko.

a) Beren builei kasurik egin gabe, zarata ateratzen jarraituko nuke, edo
b) Beste zerbait bilatuko nuke egiteko.

a) Beren builei kasurik egin gabe, zarata ateratzen jarraituko nuke, edo
b) Horretara ezin dezakegula zaratarik egin gabe jostatu esango nieke

6. *Ilara batean ura edateko itxoiten zaude. Beste mutil edo neska bat kolatu eta zuri aurrea hartzen saiatzen da. Zer egingo zenuke zuk?*

   a) Txanda errespetatu eta atzean jartzeko esango nioke, edo
   b) Ilaratik ateratzeko bultza egingo nioke.

   a) Txanda errespetatu eta atzean jartzeko esango nioke, edo
   b) Ez nuke ezer esango edo egingo.

   a) Ilaratik ateratzeko bultza egingo nioke.
   b) Ez nuke ezer esango edo egingo.

7. *Ikastetxetik irten zarenean, zu baino txikiagoa den mutil batek bere tiragomaz tiratu eta ia jo zintuen. Zer egingo zenuke zuk?*

   a) Ez nioke jaramonik egingo eta ibiltzen jarraituko nuke, edo
   b) Berriro ez egiteko esango nioke, arriskutsua delako.

   a) Ez nioke jaramonik egingo eta ibiltzen jarraituko nuke, edo
   b) Jo eta iraindu egingo nuke.

   a) Berriro ez egiteko esango nioke, arriskutsua delako, edo
   b) Jo eta iraindu egingo nuke.

8. *Gogaitzen zaituen zerbait egiten du zure gurasoetako batek. Zer egingo zenuke zuk?*

   a) Horretan ez pentsatzen saiatuko zinateke, edo
   b) Mendekua hartuko nuke bera gogaitzen duen zerbait eginez.

   a) Ni gogaitzen ari dela esango nioke, edo
   b) Mendekua hartuko nuke bera gogaitzen duen zerbait eginez.

   a) Horretan ez pentsatzen saiatuko zinateke, edo
   b) Ni gogaitzen ari dela esango nioke.

9. *Jolastorduan ogitartekoa jaten ari zara. Zure lagunetako batek txokolate puska eder bat dauka, gero jateko. Zuk galdetzen diozu ea puska bat emango dizun, baina zure lagunak «ezetz» esaten du. Zer egingo zenuke zuk?*

   a) «Zekena» eta «zeurekoia» deituko nioke, edo
   b) Txokolate puskagatik nire zerbait trukatzea proposatuko nioke.

   a) Hartaz ahazten saiatu eta jaten jarraituko nuke, edo
   b) «Zekena» eta «zeurekoia» deituko nioke.

   a) Hartaz ahazten saiatu eta jaten jarraituko nuke, edo
   b) Txokolate puskagatik nire zerbait trukatzea proposatuko nioke.

10. *Zure liburu kutunena utzi diozu lagun bati. Handik egun batzuetara itzuli egiten dizu, baina orri batzuk solte daude eta azala zikin eta trakesturik dago. Zer egingo zenuke zuk?*

   a) Konturatu izan ez banintz bezala jokatuko nuke, edo
   b) Iraindu egingo nuke eta libururik gehiago ez uzteko promesa egingo nioke.

a) Nire liburuarekin zer gertatu den galdetuko nioke, edo
b) Konturatu izan ez banintz bezala jokatuko nuke.

a) Nire liburuarekin zer gertatu den galdetuko nioke, edo
b) Iraindu egingo nuke eta liburorik gehiago ez uzteko promesa egingo nioke.

11. *Afaltzen ari zara eta zure amak esaten dizu hozkailuan izozkia dagoela. Orduan altxatu eta puska bat ekartzen dizu platera batean. Zer egingo zenuke zuk?*

a) Gehiago eta berehala ekartzeko esango nioke, edo
b) «Eskerrik asko, ama, zoragarria zara» esango nioke.

a) Ez nioke ezer esango, edo
b) «Eskerrik asko, ama, zoragarria zara» esango nioke.

a) Gehiago eta berehala ekartzeko esango nioke, edo
b) Ez nuke ezer esango.

12. *Jolastorduan zaude eta zure irakaslea hurbiltzen zaizu. Agurtzen zaitu eta zurekin pixka bat hitz egin ondoren, hau esaten dizu. «uste dut mutil/neska ona zarela». Zer egingo zenuke zuk?*

a) «Eskerrik asko» esango nioke, edo
b) Ezer esan gabe joan egingo nintzateke.

a) «Ez, benetan pilako beste edozein bezalakoa naiz, ez naiz berezia» esango nioke, edo
b) «Eskerrik asko» esango nioke.

a) Ezer esan gabe joan egingo nintzateke.
b) «Ez, benetan pilako beste edozein bezalakoa naiz, ez naiz berezia» esango nioke.

13. *Klasera joan aurretik lagun bat etortzen zaizu eta zure etxeko-lanak kopiatzen uzteko eskatzen dizu. Esaten du, zure etxeko-lanak ikusten uzten ez badiozu, adiskide txarra zarela esango diola jende guztiari. Zer egingo zenuke zuk?*

a) Esango nioke, bera alferra eta tranpatia dela mundu guztiari esango diodala nik.
b) Berak egiteko bere etxeko lanak esango nioke.

a) Nire etxeko lanak kopiatzen utziko nioke, edo
b) Berak egiteko bere etxeko lanak esango nioke.

a) Nire etxeko lanak kopiatzen utziko nioke, edo
b) Esango nioke, bera alferra eta tranpatia dela mundu guztiari esango diodala nik.

14. *Dortoka baino traketsagoa eta makalagoa zarela esaten duen mutil bat dago parkean. Zuk, hala ere, badakizu bera baino bizkorragoa zarela. Zer egingo zenuke zuk?*

a) Biotako azkarrena nor den ikusteko lasterketa bat egitea proposatuko nuke, edo
b) Jaramonik ez nioke egingo eta joan egingo nintzateke.

a) Ahoa ixteko esango nioke, edo
b) Jaramonik ez nioke egingo eta joan egingo nintzateke.

a) Biotako azkarrena nor den ikusteko lasterketa bat egitea proposatuko nuke, edo
b) Ahoa ixteko esango nioke.

15. *Ikastetxetik zure lagunekin irten zara. Beraiek erabaki dute egin behar duzuena, zure iritzia kontuan hartu gabe; iritzia eskatu ere ez dizute egin. Zer egingo zenuke zuk?*

a) Ez nuke ezer esango eta besteek erabakitakoa egingo nuke, edo
b) Hau esango nieke. «Egin behar duguna batzuetan neuk erabakitzea gustatuko litzaidake»

a) Kexatu egingo nintzateke: «Nazkatua nago zuei gogoak ematen dizuena egiten, beraz, banoa», edo
b) Hau esango nieke. «Egin behar duguna batzuetan neuk erabakitzea gustatuko litzaidake».

a) Ez nuke ezer esango eta besteek erabakitakoa egingo nuke, edo
b) Kexatu egingo nintzateke: «Nazkatua nago zuei gogoak ematen dizuena egiten, beraz, banoa».

16. *Zure auzoan mutil batek esaten dizu jertse oso polita daramazula. Zer egingo zenuke zuk?*

a) Lotsatuta geldituko nintzateke eta ez nuke ezer esango, edo
b) «Eskerrik asko» esango nioke.

a) Nitaz barre egiteari uzten ez badio enteratu egingo dela esango nioke, edo
b) «Eskerrik asko» esango nioke.

a) Nitaz barre egiteari uzten ez badio enteratu egingo dela esango nioke, edo
b) Lotsatuta geldituko nintzateke eta ez nuke ezer esango.

17. *Udan batere gustatzen ez zaizun toki batera joatea erabaki dute zure gurasoek. Zer egingo zenuke zuk?*

a) Aldi batean ez nieke hitz egingo, niri hitz egingo balidate ere, edo
b) Ez nuke ezer esango eta beraiek nahi duten tokira joango nintzateke.

a) Nik beste toki batera joatea nahiago nukeela esango nieke, edo
b) Aldi batean ez nieke hitz egingo, niri hitz egingo balidate ere.

a) Ez nuke ezer esango eta beraiek nahi duten tokira joango nintzateke, edo
b) Nik beste toki batera joatea nahiago nukeela esango nieke.

18. *Nire lagunetako batek pilota bat urrun samarretik saskiratzea lortu du. Zu begira zeunden eta saskiratzea ona iruditu zaizu. Zer egingo zenuke zuk?*

a) Ez nioke ezer esango, edo
b) «Oso ondo egon zara» esango nioke.

a) «Nik askoz hobeto egin nezakeen» esango nioke, edo
b) «Oso ondo egon zara» esango nioke.

a) «Nik askoz hobeto egin nezakeen» esango nioke, edo
b) Ez nioke ezer esango.

19. *Eraikuntza joko batekin edo zerbait marrazten entretenitua zaude zure etxean. Zure aita handik igarotzen da eta hau galdetzen dizu: «Zertan ari zara?». Zer egingo zenuke zuk?*

a) «Zuri zer axola zaizu?» erantzungo nioke, edo
b) Egiten eri naizena une batez utzi eta zertan ari naizen azalduko nioke.

a) Erantzunik eman gabe, egiten ari naizenarekin jarraituko nuke, edo «ez da ezer» esango nuke, edo
b) «Zuri zer axola zaizu?» erantzungo nioke.

a) Egiten ari naizena une batez utzi eta zertan ari naizen azalduko nioke.
b) Erantzunik eman gabe, egiten ari naizenarekin jarraituko nuke, edo «ez da ezer» esango nuke.

20. *Jolastordu garaian ezagutzea gustatuko litzaizukeen norbait ikusten duzu. Bakarrik zaude. Zer egingo zenuke zuk?*

a) Beregana hurbilduko nintzateke, agurtuko nuke eta hizketan hasiko nintzateke, edo
b) Nagoen tokitik oihu egingo nioke etortzeko esanez.

a) Bera niregana zuzendu ezean, ez nioke ezer esango, edo
b) Nagoen tokitik oihu egingo nioke etortzeko esanez.

a) Beregana hurbilduko nintzateke, agurtuko nuke eta hizketan hasiko nintzateke, edo
b) Bera niregana zuzendu ezean, ez nioke ezer esango.

| NERABEENTZAKO PROGRAMAREN EBALUAZIORAKO GALDEKIZUNA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Izena: | | | | |
| *Lankidetza eta debate jarduera hauek gauzatu ondoren zenbateraino aldatu zaren (ezer ez, zerbait, nahikoa edo asko) balora ezazu* | | | | |
| | Ez naiz ezer aldatu | Zerbait aldatu naiz | Nahikoa aldatu naiz | Asko aldatu naiz |
| Ikasgelan lagun gehiago ditut | | | | |
| Ikasgelako adiskideekin gehiago hitz egiten dut | | | | |
| Lehen hitz egiten ez nuen ikasgelako adiskideekin hitz egin dut | | | | |
| Nire iritziak gehiago adierazten dizkiet besteei, modu irekiagoan komunikatzen naiz | | | | |
| Ikasgelako nire adiskideak nirekin bat ez datozen arren, nire iritziak ematera ausartzen naiz | | | | |
| Taldeko jardueretan gehiago esku hartzen dut | | | | |
| Arreta gehiagoz entzuten dut nire adiskideak hitz egiten ari direnean | | | | |
| Neure burua modu positiboagoan dakusat | | | | |
| Nire adiskideak modu positiboagoan ikusten ditut | | | | |
| Besteak gutxiago errefusatzen ditut | | | | |
| Besteen sentimenduetan arreta gehiago jartzen dut | | | | |
| Sentimenduak (tristura, amorrua, beldurra, inbidia...) sortarazten dituzten zergati edo egoerei buruz hausnartzen ikasi dut | | | | |
| Tristura, amorrua, beldurra... bezalako sentimenduak adierazteko modu egokiak ikasi ditut | | | | |
| Nire sentimenduak gehiago adierazten ditut ikasgelan | | | | |
| Besteekiko laguntza jokaera gehiago ditut | | | | |
| Taldeko ardura-eginkizunetarako (adibidez, idazkariarena egitea edo taldeak behar dituen beste lan batzuk...) boluntario bezala gehiagotan eskaintzen dut neure burua | | | | |

| | Ez naiz ezer aldatu | Zerbait aldatu naiz | Nahikoa aldatu naiz | Asko aldatu naiz |
|---|---|---|---|---|
| Besteekin lankidetzan gehiago jarduten naiz | | | | |
| Nire adiskideek baino jokaera erasokor gutxiago ditut | | | | |
| Debateetan zehar beste pentsaera ezberdin batzuk, nirearenetik ezberdinak diren ikuspegi batzuk ezagutu ditut | | | | |
| Beste adiskide batzuen iritziak gehiago errespetatzen ditut | | | | |
| Nire ikaskideek gehiago errespetatzen eta entzuten nautela sentitzen dut | | | | |
| Beste gizakienganako jarrera arrazistak ezagutzen ikasi dut | | | | |
| Beren itxura fisikoaz edo kanpoko irudiaz gain pertsonen beste alderdi batzuk kontuan hartzen ditut | | | | |
| Inguruko pertsonei eta errealitateari buruz ditudan ideia eta iritziez gehiago hausnartzen dut | | | | |
| Gizakien, pertsonen artean gertatzen diren arazo edo gatazkei buruz eztabaidatzen ikasi dut | | | | |
| Ikasgelako adiskideek arazo edo gatazkaren bat dutenean haiei laguntzeko asmoz modu aktiboagoan eta positiboagoan esku hartzen dut | | | | |
| Esperientzia honetan irakasle izan dudanarekin hobeto konpontzen naiz, harreman positiboagoa daukat. | | | | |

1. 1etik 10erako balorazio eskala batean adieraz ezazu zenbat gustatu zaizun esperientzia hau

2. Adieraz ezazu zein jarduera gustatu zaizkizun gehien eta zergatik

3. Gutxien gustatu zaizkizun jarduerak izenda itzazu eta adieraz ezazu zergatik

4. Egin dugun esperientzia honek gai batzuekiko zure interesa gehitu al du? Horrela bada, zeintzuekiko?

5. Saioetan tratatu ditugun gaiei buruz hitz egin al duzu saioetatik at beste pertsonekin, hala nola, lagunekin, adiskideekin edo zure sendiko pertsonekin…?

6. Zer iruditu zaizu esperientzia hau? Zer eman dizu?

7. Esperientzia honetan zerbait negatiborik egon bada, atal honetan komenta dezakezu.

| Irakasle eta ebaluatzaileentzako programaren ebaluaziorako galdekizuna | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Ebaluatzailearen izena eta ebaluazioaren data* | | | | | | | | | | | |
| *Ondorengo itemak balora itzazu 1etik 10erako estimazio eskala batean* | | | | | | | | | | | |
| Ebaluazio gai diren aldagaiak | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 1. Esperientziaren une ezberdinetan eduki duzun motibazio maila | — Esperientziaren hasieran | | | | | | | | | | |
| | — 10. saioan | | | | | | | | | | |
| | — 17. saioan | | | | | | | | | | |
| | — Saioak amaitzean | | | | | | | | | | |
| 2. Lanarekiko asebetetze maila orokorra | | | | | | | | | | | |
| 3. Lanaren garapenak orokorrean izan duen zailtasun maila | | | | | | | | | | | |
| 4. Lanaren interes maila, orokorrean | | | | | | | | | | | |
| 5. Esku-hartzearen jomuga diren aldagai bakoitzean hautemandako aldaketa maila | — Esperientziaren bidez asebetetze, atsegin sentimendu bat suspertu nerabeengan (jardueran esku hartzen dutenen atsegin maila, ongizate maila) | | | | | | | | | | |
| | — Taldeko kideen esku-hartze handiagoa saioetan | | | | | | | | | | |
| | — Norbere buruaren eta besteen ezagutza handiagoa | | | | | | | | | | |
| | — Norbere irudia hobetzea | | | | | | | | | | |
| | — Besteen irudia hobetzea | | | | | | | | | | |
| | — Talde barneko komunikazio handiagoa, taldeko kideen iritzien agerpen maila handiagoa | | | | | | | | | | |
| | — Entzute aktiborako aztura hobeak | | | | | | | | | | |
| | — Talde kohesio handiagoa | | | | | | | | | | |
| | — Besteen onarpen handiagoa, taldeko kideen artean errefus (zokoratze) gutxiago | | | | | | | | | | |
| | — Sentimenduen adierazpen handiagoa | | | | | | | | | | |

| Ebaluazio gai diren aldagaiak | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | —Besteen sentimenduekiko enpatia handiagoa | | | | | | | | | | |
| | —Emozio ezberdinen zergatien, ondorenen eta haiei aurre egiteko moduen ulerkuntza hobea | | | | | | | | | | |
| | —Laguntzako harreman handiagoak | | | | | | | | | | |
| | —Taldean esku-hartzeko gaitasun handiagoa | | | | | | | | | | |
| | —Jardueren harian planteatzen diren debateetan, beren jokaeretan... besteekiko jarrera malguagoak, errespetutsuagoak eta kontsideratuagoak | | | | | | | | | | |
| | —Jokaera asertibo gehiago: iritzien, pentsamenduen, sentimenduen... adierazpena, bestea zapaldu edo eraso gabe | | | | | | | | | | |
| | —Bere gizarte jokaeretan: bere bulkaden autokontrol handiagoa eta erasokortasun txikiagoa | | | | | | | | | | |
| | —Bere gizarte jokaeretan: uzkurtasun gutxiago | | | | | | | | | | |
| | —Norbere hautemateen eta estereotipoen ezagutza handiagoa | | | | | | | | | | |
| | —Besteen hautemateei buruzko informazio handiagoa | | | | | | | | | | |
| | —Taldeko beste adiskideek gatazkak dituztenean gatazka edo erasokortasun egoeretan positiboki esku hartzeko gaitasun handiagoa | | | | | | | | | | |
| | —Gatazka ezberdinei buruzko debateei aurre egiteko prozedurak gehiago ezagutzea | | | | | | | | | | |

1. Zure iritziz interes maila handiena piztu duten programako jarduerak izenda itzazu, arrazoia seinalatuz

2. Ba al da programan aldatuko zenukeen elementuren bat? Ba al dago esperientzian zerbait negatiboa, gustatu ez zaizuna? (deskribatu eta argudiatu: zer aldatuko zenuke eta zergatik).

3. Taldeko mintegiak zein neurritan izan dira baliagarriak lana burutzeko? Egindako zein ariketek eduki dute interes eta baliagarritasun handiena?

4. Adieraz ezazu zeintzuk izan diren zailtasun gehieneko elementuak edo faktoreak (zeintzuk diren aurkitu dituzun arazo esanguratsuenak).

5. Esperientziaren buruan zure taldeko kideengan ikusi dituzun aldaketa positibo esanguratsuenak sintetikoki deskriba itzazu. Item honekin harremanean, zein partaidek iruditzen zaizu atera duela onura gehien esperientziatik? (adieraz ezazu zergatik izan den positiboa haientzat).

6. Aldaketarik eragin al du esperientzia honek zure ikasleekiko harremanetan, zure ikasleak ikusteko moduan (adibidez, haiekiko komunikazio gehiago, haien ezagutza handiagoa...), orokorrean heziketari buruzko zure ideietan, ikasgelako behaketarako zure gaitasunean... Zeintzuk?

7. Esperientzia hau zure ikasleentzat interesgarria gertatu dela uste al duzu? Zergatik?

8. Programarekin edo, orokorrean, esperientziarekin erlazionaturiko beste edozein arazo, azpimarratu nahi duzuna, komentatzeko espazio irekia.

EUSKARA INSTITUTUA

Psikologia

Nerabezaroan nortasunaren garapena eta giza eskubideei buruzko heziketa suspertzeko diseinatutako esku-hartze psikologikorako programa aurkezten da idazlan honetan. Programa hori burutzeko nerabe taldeekin praktikara eraman beharreko jarduerak eta prozedurak deskribatzen dira testuan.

Talde dinamikako hainbat teknika konbinatzen ditu programak, komunikazioa, lankidetza, konfiantza, ezberdintasunekiko begirunea, emozioen adierazpena eta abar sustatzen dituzten jardueren testuinguruan. Nerabe taldeekin esperimentalki balioztatu da eta egindako ebaluazioak frogatu duenez, eragin positiboa izan du garapen sozialeko eta afektibo-emozionaleko aldagai ezberdinetan, hala nola, autokontzeptuan, taldeko adiskideen irudian, enpatian, barne-hersturan, sentimenduak aztertzeko gaitasunean, egoera sozialak ebazteko estrategia kognitiboetan, aurreiritzietan eta beste gizarte jokaeretan.

Egilea, Maite Garaigordobil, Euskal Herriko Unibertsitateko Nortasun, Ebaluazio eta Psikologi Tratamendurako Saileko irakasle titularra da. Haurtzaroko eta nerabezaroko esku-hartze psikologikoarekin zerikusia duten idazlan ugari ditu argitaratuak eta hainbat ikerketa sari jaso ditu arlo horretan.



ISBN 84-8373-435-4

9 788483 734353